



Nerea Loron 'La Furia' rap abeslariari elkarrizketa

Deba ibaiaren biziberritzea urte hauetan zehar



IZENA EMATERA DEI EGIN DUTE

'Ahobizi' eta 'belarriprest' izateko epea ireki da, Bergaran Euskal Herri osorako egindako ekitaldian; 4.300 entitatek eman dute izena arigune izateko / 2

Bergarako Seminarixoan atzo egindako ekitaldian parte hartu zutenak, amaieran, talde argazkian. XABIER URZELAI

Astebetean beste 121 COVID-19 kasu Debagoiengan; lau kutsatu eta heriotza bat Mizpirualden / 6

Jaki bilketa egingo dute aste bukaeran, Lesbosera eroateko, Zaporeak erakundeak deituta / 7



Iker Galartza, Gure Zirkua arduraduna, Arrasaten, asteon. MAIALEN SANTOS

Gaurtik azarora bitartean Arrasaten izango da Gure Zirkua / 57

Gaikako hondakin bilketak gora egin du Aramaion 2019an; errefusera doana %52 da / 16

Kirol taldeetara ere heldu dira lehen koronabirus kasuak, eta ziurgabetasuna ekarri du klubetara / 54



SANMIGELETAKO GEHIGARRI BEREZIAK BARRUAN / 23

SINADURAK

	AINHIZE BARRAINKUA / 18
	ANAJE NARBAIZA / 9
	JOSU ZUBIA / 51
	ANE ZUAZUBISKAR / 13
	ANDER ETXEBERRIA / 64



Maier Arrieta –Getxo–, Irati Ornat –Iruñerria– eta Mikel Arregi –Euskarabidea–. XABIER URZELAI



Kike Amonarriz eta Arrate Illaro, ekitaldiaren une batean. X.U.

Norbanakoei iritsi zaie txanda

Atzo arratsaldean egin zuten Euskaraldiaren bigarren edizioan izena emateko irekiera ekitaldia, Bergarako Seminarixoan. Egitasmoko arduradunek, antolatzaileek zein entitateetako ordezkariak hartu zuten parte. Bideoklipa ere aurkeztu zuten ekitaldian

Maialen Santos BERGARA

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo duten Euskaraldiaren bigarren ediziorako entitateek ariguneetan izena emateko epea izan dute orain artean –domekan amaituko da–. Arrate Illaro Euskaraldiko koordinatzaileak azaldu duenez, epea ixteko egun gutxiren faltan, 4.300 entitatek edo entitateetako egotzek eman dute izena. Guztira, 13.000 arigune baino gehiago sortu dituzte orain arte; eta horietako gehienak barne-ariguneak direla azaldu du Illarok.

'Ahobizi' eta 'belarriprest' rolak Norbanakoei izena emateko txanda izango da hurrena. Lehen edizioan bezala, *ahobizi* eta *belarriprest* rolak hartzeko aukera izango da oraingoan ere, eta, herritar soilez gain, ariguneetan izena eman duten entitateetako

ordezkariak ere norbanako gisa eman beharko dute izena. Horren harira, koordinatzaileak gogora ekarri gura izan du rol bakoitzak ez duela "hizkuntza gaitasuna" adierazten, "ariketa egiteko jorkabidea baizik".

Atzo goizean aurkeztu zuten, Gasteizen, Euskaraldiaren bigarren edizioa, eta parte hartzeko "dei zabala" egin zioten gizarteari. Arratsaldean, aldiz, izen-emate irekiera ekitaldia egin zuten Bergarako Seminarixoan. Ane Zuazubiskarrek eta Gorka Etxabek gidatutako saioa izan zen, eta Euskaraldia antolatzeako ardura duten erakundeetako kideak, herriz herri antolaketa lanetan ari diren lagunak eta ariguneak antolatzen ari diren entitateetako ordezkariak izan ziren aretoan. Eusko Jaurlaritzako Euskara zuzendari Estibaliz Alkorta eta

'24/7' bideoklipa

Euskaraz *Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan* leloari lotutako bideoklipa da, Xabier Apestegik eta Sergio Eliak ekoiztutakoa. Iruñeko Broken Brother & Brass Band taldeak egin du abestia, eta Sustrai Colina bertsolariak jarri dizkio hitzak. Doinua Ion Celestinorena da, bestalde. Nafarroako hainbat tokitan grabatu dute, eta herritar soilak eguneroko esparruetan ageri dira: lanean zein aisialdian, baina, edozein ere, euskararekin harremanetan.

Bergarako alkate Gorka Artola ere izan ziren ikus-entzuleen artean. Goiena telebistan eta *Goiena.eus*-en izan zen ekitaldia zuzenean jarraitzeko aukera, *streaming* bidez.

Aurreiritziak apurtu guran

Euskararen inguruko aurreiritziak apurtzeko spotarekin eman zioten hasiera ekitaldiari; horren bidez erakutsi gura izan zuten askok uste baino jende gehiagok dakiela euskaraz. Jarraian igo ziren oholtzara aurkezleak, ekitaldiari hasiera ematera. "Zailtasunak eta kezka nagusi diren urte honetan, ilusio pizgarri izan nahi duen ariketa sozialari heltzea proposatu nahi dizuegu Euskal Herri osoko emakume eta gizonei", iragarri zuen Ane Zuazubiskarrek. Gorka Etxabek eman zion pasoa, jarraian, Euskaraldiak dituen ezaugarriak eta atzean dagoen antolaketa lana erakusteko prestatu zuten bideoari. *Ahobizi* eta *belarriprest* rolen esangura azaldu zuten bideoan, baita aurtengo berrikuntzen berri eman ere. Hala, argitu zuten entitate ezberdinek ariguneen –euskaraz lasai aritzeko guneak– bidez hartuko dutela parte ariketa sozialean.

Euskaltzaleen Topaguneko presidente Kike Amonarrizek eta Euskaraldiko koordinatzaile Arrate Illarok ere ez zuten hutsik egin. Amonarrizek azaldu zuen "beharrezkoa" dela Euskaraldia bezalako ariketa sozial bat egitea: "Askok pen-

tsatuko dute ez dela garai egokia Euskaraldia egiteko, baina bazuentzat inoiz ez da euskarari bultzada emateko une egokia". Egoeraren eraginez, herrien izen-ematean "zailtasunik" egon bada ere, Topaguneko presidentek zehaztu zuen "aurreko Euskaraldian beste herrik" eman dutela izena aurten ere. Arrate Illarok, bestalde, bigarren edizioa helburuak azaldu zituen: "Hasi genuen bideari jarraipena eman gurako genioke, rolak hobeto ezagututa eta kide berriak erakarrita". Azkenik, *Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan* leloa "gutako bakoitzari egindako gonbita" dela argitu gura izan zuen. Ipar Euskal Herriko Euskal Elkargoko Euskara arduradun Antton Curutcharryk bideo bidez mezu bat helarazteko aukera aprobetxatu zuen, bestalde: "Ohartu gara Ipar Euskal Herrian andana euskaldun daudela, eta horrek bihotzak berotu ditu". Zera esan zuen hizketaldia amaitzeko: "Gazteak ditugu helburu, baina beraiek hunkitzeko behar dugu erakutsi helduek ere erabiltzen dugula euskara".

Aurreko edizioan parte hartu zuten hiru protagonistak osatutako bideoa ikusteko aukera ere

"ASKOTARIKOAK DIRA PARTE-HARTZAILEEN PROFILAK, ETA DENAK BEHARREZKOAK"

MAIER ARRIETA



Aurkezleak: Gorka Etxabe eta Ane Zuazubiskar. X.U.



Nerea Arriola, bakarrizketa egiten. X.U.



Leire Okarantza eta Bingen Zupiria, atzoko ekitaldian.

izan zuten ikus-entzuleek. Ariketak bakoitzari zein neurritan eragin zien azaldu zuten hirurek. Edozelan ere, bat etorri ziren "esperientzia aberasgarria" bizi izan zutela esaterakoan.

Getxoko Euskaraldiko koordinatzaile Maier Arrietak, Euskarabidea Euskararen Nafar Institutuko zuzendari Mikel Arregik eta Iruñerriko Euskaraldiko dinamizatzaile Irati Ornatetik hartu zuten hitza gero, eta euskararen inguruko aurreiritziak izan zituzten berba guztiak. Arrietak azaldu zuen askotarikoak direla Euskaraldiko parte-hartzaileen profilak, baina "denak direla

"HERRITARREN INPLIKAZIOARIK GABE NEKEZ EGIN DEZAKEGU AURRERA"

MIKEL ARREGI

beharrezkoak". Herrietan sortu diren batzordeei esker hitzak eskaini zizkien, jarraian, Arregik: "Kanpainetan herritarren inplikazioari gabe nekez egin daiteke aurrera". Amaitzeko, herri batzordeen barne antolaketaz, borondatezko lanaz eta lankidetzaz aritu zen Ornat. Datozen asteotarako eginkizunak ere zehaztu zituen; izen-ematean zehar egin beharrekoak. Herrietako batzordekideek egindako bideoa erreproduzitu zuten gero.

Umoretik ere izan zuten ekitaldiak: Nerea Arriolak roletan buruzko bakarrizketa eskaini zuen, hain zuzen.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburu Bingen Zupiria eta Leire Okarantza Fagor Taldeko Gestio Sozialeko arduraduna ere igo ziren oholtzara. Lehenak arlo sozioekonomikoak eta aisialdian eremuak Euskaraldian lan-

tzeak duen garrantziaz berba egin zuen: "Herritarren egunerokoaren zati handi bat gertatzen da arlo sozioekonomikoan eta aisialdian. Urratsak egiteko beharrezkoa da eroso sentitzea eta aldeko giro eta baldintzak izatea". Ildo horretatik, azaldu zuen urratsak egin daitezkeela Euskaraldia moduko dinamiketan, "baita plangintza luzeagotan ere". Okarantzak, bestalde, Fagorren egiten ari diren lana eta hartu duten erantzukizun soziala izan zituen berba guztiak.

2020ko Euskaraldiko bideoklipa estreinatzeko ikusteko aukera izan zuten parte-hartzaile zein ikus-entzuleek, eta erritmo alaiarekin agurtu zituzten aurkezleek ekitaldia jarraitzen ari ziren guztiak. *Euskaraldia.eus* webgunean eta mugikorrerako sortu duten aplikazioan izena ematera gonbidatu zituzten euskal herritarrek, beste behin.



X.U.

"Herritarrek aktibatu nahi ditugu"

ARRATE ILLARO
EUSKARALDIKO
KOORDINATZAILEA

Arrate Illaro Euskaraldiko koordinatzaileak azaldu du asko direla azken egunetan ariguneetan izena ematen ari diren entitateak.

Nola joan da izen-ematea?

Balorazioa egiteko goiz da oraindik, ikusi behar dugu zein motatako entitateek eman duten izena. Momentuz, esan dezaket beraientzat momentu delikatu dela eta askok tarte bat egin diotela Euskaraldiari. Eta hori positiboa da.

Norbanakoen txanda da orain...

Hala da. *Ahobizi* eta *belarriprest* roletan izena emateko garaia da orain, baina norbanako gisara.

Eta aurrerantzean, zer?

Herritarrek aktibatzen ahaleginduko gara. Entitateak aktibatzeke nahi genituen baldintzak ez dira eman; agian, batzuek ezin izan dute izenik eman. Lasai egon daitezela: kontua ariketa egitea da; beraz, *ahobizi* eta *belarriprest* moduan egitera gonbidatuta daude. 16 urte baino gehiago izatea eta euskara ulertzea dira baldintza bakarrak.

Zein helburu duzue?

Lehen edizioan baino ariketa sakonagoa egitea. Rolak hobeto ezagutzen ditugu, eta pista gehiago ditugu. Hori baliatuta, hizkuntza ohiturak aldatzea izango dugu helburu.



X.U.

"Euskararen normalizazioa erronka da"

LEIRE OKARANTZA
FAGOR TALDEKO GESTIO
SOZIALEKO ARDURADUNA

Fagor Taldeko Gestio Sozialeko arduradun Leire Okarantzak azaldu du taldeko zortzi kooperatibek eta Fagor Taldeak berak dagoeneko eman dutela izena Euskaraldian.

Zergatik erabaki duzue ariguneak sortzea?

Euskararen normalizazioan ibilbide luzea -20 urtekoa- egin dugu Fagorren, eta euskal komunitatearen parte gara. Euskararen normalizazioa gizarte erronka bat den neurrian, ekarpena egin gura dugu.

Ze motatako ariguneak sortu dituzue?

Kanpokoak eta barrukoak. Gehienak azken mota horretakoak izango dira, halere. Kooperatibak kontsumo zuzeneko zerbitzuak eskaintzen ez dituzenez, kanpo ariguneak mugatuagoak ditugu.

Norbanako gisa emango duzue izena?

Jakina. Enpresa barruan ekimen bat bultzatuko dugu norbanakoak *ahobizi* eta *belarriprest* izan daitezela.

Zertan datza ekimena?

Kanpaina bat egingo dugu. Formakuntza egingo dugu, langileek rol bakoitza ondo identifikatu eta nola jokatu jakin dezaten.

Nolako esperientzia duzue Euskaraldian?

Oso ona. Lehen edizioan ere hartu genuen parte, eta parte-hartzea handia izan zela esan dezaket.

400 entitatetik gora bailaran

Domekan amaituko da entitateek Euskaraldian izena emateko epea, eta dagoeneko 400etik gora dira Debagoienean izena eman dutenak. Orain, herrietako batzordeek hurrengo pausoa emango dute: norbanakoen izen-emate kanpainak abiatzea

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Euskaraldiaren bigarren edizio honetan, norbanakotik kolektibora jauzi egiteko aukera da berrikuntza nagusia. Hain zuzen ere, entitateei ariketan parte hartzeko gonbidapena egin zaie, antolatzaileen hitzetan, euren eremuetan hizkuntza ohiturak aldatzeko "urratsak egiten" has daitezten, eta entitateko kideen parte-hartzea "sustatu eta babestu" dezaten.

Bergaran, domekara bitartean 180 entitate inguru batzea espero du Asier Kortabarria koordinatzaileak, eta pozik agertu da orain arte batzordeak egingako lanarekin. Hiru lantalde eratu zituzten, enpresetara, komertzioetara eta kultur arloko eragileengana gerturatzen, eta bistan da egindako ahaleginak eman dituela bere fruituak. Arrasaten, bestalde, 110 bat eragilek izena ematea espero da, Aretxabaletan 65ek, Oñatin 25 inguruk eta Aramaion eta Eskoriatzan 10 batek. Elgetan, dagoeneko 7 dira izena eman dutenak –gehiago espero dituzten arren–, eta, bestetik, Leintz Gatzagan eta Antzuolan duela gutxi ekin diote, eta oraindik entitateak eta ariguneak identifikatzeko lanetan dihardute.

Baldintzatutako kanpainak

Herri bakoitzak bere bidea egin du entitateengana gerturatzen, baina, zalantzarik gabe, pandemiak eragina izan du prozesu guztietan. Koordinatzaileek azaldu dutenez, konfinamenduan ia etenda geratu zen komunikazioa, eta aurrez aurreko bilerak edo azalpen-dinamikak duela gutxi berreskuratu dituzte. Besteak beste, Arrasate eta Oñatiko kasuak izan dira horiek, eta Jokin Etxebarria eta Xabier

Xabaleta koordinatzaileek adierazi dute azken txanpan berrartu dutela indarrez dinamika. Aretxabaletan, Eñaut Zubizarretak azaldu du egoera ikusita gauzak "gertutik eta poliki" egiten hasi zirela entitateengana gerturatzen, baina azkenengo momentuan azeleragailua zanpatu behar izan dutela.

Bestetik, Elgetan batzordea martxoan elkartu zen Euskaraldiaren bigarren edizioa antolatzen hasteko, baina itxialdia dela-eta prozesua eten, eta irail hasieran elkartu ziren berriz. Larraitz Zeberio eta Ane Bilbao koordinatzaileek onartu dute egoerak ez duela lagundu "martxa hartzen", baina, zailtasunak zailtasun, idatzizko informazioa bidaltzen eta bisitak egiten ere aritu dira. Eskoriatzari dago-kionez, "urte zaila" izan dutela

azaldu du Mari Karmen Arrietak. Martxoaren 17an zuten bilera entitateekin, baina eskoriatzarrei ere itxialdiak plangintza "hankaz gora" jarri ziela azaldu du Arrietak: "Ordutik, erritmoa hartu ezinik gabiltza; dena den, online bileraren bat eta aurrez aurreko bilera txikiak egin ditugu". Bideo bidezko bilerak egin zituzten Bergaran ere konfinamenduak iraun bitartean, baina, ondoren, entitateengana "aurrez aurre eta banan-banan" gerturatu nahi izan dute. Eta halako egoeraren aurrean, lehen-tasunak markatu behar izan dituenik ere bada. Aramaion, Rosa Mondragon koordinatzaileak esan du egoerari irtenbidea emateko, erabakiak hartu behar izan zituztela, eta lehenengo "eragin handiena" izan zezaketen entitateengana gerturatu zirela.

"Fase berriari indarrez ekingo diogu Oñatin"

XABIER XABALETA
OÑATIKO KOORDINATZAILEA

Entitateen izen-ematea pandemiak oztopatu zuen, baina Oñatiko batzordeak argi du orain beste pauso bat emateko aukera dutela.

Bideoa egin duzue entitateak batzeko...

Bai. Bideoan hogeitaz entitate inguruk adierazten dute izena emateko asmoa, eta, era berean, gainerako taldeei ere gonbidapena egiten diete batzeko. Halere, onartu behar da ez ginela iritsi nahi



GOIENA

besterengana, COVID-19ak sortutako egoera tarteko. Hala, aurreko astean batzorde berria egin genuen eta orain azken ahalegina egiten ari gara. **Eta hemendik aurrera, zer?** Fase berrian jarriko dugu indarra: norbanakoengan. Informazio-mahaia jarriko dugu, eta, oraindik zehaztu gabe ditugun arren, bestelako ekimenak ere egin nahi ditugu: Oñatin ikus dadila Euskaraldia hemen dela!

"Herrian badago euskararen aldeko jarrera"

ROSA MONDRAGON
ARAMAIOKO KOORDINATZAILEA

Aramaion 10 eragile izatera iristea espero du batzordeak, eta herriaren erantzuna oso ona izan dela azpimarratu du. **Nola egin duzue lanketa entitateekin?** Aramaio entitateak kontuan hartuta, "lehen-tasunak finkatu" genituen; hau da, herrian indar eta eragiteko ahalmen gehien duten eragileengana jo genuen lehenengo, modu berezian. Hein batean, entitate horiek



GOIENA

gainerakoentzako "eredu" izatea nahi izan dugu.

Nola jaso dute?

Oso pozik gaude jasotako erantzunarekin; oso harrera ona izan du. Herrian badago euskararen aldeko jarrera, herritarrek sentsibilizatuta daude, baina Aramaio txikia da eta ezaugarri bereziak dituela ere hartu behar da kontuan: adibidez, denda batzuen kasuan, entitatea pertsona bakarrak osatzen du.



Arrasateko aurkezpena, Kulturatego klausoruan. XABI GOROSTIDI



Aretxabaletako hamabostekoaren argazkia. MIRARI ALTUBE



Bergarako entitateen argazki erraldoia. JONE OLABARRIA



Eskoriatzako batzordekideak herriko entitateetako ordezkariekin. EUSKARA BATZORDEA

Hurrengo pausoa: norbanakoak
Atzo, hilak 24, ireki zen norbanakoak *ahobizi* edo *belarriprest* gisa izena emateko epea, eta hemendik aurrera deialdia bultzatzea izango da herrietako batzordeen egitekoa. Entitateak

jomugan izan dituen sasoia amaitzeaz da, eta batzorde batzuek oraindik ez dute astirik izan aurrera begirakoetan pentsatzeko. Dena den, argi dute askotariko ekimenak egin nahi dituztela bigarren txanpari eki-

teko. Besteak beste, ekintza-egitza osatzea eta identifikagarrien eta txapen banaketa egitea tokatuko da fase berrian.

Urriaren informazio mahaiak jartzearen aldeko apustua ere egingo dute Debagoieneko batzorde gehienek; horrela, bertan Euskaraldiaren inguruko xehetasunak azaltzeaz gain, izena emateko aukera ere eskainiko dute, eta materiala salgai jartzeko ere baliatuko dituzte mahaiak. Oñatin argi dute norbanakoei zuzendutako deialdian jarriko dutela "indarra", eta batzordeak erabaki du herrian egingo diren kultur ekimenetan edo bestelako ekitaldietan "postu ibiltaria" jarriko dutela. Eta asmo bera dute Arrasaten ere: izen-emate mahaiak jarriko dituzte, eta, bestetik, prozesua online egin nahi dutenei laguntza eskainiko diete. Aurrera begirako plangintza adosteko, ordea, batzordeak batzorra egingo du urriaren 1ean. Bestetik, giroa berotzen hasteko, *Txor-txor* bakarrizketa izango da gaur Biterin, 19:00etan, eta emanaldia Antzuolan (urriak 3) eta Eskoriatzian (urriak 2) ere eskainiko da. Bakarrizketaren eguna baliatuko dute, hain zuzen ere, eskoriatzarrek izen-ematearen inguruko azalpenak emateko.

Aretxabaletan, bestalde, datorren astea "atseden hartzeko" erabiliko dute, baina baita urriaren 6ko batzar irekia prestatzeko ere; Eñaut Zubizarreta koordinatzaileak azpimarratu du deialdi zabala egin nahi izan dutela, batzordea "odol-berritze"ko". Batzar horretan erabakiko dute nola antolatuko diren datozen asteetan. Bukatzeko, Armaion "giroa berotzea" da batzordearen helburua, baina Mondragonek adierazi du oraindik ez dutela zehaztu zeintzuk izango diren ekintzak: "Agian, formakuntzara bideratuko ditugu ekimenak, eta zozketaren bat ere egin nahi dugu".

Euskaraldirako lokala Bergaran
Bergararrek postu ibiltaria jarri beharrean lokala irekitzea erabaki dute. Urri hasieran irekiko dute Barrenkalea kalean, eta bertan argituko dituzte herritarren zalantzak. Bestetik, Euskaraldiko materiala eskuragarri jarriko dute. Helburua iazko parte-hartzea gaintzea eta gazteengan eragitea dela azaldu du Asier Kortabarriak.

Ariguneak, aukerak bermatzeko

Entitateen parte-hartzea izan da bigarren edizio honen berrikuntza, eta horrekin batera ariguneak identifikatzea. Hala, erakunde publikoek, gizarte eragileek, enpresek, kooperatibek, kultur edota kirol elkarteek eta bestelako entitateek eman ahal izan dute izena, eta haien ariguneak identifikatu dituzte.

Ariguneak euskaraz aritzeko guneak dira; euskaraz jarduteko aukera bermatzen dutenak, hain zuzen ere. Sustatzaileen esanetan, Euskaraldiaren ariketa "modu kolektiboan" egiteko aukera ematen dute: "Taldea hauetako kideek *ahobizi* eta *belarriprest* modura jardungo dute Euskaraldiak iraungo duen hamabost egunetan, baina soilik norbanako gisa egin beharrean, ariketa kolektiboki gauzatu dute ariguneetan".

Bi arigune mota

Zehazki, bi motatako ariguneak bereizi dituzte: barne-ariguneak eta kanpo-ariguneak. Barnekoetan, entitatea osatzen duten—edo ohiko dinamikan jarduten duten— kide guztiek euskara ulertu beharko dute—. Helburua modu kolektiboan euren arteko hizkuntza-ohiturak aldatzeko "aurrerapausoak ematea" izango da, eta horiek adostuko dituzte espazio horretan. Erabakia hartzeko, kideen %80k egon beharko dute ados, gutxienez, eta kide bakoitzak erabakiko du bere rola zein izango den: hau da, *ahobizi* edo *belarriprest* bezala parte hartuko duen.

Kanpo-ariguneak, berriz, entitatearen baitan herritarrekiko harreman-espazioetan daudenean osatzen dituzte. Espazio horietan, une oro *belarriprest* edo *ahobizi* bat egongo dela bermatu beharko da, herritarrak euskaraz artatzeko bermea izateko. Besteak beste, harrera postuak, supermerkatuetako kutxak, telefono bidezko arreten arduradunak, tabernariak eta dendariak izan daitezke gisa horretako espazioak edo ordezkariak.

"Ariguneak zer diren azaltzea tokatzen da"

LARRAITZ ZEBERIO
ELGETAKO KOORDINATZAILEA

Larraitz Zeberio Elgetako batzordeko koordinatzailea da Ane Bilbaorekin batera. Bigarren edizioa prestatzen hasteko, iaz uztailean hasi ziren elkartzen.

Zertan aritu zarete aurten?
Ariguneen identifikazioa aktibatzea erabaki genuen eta horretan jardun dugu azken asteotan. Idatzizko informazioa bidali dugu hainbat entitatetara, eta bisitak ere egin ditugu. Arigune bat zer



U.I.

den ondo azaltzea tokatzen da aurten, eta parte-hartzaileei aurtengo egoera berezia dela-eta sortzen zaizkien galderei ahal den moduan erantzun nahi izan diegu. **Nolako erantzuna jaso duzue momentura arte?**
Lanak eman ditu lehenengo fruituak. Poliki bada ere, hasi dira izen-emateak. Momentura arte, zazpi arigune daude izena emanda, eta espero dugu gehiago ere animatzea.



TXANTXIKU IKASTOLA, Koop. Elkartearen OHIKO BATZAR NAGUSIA

GAI ZERREDA

EGUNA: URRIAREN 14a, EGUAZTENA
ORDUA: 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenetan.
LEKUA: Santa Ana antzokia

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko.
2. 2019/2020 ikasturteko kudeaketa txostenaren berri ematea.
3. 2019ko Urteko Kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea.
4. 2019 urteko emaitzen banaketa eta, badagokio, onartzea.
5. 2020 urteko aurrekontua aztertzea eta, badagokio, onartzea.
6. 2020/2021 ikasturteko zerbitzuen ordainsarien berri ematea.
7. Gurasoen Kontseiluaren urteko jardueraren berri ematea.
8. Errektore Kontseiluko eta Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
9. Galde-eskeak.

OHARRA:

Bazkideei gogorarazien zaie sozietatearen egoitza eskuragarri ditzatela Urteko Kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kudeaketa txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertzea ahal izan ditzaten.

Oñatin, 2020ko irailaren 25ean

Positiboak goraka, 1.000ko langa pasata

141 kasu positibo berri izan dira aste honetan Debagoiengan. Horietatik, Bergara izan da baieztatutako positibo gehien batu dituen herria bailaran. Izan ere, 49 kasu positibo izan dira, joan den astearekin alderatuta, bikoitza

Imanol Beloki DEBAGOIENA

Jaurlaritzako Osasun Sailak egunetik egunera COVID-19 kasu positibo gehiago hautematen jarraitzen du. Euskal Herrian, izurriaren une larrienak martxoan eta apirilean gertatu ziren, eta maiatzean eta ekainean gaitzaren hedapena txikiagoa izan zen. Edozelan ere, udako oporraldian berriro hasi ziren ugartzen positiboak, eta baita ospitaleratzeak ere. Gipuzkoan, esaterako, aste honetako igoera da azpimarratzekoa, eta Debagoiengan, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan kasu positibo gehiago izan dira oraingoan joan den astekoan baino.

Euskal Autonomia Erkidegoan 10.825 PCR proba egin zituzten eguaztenean, eta 518 kasu baieztatu zituzten, aurreko egunean baino 100 gehiago. Bizkaian 229 positibo egon dira, Gipuzkoan 182, Araban 79, eta 28 bestelako lurraldeetan erroldatutako artean. Birsorkuntza tasak 1 azpitik jarraitzen badu ere, mugan dago oraindik; aurreko eguneko 0,98tik 0,96ra jaitsi da azken orduetan.

Bestalde, erietxeetako egoerak datu orokorretan antzera jarraitzen badu ere, eguazteneko datuak martitzenekoekin alderatuta,

Koronabirusa Debagoiengan

	Positiboak aurreko astean	Positiboak aste honetan	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Arrasate	65	61	514	23,30
Bergara	22	49	217	14,46
Oñati	24	15	156	13,74
Aretxabaleta	6	12	127	17,89
Eskoriatza	0	2	40	9,84
Antzuola	4	1	18	8,18
Elgeta	0	0	14	12,29
Aramaio	4	0	10	6,62
Gatzaga	0	1	1	4,00
GUZTIRA	125	141	1.097	

OHARRA: EGUZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

herritar gehiago ingresatu dituzte: 43, guztira. Bestalde, Zainketa Intentsiboetako Unitatean (ZIU) 52 paziente daude eta 278 solairuetan.

Zifra borobilak eta altuak

Pandemiak eskualdean izandako bilakaerari dagokionez, martxo-apirileko gorakadaren ostean,

maiatzean eta ekainean egoera egonkortu egin zen eta uztaile amaieran egoera aldatu eta gorakako joera hasi zen. Azpimarratzeko datua da, esaterako, uztailetik irailera bitartean 500 kutsatu izan direla Debagoiengan.

Asteon, zifra borobiletara ere iritsi dira eskualdeko bi herri. Hain zuzen ere, Bergara eta

Arrasate. Martitzenean egindako PCR probek zazpi kasu berri baieztatu zituzten Arrasaten, bost Bergaran eta bana Aretxabaletan eta Oñatin. Azken positibo horiekin, Arrasatek kutsatuei dagokionez 500eko langa gainditu du, eta Bergaran, berriz, 200etik gora dira kutsatutakoak. Eguazten honetan, egunean zehar egindako probetan 33 kasu berri atzeman zituzten Debagoiengan; kasu honetan ere, Arrasaten eta Bergaran gehienak. Herriz herrikoan, Aretxabaletan sei kasu baieztatu zituzten, Arrasaten hamar, Bergaran hamabi, Eskoriatzan bi eta Oñatin hiru. Leintz Gatzagan, berriz, joan den egubakoitzean iritsi zen lehenengo kasu positiboa herrira; hala, dagoeneko Debagoieneko herri guztietara hedatu da birusa.

Positibo, eta tabernan lanean

Arrasaten kasu positibo gutxiago izan dira aste honetan, aurreko astekoarekin alderatuz, baina 514 kasu izan dira pandemia hasi zenetik; kezkatzeko moduko datua. Horrekin batera, eguaztenean, Arrasateko Ederra taberna itxi zuten, bi zerbitzarik positibo eman eta lanean jarraitu izanagatik. Ertzaintzak bi langile hauen arauhauste larriaren berri izan zuen eguazten arratsaldean, tabernako bezero batek egindako deiaren ondorioz. Udaltzaingoak salaketa abiatu du. Taberna zigilatuta dago orain, eta bi zerbitzariak koarentenan daude. Hala eta guztiz ere, azken egunetan Ederra taberna barruan egon diren pertsonen Osakidetarekin harremanetan jartzeko dei egin diete, PCR probak egin ditzaten.

Egoitzen egoera, egonkortuta

Bergarako Mizpirualdeko nagusien egoitzan izan ezik, egoera egonkortuta dago eskualdeko beste egoitzetan, nahiz eta prebentzio eta higie neurri zorrotzekin jarraitzen duten. Pandemia hasi zenetik lau positibo izan dira Bergarako Mizpirualden. Egun, baina, hiru dira kutsatutako egoiliarak. Izan ere, lehenengo kutsatu zen egoiliarra hilaren 21ean hil zen.

Eskoriatzako Jose Arana nagusien egoitzan, bestalde, apirilean bi kasu positibo izan zituzten, baina ordutik ez dute kasurik izan. Horrela, bide beretik jarraitu gura dutela adierazi du Mireia Larrañaga zuzendariak: "Une honetan, oso ondo gaude, eta hala jarraitu nahiko genuke. Bisitak izaten jarraitzen dute egoiliarrek, eta kalera ere ateratzen dira familiarrekin. Gure aldetik, paseo terapeutikoak egiteko gomendatzen diegu, eta, eremu jendetsuak eta itxiak saihesteko eskatu diegu. Hala ere, neurri guztiak ari gara hartzen, eta zenbait egoiliarri kostatzen zaie oraindik ulertzea..."

Egoitzetako langileen greba

Bestetik, Gipuzkoako zahar egoitzetako langileek osasun krisiaren aurretik pairatzen zituzten lan baldintzak orain are okerragoak direla adierazi diete instituzioei. Hala, martxoaren 13an 242 egunen ostean bertan behera utzi zuten grebari berriz ekiten erabaki dute, urriaren 6an.

ARRASATEN 500 POSITIBOKO LANGA GAINDITU DUTE ETA BERGARAN 200ETIK GORA DIRA KASUAK

Bidelari edo bidelagun izateko gonbita egin dute berbalagunek

2020-2021 ikasturterako izen-emate kanpaina abian jarri dute eskualdeko berbalagun taldeek

I.B. DEBAGOIENA

Mintzapraktika taldeek euskara bizitzeko, hobetzeko, erabiltzeko eta gozatzeko aukera bikaina eskaintzen dutela esanez, berbalagunetan izena emateko gonbidapena egin diete herritarrei

Debagoieneko berbalagunen taldeek, *erabili, elkartu, bizi, hobetu eta gozatu* hitzak erabiliz.

"Euskara bizitzeko, hobetzeko, erabiltzeko eta gozatzeko aukera bikaina eskaintzen dute mintzapraktika egitasmoek talde

txikietan euskaraz elkartuz. Egoera zailetan ere euskara lagun delako, bizi dugun egoera aldrebes honi ez diogu oztopo izaten utzi nahi bidelagun eta bidelari sarea hedatzen jarraitzeko. Horregatik, eskualdeko berbalagun egitasmoak bultzatzen ditugun eragileok gonbita egiten dizuegu herritarroi bidelari edo bidelagun izateko. Ez daitezela musukoak euskararen doinu ederra isilarazteko aitzakia izan. Pertsonaz pertsona, taldez talde, herriz herri



Berbalagunetako koordinatzaileak. I.LARRESE

euskara bizi, hobetu, erabili eta gozatu euskaraz elkartuz. Eman izena, izan berbalagun", adierazi dute Berbalagun egitasmoetako koordinatzaileek.

Izen-emate kanpainari indarra emateko, gainera, ikus-entzunezkoa egin dute mintzapraktika taldeetako koordinatzaileek, eta sare sozialetan jarri dute, zabal-kundea emateko asmoz. Kontakutak eta informazio gehiago, *Goiena.eus* webgunean eta herrian herriko taldeen Facebook orrietan ikusgai.

Jaki bilketa asteburuan, Lesbosera bidaltzeko

Zaporeak gobernuz kanpoko erakundeak antolatuta, eta Moriako kanpamentuan bizi duten egoera "kritikoa" izanik, gaur eta bihar arituko dira jakiak biltzen Euskal Herrian. Arrasaten, Aretxabaletan eta Antzuolan jarri dituzte bilketa-guneak

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Joan den irailaren 8an Lesbos uhartean dagoen Moriako errefuxiatuen esparruan gertaturiko sutearen ondorio "latzak" ikusita, Zaporeak elkarteak larrialdiko janari bilketa antolatu du. Gaur eta bihar egingo dute bilketa hori. Arrasaten, Aretxabaletan eta Antzuolan egongo dira jaki horiek jasotzeko hainbat gune. Arrasaten, Lidl, Super BM eta Maxi Eroski supermerkatuetan egongo da produktuk lagatzeko tokia. Aretxabaletan, berriz, Eroski supermerkatuan eta udaletxe zaharrean. Antzuolan, zapatuan, 12:00etan, Abade etxean.



Boluntario bat otordua prestatzen. ZAPOREAK

Etengabe lanean

Arrasate eta Aretxabaletari dagokionez, gaur 14:00etatik 20:00etara egongo dira boluntarioak Aretxabaletan; 21:00ak arte Arrasaten. Bihar, goizez egongo da jakiak eramateko aukera herri bietan, 10:00etatik 14:00ak arte.

Egunero lau mila otordu inguru banatzen ditu Zaporeak elkarteak Lesbosko kanpamentuan, eta bere egitekoarekin jarraitu ahal izateko elikagai zerrenda bat helarazi dute: arroz luzea, makarroiak, lekariak – dilistak, garbantzua eta babarrunak –, atuna eta sardinak latan, oliba-olioa, espeziak –pi-

perbeltza, piperbeltz zuria, kuminoa eta currya-, esne-hautsa eta barra energetikoak. Norbaitek bilketan parte hartu nahi badu, 637 89 17 68 telefono zenbakira dei egin dezake.

Egoera "jasangaitza"

Elkarteko kide Maria Agirre aretxabaletarrak azaldu duenez, Lesbosen bizi duten egoera "jasangaitza" da: "Bagenekien halako zerbait gerta zitekeela kanpamentuan, orain arte ere egon direlako sute txikiak, baina ez egoera honen erdian, eta, are gehiago, utzi dituen ondorioak lagata". Gogorarazi dute errefuxiatuak kalean daudela eta aurretik bizi zuten egoera bereziki kaltetu dela duela hiru asteko sutearen ondorioz: "Kanpamentua guztiz kiskalita geratu da eta han bizi diren pertsonak noraezan dabilta ordutik".

Testuinguru horretan, larrialdizko neurriak hartu eta jaki bilketa erraldoia antolatzea erabaki dutela azaldu dute. Aurretik ere egin dituzte bailaran hainbat jaki bilketa, eta, Agirrek zehaztu duenez, erantzuna "oso positiboa" izan da.

Aita Mennin "osasun neurriak hartu gabe" daudela salatu du ELAk

ELAk salatu du oporretatik itzultako langileei PCR probarik egin gabe jarraitzen duela enpresak, arlo soziosanitarioan enpresa guztiak horretara "behartuta" dauden arren. Bestetik, lehendik zeuden "arazo estrukturalak" areagotuz doazela ere adierazi dute, ohar bidez.

Horren harira, enpresako zuzendaritzari eskatu diote langile guztiei PCR probak egin diezaietela, eta langileen eta erabiltzaileen osasuna eta segurtasuna "lehenengo leerroan" jar dezatela. 2018tik negoziatzen ari diren hitzarmena berritzeari enpresak "uko" egiten diola salatu dute, langileen egoera egunetik egunera "okerrera" doala, eta enpresak "irabazi ekonomikoak handitzea" besterik ez duela nahi.

"Hitzarmen duin bat" sinatzera deitu gura izan dute enpresa, eta Aita Menni ospitaleak dituen arazoei "irtenbidea" eman arte mobilizazioekin jarraituko dutela iragarri du ELAk.

LARRIALDI EGOERARI, TAMAINAKO ERANTZUNA EUSKAL HERRI MAILAKO JANARI BILKETA

IRAILAREN 25EAN ETA 26AN

OSTIRALA 25, 14:00 - 20:00
LARUNBATA 26, 10:00 - 14:00



ARRASATEN: MAXI EROSKI, LIDL ETA SUPERBM DENDETAN
ARETXABALETAN: EROSKI CENTERREN ETA
UDALETXE ZAHARREKO ERAIKIN AURREAN

ANTZUOLAN: EROSKI, AMAJA ETA AIXA
ARAMAION: KINTENELA
LEINTZ GATZAGAN: FRONTOIAN (SOILIK IRAILAREN 25EAN)

MORIAKO ERREFUXIATUEK LAGUNTZA BEHAR DUTE



Zaporeak

BEHAR DITUGUNAK:

- ARROZ LUZEA
- GARBANTZUAK
- DILISTAK
- BABARRUNAK
- MAKARROIAK
- ATUNA ETA SARDINAK (LATAK)
- OLIBA-OLIOA
- ESPEZIEAK (PIPERRAUTSA, KUMINOA, CURRYA...)
- ESNE-HAUTSA
- BARRA ENERGETIKOAK

Ohituraren ezkutuari buruzko ezkutuan

AINHOA PARDINA

BERGARA

Entitateek Euskaraldian izena emateko epea bukatzen ari da, eta euskarak bizirik jarrai dezan gure hizkuntza ohiturak aldatzea zein garrantzitsua den ohartu naiz, ohitura hori izan ohi baita euskaraz ez hitz egiteko aitzakia nagusia.

Hain zuzen, erabiltzeko ohitura bihurtutako aukera kontziente horrek bereizten ditu, esaterako galizieraren kasuan, *novos falantes* edo *neofalantes* direlakoak –guretzat guztiak *hiztun berriak* izango direnak–.

Kontzeptuok bereizteak hizkuntza gutxituaren erabilerraren garrantzia plazaratzen du. Honela, beharbada, guk ere *euskaldun berri* eta *euskararen hiztun berri* bereizi beharko genituzke, erabilerraren arabera?

Agian, bai. Zer gertatzen da, ordea, hiztun zaharrekin? Hauen erabilera ere klabea izan arren, nik dakidala, galizieraz ere ez dira bi termino bereizten, txikitan etxean euskaraz hitz egiteak gaztaroan zein helduaroan euskaraz hitz egitea bermatuko balu bezala.

Honela, ez dago zalantzarik erabilera puntu garrantzitsuena dela hizkuntzaren bizitzari dagokionez, eta ohitura, askotan, gazteleraz hitz egiteko aitzakia izaten da. Horregatik, komeni da Euskaraldian ahalik eta jende gehienak parte hartzea, oraingoan ariketa ondo ulertuta, eta ohitura horiek aldatzea. Lehenengo, 15 egun erabiliko ditugu euskaraz eginez ohiturak aldatzeko; gero, ohituraren ezkutua deuseztatuta, eguneroko hizkuntza –aisialdikoa, lanekoa, etxekoa...– bihurtu dezagun euskara.

Pixkanaka aurrerapausoak ematen ari gara: 1545ean Etxeparek euskaraz argitaratu zuen bere liburua, euskararen historian epe garrantzitsua markatuz. Aurreko mendean, euskara batua sortu zuten, baita euskaraz ikasteko aukera ere. Ordudanik, D eredu asko hedatzea lortu dugu, baita administrazioan euskara apur bat sartzea ere, adibidez, Garabidekoengana etortzen diren hizkuntza komunitate askoren eredu bihurtuz. Orain, euskararen erabilera handitzea tokatzen zaigu. Guri dagokigu. Orain da ordua eta, pixkanaka-pixkanaka, lortuko dugu! Etxeparek *Linguae Vasconum Primitiae*-ren bukaerako *Kontrapas* olerkian esan zuen bezala: *Heuscara ialgui adi canpora (...)* *Heuscara ialgui adi plaçara (...)* *Heuscara, ialgui adi mundura!*

Sakez luze, pilota frontoitik kanpora pasa da!

JUANRA BALLINA ARRATIBEL

PILOTAZALEA

ARAMAIO

Ez gaude ohituta pilotarien prentsaurrekoak ikusten, ez kexatzeko, behintzat! Azken egunotan protagonista bihurtu dira eta ez pilo taz hitz egiteko. Tamalez, Baiko enpresak hartu dituen erabaki eta jokabideez atsekabea agertzeko kantzaxaratu dira oraingoan, eta ez partidurik jokatzeko.

Pilotazaleontzat ulergaitza da! Zer ari da gertatzen? Egoera txarra, soldata duinik gabe, errespetu falta, mendekua... horiek eta antzeko beste gauza batzuk salatu dituzte.

Nik, beste zale askok bezala, bizi duten egoera ezagutzera emateko hartu duten erabakia babesten dut. Izan ere, pilotazaleok, pilotalekuean gozatzen

dugunok, irtenbide duina besterik ez dugu nahi gure pilotarientzat.

Benetako txapeldunak beraiek direlako, kantxa barruan, gorri edo urdinez jantzita, buruz burukoan zein bikoteka... bestelako interes ekonomikoetatik kanpo!

Aldarrikapen hauen aurrean, Jose Ramon Garairi zuzentzen diot eskaera, egoera bideratzeko, batik bat pilotarien lan-egoera duintzeko eta, ondorioz, pilotazaleon gogoia eta nahia bizirik mantentzeko!

Besterik ez, gora zuek, pilotariok!

Animo eta babes osoa inizatiba hartu duzuenoi, eta bereziki kaltetuen suertatu zaretanoi –Eskiroz, Victor, Laso, Arretxe eta Etxegoien–.

Era berean, hurrengorako eskertzekoa litzateke lankide guztien babesa izatea, baita oraingo honetan adierazi ez dutenena ere,

Ez dezala indarra hartu *poltsikua beteta baina burua hutsik* dioen esaldiak! Izan ere, bizitzak buelta asko ematen ditu.

Gaurkoz, emaitza: J.R. Garai + Olaizola + Urruti + Imaz = 0 // Pilotari + pilotazaleak = 22.

Bidegorri berri bat Kataiden, noizko?

FERNANDO OKINA

ARRASATEKO EH BILDUREN IZENEAN

ARRASATE

Duela urtebete, Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak eta Rafaela Romero Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolamenduko diputatuak Kataideko bidegorria konponduko zutela agindu ziguten, eta obrari ekiteko epeak eta aurrekontua ere aurkeztu zituzten, ohituak gaituzten argazki efektista horietako batean.

Egia da urte konplikatu honetan COVID-19ak hankaz gora jarri dituela asmo asko. Baina, hala eta guztiz ere, beste hainbat egitasmo urbanistikorekin aurrera jarraitu dute

inolako erreparatu eta zuhurtzia ekonomiko barik.

Duela urtebete ere esan nuenez, Arrasate da mugikortasun mailan okerren dagoen herria Debagoienean eta egiten diren hobekuntza gutxiak tantaka datoz.

Bada garaia mugikortasun plan orokor baten aldeko apustua egiteko, konplikazio gehien daukaten zonetan behin-behineko neurriak proban jarri, aurrerago behin betiko konponbideak ezartzeko. Pandemia honek garbi utzi digu orain arte eraman dugun bizimoldea aldatu behar dugula arlo askotan, eta mugikortasuna da horietako bat. Agenda politikoan oinarritzko tokia izan behar du mugikortasun jasangarriaren inbertitzeak, automobilaren aurrean lehentasuna emanaz oinezkoiei, bizikletadunei eta garraio urbanoari.

Erakunde publikoetan gaudenon betebeharra da, alde batetik, bide seguru eta erosoak eskaintzea eta, bestetik, herritarrek mugikortasun jasangarriaren onuz kontzientziaztea, guztion hoberako baitira. Ea urratsez urrats, baina berandu gabe, bidegorri duin bat daukagun Kataiden.

Urriaren 3an Udalatxera eta Kurtzetxikira

ENRIKE LETONA

ARRASATEKO SAREREN IZENEAN

ARRASATE

Sarek Izan Bidea ekimena martxan jarri zuenetik ekintza ugari egin dira. Oraingo honetan, Saretik urriaren 3an 650 tontor egitea proposatu dugu. Arrasateko Saretik bi tontor aukeratu ditugu: Udalatx, euren burua indartsu ikusten dutenentzat; eta Kurtzetxiki, tontorra lasaiago egiteko aukera, bakarrik, lagunekin edo familian. Hori bai, tontor batetik zein bestetik elkartasun bera adieraziko diegu presoiei eta euren senideei.

Ekintza hau iragarri genuenetik, Igor Gonzalez espetzeak hil du. Gaixo dagoen preso batentzat Euskal Herrian egotea ez dela nahiko frogatu da, tamalez; Igorrek etxean egon beharko zuen, legeak dioena betez gero. Izan dadila azkena! Agur eta ohore, Igor!

Arrasaten bertan, Aita Menni ospitalean, gaixorik dagoen beste preso bat daukagu: Kepa Arronategi. Ez dugu ukatuko etxetik 1.000 kilometrora baino askoz hobeto dagoela, baina legeak dio preso gaixoei etxean egon behar dutela; bete dezatela legea eta utz dezatela Kepa etxekoekin aske.

Azken egunetan, kanpaina mediatiko baten bidez, bost preso Euskal Herrira ekarriko dituztela zabaldu dute. Presoei, momentuz, ez zaie deus komunikatu. Ez da harriztekoa Estatu Espainolean horrelakoak gertatzea. Ohituta gaude, baina berdin haserretzen gara. Horietako bat Josu Arkauz da. Preso arrasatearra, eta aspaldi kalean egon beharko lukeena, legeak esaten duena zintzo betez gero. Josuri, gehienez, bi hilabete gelditzen zaizkio kalera irteteko; beraz, dagoen lekuan, Murtzian, gelditzea ez lioke egingo kalte handirik. Aldaketa honek onurak baino kalte gehiago ekarriko dizkio. Kondukzioa, ziegetatik pasatu beharra, ezezagunak dakarren desoreka, funtzionario berriak, preso ezezagunak... Ohitu baino lehenago kalean egongo da! Animo, Josu!

Urriaren 3an mendi tontor bat egiteko hiru kasu hauek aipatu ditugu, baina ehunka arrazoi daude; presoak adina arrazoi. Legea betetzeko borondatea baduzue, ekarri preso guztiak Euskal Herrira, atera kalera gaixoak, 3/4ak bete dituztenak...

Denon artean lortuko dugu; ezin gara etxean geratu. Etorri gurekin Udalatxera edo Kurtzetxikira.

Izan bidea presoien kaleratzea lortzeko!

"Osasun baskularra zaindu behar da, barizeak ez dira estetika bakarrik"

ROBERTO DOMINGUEZ ETA MARTA FERNANDEZ MEDIKUAK

Gasteizko Quironsalud Ospitaleko Roberto Dominguez eta Marta Fernandez doktoreek barizeak tratatzeko azken aurrerapenei buruz dihardute. Angiologian, kirurgia baskularrean eta endobaskularrean adituak dira biak

Noiz komeni izaten da kirurgia baskularreko kontsultara lehen aldiz joatea?

Gomendagarria da kontsultara joatea pazienteak hanketako lehen sintomak detektatzen dituenetik; hau da, astuntasuna, hantura, nekea, kalanbreak... baita lehen barizeak edo armiarmatxoak agertzen direnean ere, gaixotasuna errazago tratatzen baita hasierako faseetan egiten bada. Hala ere, denbora pasatzen uzten badugu, barizeak eboluzionatzen doaz eta, azkenean, tratamenduek arrisku handiagoa ekar dezakete.

Batere inbaditzaileak ez diren gero eta teknika gehiago daude. Posible al da beti kirurgia saihestea?

Gaur egun, patologia baskularren %75 trata daitezke arrisku gutxiago dakarten eta batere inbaditzaileak ez diren tekniken bidez, onargarriagoak dira, ez dute ospitaleraterik behar izaten eta errekupeazioa azkarragoa da. Edozelan ere, esan behar da ezin dela saihestu kirurgia arrunta kasu guztietan; izan ere, patologia mota jakin batzuek ohiko kirurgia behar



Roberto Dominguez eta Marta Fernandez doktoreak. GOIENA

dute emaitza ona ahalik eta gehien ziurtatzeko.

Nola erabakitzen da zer kirurgia mota den egokiena paziente bakoitzarentzat?

Lehenik eta behin, barize mota aztertzen saiatu behar da, pazientearen osasuna hobetuko duen eta, gainera, emaitza es-

tetiko egokia emango duen irtenbidea bilatzeko. Horretarako, Eco Doppler Color erabiltzen da. Proba horrek ez du eragozpenik sortzen, eta kirurgia mota baten edo bestearen alde egiteko datu diagnostiko nagusiak eskaintzen ditu. Bestalde, kon-tuan izan behar da pazientea

nor den, zer arrisku propio dituen –adina, diabetesa, tentsio altua...–, zer errekupeazio-denbora behar dituen, eta abar. Ez da gauza bera errekupeatzeko egun batzuk har ditzakeen pertsona bat eta lanera lehenbailehen itzuli behar duen beste bat. Eta, jakina, ez da berdina 30 urteko paziente bat eta 75 urteko bat.

Zer dira irradi-maiztasuna eta mikroaparra? Zein dira bi tekniken arteko aldeak?

Irrati-frekuentzia zainari beroa igortzen dion teknika bat da, ixtea eragiteko. Anestesia lokalekin eta sedazio leunarekin egiten da, eta oso ondo toleratzen da kasu gehienetan. Mikroaparra, berriz, anestesiarik gabe egiten den teknika bat da, eta kaltetutako zainen mailan hainbat ziztada egitean datza, zainaren hormari kalte kimiko kontrolatua eragiteko eta, horrela, itxi eta desagerrarazteko. Ia barize guztietan eta armiarmatxoetan erabil daiteke, emaitza estetiko on bat bilatuz. Bi tekniken arteko aldea da mikroaparrak saio gehiago behar dituela eta irradi-maiztasuna, aldiz, saio bakarrean egiten dela.

Zein denbora behar du pazienteak, batez beste, errekupeatzeko eta bizimodu normala egiteko?

Egiten den ebakuntza motaren arabera izaten da hori. Bai irradi-maiztasunarekin, bai eta mikroaparrarekin ere, pazienteak bizitza ia normala egin dezake lehen egunetik hasita. Aldiz, kirurgia bat egiten bada, errekupeatzeko denbora egunekoa da Chiva teknikaren kasuan, eta hilabete edo gehiagokoa kirurgia arruntaren kasuan.

Komeni da jarraipenik egitea?

Bai, komeni da aldizkako jarraipena egitea; izan ere, zain-

gutxiegitasuna kronikoa da; alegia, nahiz eta barizeak behar bezala tratatu diren, beste leku batzuetan berrager daitezke. Egokiena litzateke urtean behin kontroleko Eco Doppler bat egitea, garaiz diagnostikatu ahal izateko eta prebentzio-jarraibideak nahiz tratamendu mediko-farmakologikoak aplikatzen joateko.

Zuen esperientziaren arabera, ohikoagoa al da pazienteak kontsultara joatea gai estetikoago baten gainetik edo osasun-arazo larriagoen gainetik?

Hori paziente motaren arabera da. Gero eta ohikoagoak dira estetika-tratamenduak, baina garrantzitsua osasuna da, eta helburua osasun ona eskaintzea da, ahalik eta emaitza estetiko onenarekin.

Estetikaren kasuan, horrelako ebakuntzetan interesa duten gizonen kopuruak nabarmen egin du gora?

Egia da gizonak gero eta gehiago kezkatzen direla euren itxura fisikoaz eta osasunaz; izan ere, kontsultan dauden pazienteen kopurua handituz doa egunetik egunera.

"BARIZERIK GABEKO ZANGOEK OSASUN BASKULAR ONA DAGOELA ADIERAZTEN DUTE"

"KASUEN %75, GUTXI GORABEHERA, BATERE INBADITZAILEAK EZ DIREN TEKNIKEKIN TRATA DAITEZKE"

Zure osasun baskularrean espezialistak



Barizeak tratatzeko erabiltzen ditugun teknikak ez dira batere inbaditzaileak:


- Mikroaparra
- Irrati-maiztasuna

Zerbitzaburuak: Roberto Dominguez Folgado eta Marta Fernandez Fernandez, Medikuntzan eta Kirurgian Ikeritzaileak.

Asistentzia-arduradunak: Irune Cachorro San Pedro, Medikuntzan eta Kirurgian Ikeritzaileak.

quironsalud.es



Sar zaituz online zure emaitzetan, eta kudeatu zure hitzorduak 'Quironsalud.es'-eko 'Nire Quironsalud' eremuan edo gure 'app'-ean.

Hospital quirónsalud

Vitoria



ZABALIK

ANAJE NARBAIZA

Dibertsitatea vs globala

Sekula, bertako haziak duten garrantzian erreparatzeke nengoen, baina une honetan bizi dugun egoerak horretan pentsatzera eraman nau. Globalizazioa versus dibertsitatea: egun, gure komertzioetan edozein tokitako elikagaiak aurkitu ditzakegu, eta, gehienetan, bertakoak baino merkeago.

Iruditzen zait gizarteak aurrerapauso bat eman duela, geroz eta kontzientzia handiagoa dagoela eta gertukoa erostea sasoi batean baino gehiago baloratzen dela.

Baina haziak berdindu egin dira mundu guztian, globalak dira; adibidez, golden, fuji edo gala sagarrak mundu guztian hartzen dira; baina non daude hemengo zapore goxoak zituzten hazi haiek? Urdir sagarrak, neguko madariak... babarrunak, artoa... horien haziak bazter ezkutueta baino ez dira geratzen eta inor gutxik ezagutzen ditu.

GURE BARATZEETAN HEMENGO BARIETATEAK JARTZEA BALORATU BEHAR DUGU

FAOk 2016an oharatarazi zuen azken mendean mundu guztian zegoen dibertsitate genetikoaren %75 galdu zela eta ez bazen neurrik hartzen ezingo dela segurtatu munduan bizi garenon

elikadura, ezta nekazaritzarena ere. Larritasuna ikusita, FAOk hazien biltegi lokalak sustatu zituen, eta, horrela, Neiker-Teknialiak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta gizartearen sortutako kezka eraginda, Euskal Herriko Hazien Sareak... hazi-biltegiak dituzte. 100 urtetik honantz bildu direnak jasotzen dituzte, identifikatu, klasifikatu, berri eta gizartearen esku jarri.

Gure baratzeetan hemengo barietateak jartzea eta haziak zaintzea baloratu behar dugu; dendara goazenean, ez dugu itxura baloratu behar, badakigu hemengo tomateek ez dutela itxura polita izango, baina jakin behar dugu gure lurretan eman ziren pataten, tomateen, piperren... balio genetiko oso handia dela, eta etorkizunari begira haziak berreskuratzea, etorkizuneko nekazaritzaren bermerik onena eta elikagaietan dependentsiarik ez izatea independentziarako ezinbesteko urratsa.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Bi urte, lau hilabete eta egun bat

JOSEBA BARANDIARAN
'TTAP'-EN ARGITARATUA

Ikusi beharrekoetan, apuntatu Lander Garroren filma. Neuk ez dut oraindik ikusi. Baina gazte ginela, bahiketa legal planifikatua bazen. Estatuek gizonezkoei zuzendua, manu militari. Askotariko erabakiak hartu zituzten euskal gazteek horren aurrean. Tartean, baita bi urte, lau hilabete eta egun bateko kartzelaldia onartzea zekartenak. Behar besteko aitoren jaso ez duena. Autoinkulpatu ziren alkateak eta intsumitu agertu ziren udalak bistaratu

zituena. Desobedientzia zibil ez bortitza. Legea injustua izan daitekeelako. Inteligentziak borroka daitekeelako. Beldurrak beldur.

Finean, bizitza beldurren kudeaketa gisa irakur daiteke. Beldurra bakardadeari, bazterkeriari, alderaketari, aldaketari, gabezia ekonomikoari, maite den askatasunari, erridikulari, gaixotasunari, minari, heriotzari. Goardiabilari. Norbere beldurren kudeaketa zuzen batek bizitza goxa dezake. Maskarak bezala, kakingarriak izan litezke beldurrak, txarki kudeatuz gero.

Gizartea, bizimodua, borrorak aldatzen doaz. Baina beldurrak ere iraunen du zutik, maskara ezberdinez bada ere. Internet aurreko garaian, *bla-bla-car*-arena egiten zuen behatzak, stopak: behatz lodia errepide ertzean aukeratutako noranzkoan autoei erakutsi eta itxaron. Autoa zutenek ordaintzen zizkiguten bidaia labur eta luze haiek. Neurriszko elkarrizketa truk, onenean. Debekatu balute bezala desagertu da auto-stopak. Beldurrek hila. Beldur berriek bizi gaituzte. Bistan da. Love baino gehiago, "fear is in the air". Edo "fear is in the ear", esan behar, errimazoleok. Osasuna, adorea eta sormena.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarteak
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publikitate
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Neurtu ezin diren ondorioak ekar ditzake 5G teknologia"

ISABEL MORENO INFORMA TU ELKARTEKO KIDEA

Karme Uribesalgo OÑATI

Bihar, irailak 26, 5G teknologiaren aurkako mundu mailako protesta eguna izanik, elkarretaratzea egingo dute Oñatin, 19:30ean. Hamalau elkarte atxiki dira deialdira; tartean daude medikuak, kaltetuak eta ekologistak. Hitzaldiak ere izango dira bihar Santa Ana antzokian, 17:30etan hasita. 5G teknologia zer den azalduko dute, baita osasunean eta ingurumenean zer eragin duen ere. Elektrohipersentsibilitateagatik kaltetuak diren bi hizlari ere izango dira.

Zein da biharko antolatutako ekintzen helburua?

Gure udalei eta Espainiako Gobernuari eskatu nahi diegu teknologia horren ezarpena atzeratzeko, kaltegarria ez dela ziurtatu arte. Frantziako hainbat alkatek egin diote jada eskaera hori Gobernuari. Hendaian, esaterako, bozketa bat egin da 5Gren ezarpena gelditu ala ez erabakitzeko.



Isabel Moreno. I.M.

Zein da egoera Debagoienean?

Udaletatik esan digutenez, eurek dakitela, behintzat, ez dago martxan teknologia hori. Antenen mapa bat eskatu nahi diegu udalei. Oñatin hasi gara, baina Debagoien osoan

egin nahi dugu. Lortu nahi duguna da udal ordezkariak jakitea zer antena dauden eta zer aldaketa egiten ari diren. Gero, ikusi beharko dugu zein den zehazki egiten den emisioa. Izan ere, segur aski,

osasunerako gomendagarria dena baino altuagoa izango da jada.

Zergatik diozue 5G teknologia kaltegarria dela?

5Gk neurtu ezin diren ondorioak izan ditzake. Osasunari dagokionez, hainbat ikerketak diote minbizia eta glukosa igoerak sor ditzakeela, besteak beste. Ugalkortasunik eza ere eragin dezake. Ingurumenaren aldetik, baliabide gehiegi ustiaturiko dira, deforestazioa eragingo du, baita lehorteak ere. Flora eta fauna ere kaltetuak izango dira. Hiperkontsumismoa sorraraziko du 5Gren ezarpenak; telefono mugikor eta etxetresna elektriko gehienak aldatu beharko dira, dena interkonektatuta egon dadin. Horren ondorioz, zabor teknologiko mordoia sortuko da. Kontrola sekulakoa izango da, gure pribatutasunaren inguruko datu ugari jasoko baitira 5Gren bitartez. Langabezian ere eragina izan dezake, gailu automatikoak ezartzea ekarriko baitu. **Ekar dezake 5Gk nolabaiteko onurarik?** Nire ikuspuntutik, ez. Egia da sarearen abiadura handitu egingo dela, baina hori kable bitartez ere lortu daiteke. Eragingo dituen kalteak

kontuan izanda, ez dut uste onura horiek lortzea merezi duenik.

Herritarrek ba al dute gai honen inguruko informaziorik?

Ez gehiegi. Komunikabideetan teknologia horren onurak bakarrik entzun ohi dira, baina ez da kalteen inguruan hitz egiten. Izan ere, enpresa handiei ez zaie interesatzen hori azaleratzea. Arriskuen adierazle argienetako bat da aseguru etxe bakar batek ere ez duela babesik eskaintzen osasunean eragin ditzakeen kalteen aurrean.

Zer asmo daukazue datozen hilabeteetarako?

Herritarrei informazioa eskaintzen jarraituko dugu. Horrez gain, bilerak izaten ari gara alkateekin eta alderdi politikoekin. Horiek ere gaiaren inguruan informatu nahi ditugu, eta eskatu nahi diegu ezarpena atzeratzearan alde egingo duen adierazpen instituzional bat egiteko. Gure helburua da ohartaraztea osasuna lehenetsi behar dela edozein aurrerapen teknologikoren aurrean. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak dio indibiduo orok duela eskubidea bizitzarako, askatasunerako eta segurtasunerako. 5G teknologiarekin urratu egiten da artikulua hori.

ITURRI ONETIK

Badator Kooltur Ostegunen 11. aldia: Rukula

Kooltur Ostegunak ekimenak urriaren 1ean ekingo dio 11. ikasturteri. Eguenetan, 22:00etan, kultur ikuskizuna – jeneralean, musika emanaldia– Arrasateko gaztetxean. Horixe da Kooltur Ostegunak. Martxoaren 5ean izan zen azkena, Deadyard taldearena. 10. denboraldi amaierarako prestatutako traka ezin izan zen gauzatu. Datorren egunean, Rukulak hasiko du 11.a. COVID-19aren garaian, segurtasun neurri eta baldintza bereziekin: aulkietan eserita, edukiera mugatuta.

ALBISTE IZAN ZEN

2005-09-25

'Aupa Etxebeste!' filma, arrakastaz Zinemaldian

Aupa Etxebeste! Asier Altunaren eta Telmo Esnalaren etxebestearren abenturen gaineko lehen filma estreinatu zuten duela 15 urte Zinemaldian, eta Publiko Gaztearen Saria eroan zuen, ikus-entzuleen harrera beroaz gain. Izan ere, esate baterako, filma 1.400 lagunek ikusi zuten Arrasaten lehen asteburuan. Donostian ere, Zinemaldian, jende askok ikusi zuen filma. Inoizko euskarazko filmik ikusiena izan zen.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Zinemaldia hizpide izan da sarean ere

Sare sozialetan bolo-bolo ibili dira Donostia Zinemaldia eta bertan estreinatu diren lanak:

@gorka_bm: "Ez ninduke harrituko #Akelarre pelikularak arrakasta lortuko balu euskal jende alternatibo jatorraren publiko-nitxoan".

@Harrifernandez: "Non dago Mikel?, barruak husten dizkizun dokumentala #Zinemaldia #68SSIFF".

@ulialde: "Zorionak Sara Bilbatua Zinemira ohorezko sariagatik!".

@mikeldominguez: "Aurten #Zinemaldia arraroa izaten ari da zentzu askotan baina garrantzitsuena da filmak ikusten ari garela".



Martitzenean egin zuen prentsa agerraldia Arrasateko Sarek, xehetasunak azaltzeko. JOKIN BEREZIARTUA

Urriaren 3an mendira, presoek eskubideen alde

Arrasateko Sarek prentsa agerraldia egin du asteon, urriaren 3an Euskal Herri osoan egingo den mendi tontorretarako martxara herritarrek gonbidatzeko. Arrasaten, Udaltx eta Kurtzetxiki dira Izan Bidea ekimenaren baitan igoko dituzten bi gailurrak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Udaberrian eman zion hasiera Sarek Izan Bidea ekimenari, Euskal Herriak dituen adina biztanle kilometro egiteko erronka ardatz hartuta; hau da, 3.127.326 kilometro egitea. "Geoztik, ekintza ugari egin dira Euskal Herri osoan, eta Arrasaten ere hainbat antolatu dira: Kurtzetxikin aurkezpena egin

zen bideo baten bidez eta Arrasateri bira ere antolatu zen aurrerago", azaldu dute Eneko Arrese eta Olatz Igartua mendizale arrasatearrek.

Ekimen beraren baitan, Euskal Herriko 650 mendi tontorretara igotzea izango dute helburu urriaren 3an, zapatua.

Arrasateren kasuan, bi mendi goiera antolatu dituzte, Udala-

txera eta Kurtzetxikira. Lehenari dagokionez, Aita Menni ospitalean elkartuko dira, 09:00etan, eta handik Udalara joango dira. Udaltatik 10:30ean abiatuko dira Udaltxera, eta argazkia aterako dute tontorrean. Kurtzetxikira igotzeko, aldiz, Biteri plazatik abiatuko dira, 10:30ean, eta kasu horretan ere argazkia aterako dute tontorrean.

Javier Yanguas psikologoaren hitzaldia izango da eguenean

'COVID-19ak zahartzaroan ekarri dituen erronkak' saioa eskainiko du Kulturateko areto nagusian, 18:00etan

E.A. ARRASATE

La Caixa fundazioko nagusien programako zuzendari zientifikoa da Yanguas, eta COVID-19ak eragin dituen erronken inguruko saioa egingo du urriaren lehen, Kulturateko areto nagusian,

18:00etan, Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta eta Udalaren laguntzarekin.

"Gure kezka da pandemiaren ondorioz arazo handiak daudela adinekoen egoitzetan eta hainbat etxetan. Jendeak min

handia dauka eta gaizki pasatzen ari da, bereziki egoera zaurgarrian daudenak", dio kontseiluko kide Margari Gorrotxategik.

Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna da urriaren 1a. "Pandemiak modu zuzenean eragin die adineko pertsoneri eta haien familiei. Hala ere, hitzaldi irekia izango da, herriari begirakoa, eta edozein dago gonbidatuta".

Hausnarketarako saioa

Yanguasek nabarmendu duenez, COVID-19aren pandemiak erron-

Aldarrikapenei eusten diete

Ekimen horrekin lortu gura duten helburua argi daukate: "Elkarbizitza, konponbidea eta bakea lortzeko preso eta iheslari guzti-guztiak gure artera ekartzeko ezinbestekoa dela adierazi nahi dugu. Salbuespenezko legedia amaitu eta lege arrunta betetzeak lagundu egingo luke. Larri dauden presoak etxean nahi ditugu eta preso guztiak Euskal Herriko espetxean egotea ezinbestekoa da", adierazi dute aste honetako prentsa agerraldian.

Herritarrei, parte hartzeko deia

Parte hartzera animatu gura izan dituzte herritarrek. "ETAk indarkeria utzi zuenetik hamar urte igaro dira, eta COVID-19ak eta konfinamenduak espetxetako egoera okertzea ekarri du, ziurgabetasuna muturrera eramandu du preso zein senideentzat, eta hauek milaka kilometro egin behar dituzte euren senideak ikusiko dituzten jakin gabe. Egoera tamalgarri hau amaitu behar dugu eta horretarako guztiok gara ezinbestekoak".

Josu Arkauz, Valladolidera

Espainiako Espetxe Instituzioen Idazkaritza Nagusiak bost euskal preso gerturatzeko erabakia jakinarazi zuen aurreko asteburuan. Horietako bat Josu Arkauz arrasatearra da, eta Valladolidera gerturatuko lukete. Halere, Ramon Arkauz anaiak azaldu duenez, ez dakite ezer lekualdatzeko erabakiaz. "Guri ez digute, oraingo, ezer jakinarazi, eta berak eta bere abokatuak ere ez dakite ezer.

Komunikabideen bidez jakin dugu lekualdatzearen berri, gainontzeko herritarrek bezala. Asteon egon gara telefonoz berarekin, eta esan digu ez diotela ezer jakinarazten. Prentsan agertu dena bakarrik dakigu", azaldu du.

Lekualdatzeari dagokionez, gauzatzen bada, orain artekoaren antzekoa izango dela azaldu du anaiak. "Valladolid ez da Murtzia, baina modu berean izorratzen gaitu. 29 urte eta erdi kartzelan egin ondoren lekualdatzea putakeria hutsa da berarentzat; are gehiago, pandemia garaian. Izan ere, ez dakigu zuzenean eramango ote duten edo bidean beste kartzelaren batean utziko duten hamabost egunez konfinatuta. Agian, Madrilen edo beste nonbait utziko dute bi astez. Baliteke hilabete osoan guk ez jakitea nola dagoen ere, eta hori da tristeena", gaineratu du.

1991 ezker kartzelan dago arrasatearra. Frantzian atxilotu zuten, eta, han sei urtez preso egon ostean, 1997an Espainiaratu zuten. 30 urteko espetxe-zigorra ezarri zioten.



Josu Arkauz. NAIZ

etorkizunera begirako ondorio batzuk ateratzea", egunerokoari hobeto aurre egiteko.

Bukaeran, omenaldia egingo dute, COVID-19aren ondorioz hil diren guztiak oroitzeko, Ruth Osinaga kantariaren eskutik.

Gonbidapenak, BAZen

Edukiera mugatua izango da. 70 lagunendako lekua egongo da; beraz, gonbidapena eskatu beharko da, Arrasate.eus webgunean, 943 25 20 00 telefonora deituta edo BAZen, bertaratuta.

Maritxu Kajoi jairik ez, 1977tik lehenengo aldiz

Maritxu Kajoi Komisiñuak jakinarazi duenez, aurten ez dute jaia ospatuko, ezta haren bueltako inongo ekintzarik egin ere, egoerak hala bultzatuta; Arrasateko Udalak bat egin du erabakiarekin, eta "arduraz" jokatzeko eta jaia "ez ospatzeko" dei egin du

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Aurten ez da eskapulario, kartel edo egitaraurik egongo, ezta urtero antolatu izan ditugun ekitaldi eta ekintzak ere", azaldu dute komisioko kideek, ohar baten bitartez. Horrekin batera, herritar, eragile zein kuadrillei, egun horretan "arduraz eta erantzukizunez" jokatzeko eskatu diete. "Traje eta soineko dotoreak armairuan uzteko eguna izango da aurtengoa, zoritxarrez. Hori horrela bada ere, osasun eta baldintza sozialak betetzen diren momentuan jaia antolatzeak konpromisoa hartzen dugula ere adierazi gurako genuke", gaineratu dute. "Hurrengo Maritxu Kajoi lagunartean eta batera ospatzea txertorik beharko ez duen miraririk handiena izango da", bukatu dute.

Udalak, kontrol-neurri bereziak

Arrasateko Udalak bat egin du Maritxu Kajoi Komisiñuak hartutako erabakiarekin. Gainera, "kontrol-neurri bereziak" hartuko dituela iragarri du. Esaterako, herriko lau sarrera ezberdinetan paso kontrolak jarriko dituzte: Araba etorbidean, Gipuzkoa etorbidean, Nafarroa etorbidean eta Uribarri etorbidean. "Ostirala denez, ohiko laneguna izango da, inolako jai

girorik gabekoa, eta herriko lau sarrera ezberdinetan paso kontrolak ezarriko dira 18:00etatik aurrera, Ertzaintzaren laguntzarekin. Beraz, Arrasatekoak ez direnei ez etortzeko dei egiten zaie". Horrez gain, autobus zerbitzu gehigarririk ez da egongo.

Halaber, Udalak adierazi du Udaltzaingoaren kale esku-hartzea ere indartu egingo duela egun horretan, Ertzaintzarekin elkarlanean, eta gogorarazi du tabernen itxiera ordutegiak eta kaleko edana kontrolatuko direla. "Arautegiak ezartzen duen

moduan, tabernek ezingo dute zerbitzatu gaueko hamabietatik aurrera eta tabernak guztiz itxita egon beharko du 01:00etan. Kale-zurruta egiteko jarduera dela eta, gogorarazten da debekatuta dagoela horiek egitea, eta arau-hauste honegatik isuna 1.200 eurorainokoa izan daitekeela", azaldu du ohar batean.

Txosnagunerik ere ez

Arrasateko Txosna Batzordeak, berriz, jakinarazi du ez dela txosnagunerik egongo, ezta bestelako ekintzarik ere.



Aurten ez da ekintzarik egongo, ezta photocalik ere. GOIENA

Lore eskaintza eta liburu aurkezpena egingo dute bihar

"Altxamendu militarren ondorioz eta diktaduran erreprezio frankista jasan zuten pertsona guztien" aldeko lore eskaintza egingo dute Jose Maria Arizmendiari plazan, 12:00etan. Ondoren, *Emakumeon memoria 1937: Intxortatik Artxandara* liburua aurkeztuko du Aiert Zubikarai gidoilari eta komikigileak, Kulturaten.

Bakarriketa umoretsua gaur, Euskaraldiaren baitan

Irailaren 27a, domeka, izango da Euskaraldian entitate moduan parte hartzeko izena emateko eguna, eta Arrasaten dagoeneko 115 entitatek baino gehiagok eman dute izena. Bestalde, gaur, egubakoitza, *Txor-Txor* bakarriketa umoretsuz gozatzeko aukera egongo da, 19:00etan, Biteri plazan, Xabier Artiedaren eskutik.

OHARRAK

Gaba Baltza: bilera

Gaba Baltza antolatzen hasteko deialdia egin diete herritarrei. Irailaren 30ean egingo dute lehen bilera. Izena emateko, 635 75 34 65 telefonora deitu.

Gudarien Eguna

Domekan, 12:00etan, Biterin hasita, *Memoria ibilaldia* egingo dute; eta 19:00etan, manifestazioa eta ekitaldia.



NIRE USTEZ

ANE ZUAZUBISKAR

Heldu

"Honi buruz idatzi nahi dut", pentsatu nuen. Eta mugikorrean gorde nuen lagunak bidalitakoa. Txio bat da, pantailari argazkia egin eta beste dozenaka irudirekin batera gordetakoa. Ezagutzen ez dudana izen batek sinatua: "Estimulu faltan nabil. Eta ez dakit zer den behar dudana. Logela goitik behera aldatu, ilea moztu, tatuaje bat egin, piercing bat egin, ilea kolorez aldatu, bidaia bat egin edo bosgarren solairutik jauzi egin". Bestelako heldulekurik izan ezinda, halakoei tiraka gabiltza.

Eta mugikorra gordetzear nintzela, mezua idatzi zidan lagunak. "Hobby bat behar dut. Ea zerbait bururatzen zaizun". Ez nion ilea kolorez aldatzeko esan, eta garaia ere ez zitzaidan aproposia iruditu bidaiatzeko.

Merkeegia iruditu zait heldu hitzaren bi adierekin hitz-jokoa egitea. Halakorik ez dizuet utzi nahi izan. Idatzi dut. Idatzi nahi nuen. Eta kontrakoa pentsatzeko tentazioa izan badudan arren, egonkortasuna da estimulua estimuluaren atzetik behar duen belaunaldiaren desioa. Belarritako bat kendu, eta ilea luzatzen utziko dudala erabaki dut. Egonarri egonkorragoen faltan.

ARRASATEKO HIZKUNTZA ESKOLA "GELA DESPLAZATUAK"

• MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK:

IRAILAREN 1ETIK 28RA ARTE (13:00ak arte)

• MATRIKULA ON LINE EIBARKO HIZKUNTZA

ESKOLAREN WEBGUNEAN: www.eoieibarheo.hezkuntza.net

Informazio presentziala bertan jasotzeko **Irailak 15, 17, 22 eta 24**. Ordutegia: **15:15-20:45**

Informazioa telefonoz jaso nahi baduzu, aipaturiko datetan deitu telefono honetara: **688 89 17 20**



KOKAPEN BERRIA
Mankomunitatearen eraikinean

"Osaba erreferentea izan da niretzat futbolean"

MAITANE LOPEZ MILLAN REALEKO JOKALARIA

Levanteko jokalaria ohiak bere bihotzeko taldearen elastikoa defendatuko du aurtengo denboraldian. Mallorcarra Lopez Rekarte sendiaren itzala luzatzera etorri da Realera

Hasier Larrea ARRASATE

Txikitako ametsa 25 urterekin bete du Maitane Lopez Millan jokalaria mallorcarrak, Realeko lehen taldearekin urtebetez fitxatzearekin batera. Denboraldia hasteko irrikaz, familiaren eta klub txuri-urdiraren arteko haria luzatzeak ilusio handia egiten diola aitortu du erdilariak. **Sorpresaz jaso al zenuen Donostiara joateko deia?**

Egia esan, ez da negatik interesa erakutsi duen lehen aldia izan, baina aurten haize freskoa hartzeko premia neukan, Levanten bost denboraldi jokatu ostean. Izugarritzko poza sentituen Realarekin fitxatzeko aukera eskaini zidatenean, txikitatik bainaiz realzalea.

Zure aitaren aldeko familiak izango du horretan zerikusirik.

Dudarik gabe! Murtzian jaio eta Palma de Mallorcan hazi nintzen, baina oso harreman estua eduki dut beti Arrasateko familiarekin. Anoetan ere egonda nago, osaba Aitorrek jokatzen zueneko partidak ikusten. Bereziki oroitzen naiz nola oparitzen zizkidan lagunekin batera joateko sarreak Son Moix-en jokatzen zuten. Aitorri galdetzen nion ea nola lortu zuen elitean aritzea; niretzat ispilu bat izan da bera. **Egongo da eredutzat hartzen duzun beste jokalaria profesionalik.**

Aukeran, Julie Ertz estatubatuarrekin gelditzen naiz. Munduko Txapelketa irabazi berri du bere selekzioarekin eta Chicago Red Stars klubean jokatzen du. **Berau ere, osaba bezala, defentsa lanetan aritzen da.**

Noski, ni atzealdean aritzen naiz eta! Erdilari atzeratuenaren postuan jardun izan dut azken zortzi urteetan, baina euskarri eta erdiko defentsa ere aritu izan naiz. Trebea naiz baloiak lapurtzen eta jokoari hasiera ematen, eta uste dut Realaren jokora ondo moldatuko naizela: Levantek bezala, baloiaren ja-



Maitane Lopez, Donostiako itsasertzean. M.L.

"ARLO FISIKOAN HOBETU DA, BATEZ ERE, EMAKUMEZKOEN FUTBOLA AZKEN HAMARKADAN"

betzaren aldeko apustua egiten du Realak.

Hasierako zirraren ostean, zer moduz moldatu zara Zubietako lan egiteko modura?

Geroz eta erosoago sentitzen naiz bai jokalariekin eta bai staff teknikoarekin ere. Anoetako aurkezpen egunean, familia osoaren babesean, argi neukan aparteko aukera hau aprobetxatzera nentorrela. Natalia Arroyo entrenatzaileak nire aldeko apustua egiten duenean maila ematea espero dut.

16 urterekin debutatu zenuen, Bigarren Mailan. Gertutik bizi izan dituzu ordutik hona emakumezko futboleko gertatu diren aldaketak.

Bai, hala da. Hobekuntza txiki ugari nabaritu ditugu hamar-kada honetan, baina esanguratsuena arlo fisikoan gertatu dela iruditzen zait. Zelaian inoiz baino gehiago eskatzen digute

jokalariei; beraz, zelaitik kanpo asko zaindu behar dugu gure gorputza. Baldintzak ere hobetu direla ezin uka, baina oraindik urrun ikusten dugu helburu nagusia: futbolari profesional bezala bizi izatea, alegia.

Izan ere, beste egiteko batzuetan ere aritzen zarete, ezta?

Bai; nik Pedagogia Terapeutiko gradua amaitu berri dut, eta orain, keinu hizkuntzako A1 titulua ateratzen ari naiz. Behar handien duen jendeari laguntzeko bokazioa daukat, baina oposizioak egitea ez da nire planen barruan sartzen oraindik, plaza lortzen badut ezingo nukeelako futbolekin uztartu. Hala ere, ondo datorkigu kirol ibilbideaz aparte formakuntza bat garatzea, denok dakigu-eta kirol ibilbideak motzak izaten direla. Nik ikasten jarraituko dut. Talde barruan badago lana eta futbola uztartzen duenik ere. **Noiz hasiko da Iberdrola Liga?**

Lehen Mailako partidak urriko lehen asteburuan hasiko dira, baina guk bigarren asteburuan jokatuko dugu, Rayoren aurka. Nahiz eta aurretik denboraldi arraroa eduki, urrun iristeko helburuak markatu ditugu.

Itzuli dira kirol ikastaroak Uarkapera eta Musakolara

Ate irekien "balorazio positiboa" egin ostean, sasoiaren egoteko eskaintza zabala abiatu dute kiroldegietan

H.L. ARRASATE

Udako kaloria pilaketak murrizteko 34 tailer antolatu dituzte kiroldegietako langileek ikasturte berri honetara begira. Lau egunez eduki dituzte publikoari zabalik Uarkapeko eta Musakolako eraikinetako ateak, eta, oraingoz, 91 herritarri piztu zaie ikastaroetan parte hartzeko irrika. Gauzak horrela, irailaren 16an jarri ziren martxan saioak.

Joan den sasoiako tailer arrakastatsuenak bere horretan mantenduko dira oraingoz ere. Hala, k-stretch, spinning eta zunba ikastaroak izan dira izen emate gehien jaso dituztenak.

Gainera, Musakolan ere jarriko dituzte k-stretcha praktikatzeko hamakak, bederatzi guztira, eskaintza zabalagoa emateko asmoz. Postura hobetzeko luzaketetan oinarritzen dira ariketa horiek.

Nobedadeek ere izango dute tokirik programazioan, spinning pump eta boxing strong jardueren presentziarekin. Batean spinning eta body pump ariketak konbinatzen dira, arlo kardio-baskularra eta tonifikazio mugimenduak uztartuz. Bestean, berriz, kickboxing mugimenduak, burpe-ak, jauziak, squats-ak eta lunge-ak praktikatzen dira, besoak, hankak, abdominalak eta gluteoak lantzeko asmoz.

Oraindik eman daiteke izena

Pandemia dela-eta aretoen gehieneko edukiera jaitxi behar izan duten arren, zenbait ikastarotako azken plazak hutsik daude. Interesdunek bi modutan eman dezakete izena: Musakolako harrierara hurbilduz edota *Kirolaonline.arrasate.eus* webgunearen bitartez, ikastaroen eta jardueren atalean sakatu.

Elkargune espirituala sortzeko bazkide bila dabilta herrian

H.L. ARRASATE

Komunitate sare baten oinarriak jartzen ari dira egunotan zenbait herritar. Helburua mundu espirituala deskubritu eta praktikatzeko ate bat zabaltzea da, jendeak ikusteko jarrera eta bizimodu hori zertan datzan. Ideia hauek gauzatzeko lokal bila ari dira antolatzaileak, eta izena ematen duten bazkideen

arabera aukeratuko dute txoko zabal bat edo gehiago. Momentuz, 20 pertsonak erakutsi dute interesa.

"Hasiberri eta adituentzat, denentzat" tokia egitea da asmoa. Askotariko terapiak burutu nahi dira bertan: yoga, biodantza, aromaterapia, hinduismo zein budismoko praktikak... Elkarteak ez du irabazi asmorik edukiko; ekintzek prezio mugatua izango dute, beraz. Gehiago jakin nahi duenak telefono honetara dei egiteko: 617 24 29 95.



Atariak

Tabernak

Bulegoak

Kristalak

Etxebizitzak

Fatxadak

Elkarte gastronomikoak

Teilatu-hodiak

686 57 67 83 Adolfo • 619 17 32 86 Maria Elena

Kulturete, gaur egungo artearen erakusleho

Ostiral honetan hasi eta hilabete osoan zehar bisitatu ahalko da "Ez bultza egin!" izeneko ekimena Kultureteko klaustroan. Arte erakusketa, rap feminista tailerra, zuzeneko irratsaioa eta testu kritikoa dira proiektu horren osagaiak

Hasier Larrea ARRASATE

Euskal Herriko tendentzia artistiko berritzaileei atea irekiko dizkie gaurtik urriaren 24ra bitartean Kultureteko klaustroak. Bertan, Zuhar Iruretagoiena eta Javier Rodriguez *Chavesito* artisten instalazioak erakutsiko dituzte. Eskultura grekoaren mugimenduak aintzat hartzen dituen argazki galeria proposatuko du batak, eta hirian ikusitako elementuak irudikatzen dituen eskulturak besteak.

19:00etan inauguratuko dute arte galeria, baina ez dirudi seriotasun kutsuko aurkezpenik izango duenik, gertuko panorama musikal eta artistikoa astintzen ari diren bost sortzailearen ardura izango da eta erakusketari hitzak jartzea, nola eta *radio show* formatuan.

Artista horietako hiru Xolomo Gangsta kolektiboko kideak dira. Badute irratigintzan eta euskal memegintzan esperientziarik; rap irratsaio bat gidatzen dute Donostiako Ttan Ttakun irratian, eta meme lotsagabeei esker jarraitzaile pila lortu dituzte Instagram plataforman. Saioa boroiltzeko, oroimenean aditua den Mawatres artista madrilda-

rra eta Telmo Trenor disko jarraile eta produktore donostiarra izango dituzte alboan. Azken honek *Sateliteak* izeneko programa zuzentzen du Naiz irratian, gainera. Inauguraziora gerturazterik ez duenak *Eremuak* programaren Youtubeko kanalean jarraitu ahalko du saioa zuzenean, eta egubakoitzero entzun-gai izango du erakusketan bertan *podcast* eran.

Eremuak, artea gizarteratzeko

Euskal Herriko artea herritarrei gerturatzeko helburua du Eusko Jaurlaritzaren baitan egituratzen den *Eremuak* plataformak. Zerbait programa kudeatzen ditu beronek; tartean, arte garaikidean kokatzen den *Harriak* ekimena. "Sentipenak zein go-goetak piztu eta testuinguru indartsua sortu nahi badugu, beharrezkoa da artistaren eta publikoaren arteko sinergiak sortzea, eta Kulturete elkargune bat da zentzu horretan", adierazi du *Harriak* dinamikaren koordinatzaile Leire Muñozek.

Eremuak webgunean ere egingo zaio tokia Kultureteko erakuslehoari, interpretazio libreko testu kritikoa argitaratuko

baititu bertan Marixe Ruiz de Austri arrasatearrak.

Emakumeentzako rap tailerra

Inaugurazioaren aurretik, baina, 16:00etatik 19:00etara, rap tailerra gidatuko du La Furia musikariak. Rapa ahalduntze feministara gerturatzeko tresna gisa aurkeztea da abeslariaren asmoa.

Hiru pieza garaikidez osatutako dantza ikuskizuna zapatuan

Oreretako Dantzaz konpainiak "#56" izeneko emanaldia eskainiko du Amaia antzokian, 19:30ean hasita

H.L. ARRASATE

Arrasateko Udalarekin eta zenbait eskolarekin elkarlanean aritutako konpainia horrek makina bat ekoizpen landu du da-goeneko, 56 guztira, eta zerbait horrekin izendatu du larunbat honetan aurkeztuko duen obra.

Izan ere, Adriana Pousen zuzendaritzapean, Sade Mamedova, Vita Osojnik eta Martin Harriague koreografoen lanak interpretatuko dituzte dantzariak, Dantzaz konpainiak mundu mailan hitzartuta dituen akordioei esker.

Egungo gizarteko gaiak ardatz hartzen dituzte *Thirty*, *Hombre Masa* eta *Walls* izeneko piezok: "Lehen piezak errefuxiatuen aferrari egiten dio keinu; bigarrenak, indibiduen eta taldeen arteko harremanari; eta hirugarrenak, munduko harresiek ezartzen dituzten oztopoei", azaldu du Fernando Sainz de Ugarte konpainiako zuzendari nagusiak.

Garaikide hitzak "beldur apur bat" ematen duen arren, aurreiritziak uxatu eta espektakuluaz gozatzeko gonbidapena egin du Sainz de Ugartek.



Artistak, antolatzaileak eta Kultura Saileko arduradunak, klaustroan. HASIER LARREA

Aurrez aurrekoa edo online

speaking globally.

ENGLISH FOR ADULTS

MORE THAN JUST BUSINESS ENGLISH

Presta zaitetz etorkizunerako. Aurrez aurrekoa edo online.

Garaia Parke Teknologian dago Speaking Globally, eta hurrengoa eskaintzen du:

- Talde txikiak - 5 pertsona, gehienez
- Zure behar pertsonalen arabera coach bat
- Real English zure coach pertsonalarekin
- Helduentzako taldeak, ingurune profesionalen

- Irakasle profesionalak. Guztiek dute 10 urte baino gehiago esperientzia eskolak ematen: batzuk jatorrizko hiztunak eta beste batzuek 10 urte baino gehiago eman dute ingelesa hitz egiten den herrialdeetan bizitzen
- Eskola arin eta motibagarriak
- Maila guztietako taldeak
- Testatutako metodologia propioa

Negozioetarako eta lanerako ingelesa

Ingelesa. nahi dudalako.

Ingeles akademiko eta teknikoak

Garaia Parke Teknologikoa
Goiru,1- A eraikuntza - 3. solairua
20500 Arrasate

Matrikula zabalik
Informa zaitetz!

info@speakingglobally.com
943 253 611



Herritar bat, Osteta kaleko auzo-konpost gunean. IGOÑE OSINAGA

Gaikako bilketak gora egin du azken urtean

Aldundiak 'Hondakinen Ikuskaritzako 2019. urteko txostena' argitaratu du; datuen arabera, Aramaion, iaz, orain dela bi urte baino hondakin gehiago sortu zen. Hala ere, errefusera botatzen dena gutxiago izan zen; Arabako datua baino hobe da, gainera

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Arabako Foru Aldundiak hondakinen inguruko datuak argitaratu berri ditu; eta Udala pozik dago, hondakinen bilketa datuak hobetu egin direlako. "Datu orokorrak kontuan hartuta, azken urteotan hondakin gehiago sortu ditugu Aramaion, baina badirudi gaikako bilketa selektiboak gora egin duela",

azaldu dute udal ordezkariak, argitaratu berri diren datuak direla eta.

342 kilo biztanleko

Gora egin dutenak hondakinen sorreraren datuak dira; hau da, 2019an 2018an baino hondakin gehiago sortu zituzten aramaioarrek. Hain zuzen, 2018an 299 kilo sortu zituen aramaioar bakoitzak

urte guztian; eta 2019an, aldiz, 342 kilo hondakin sortu zituen biztanle bakoitzak urtean.

Araba mailan, herritar bakoitzak 409 kilo hondakin sortu zituen 2019an -2018an baino %3 gutxiago-. Hortaz, Araba mailan jaitsi egin da sortzen den hondakin kopurua, eta Aramaion, aldiz, urtebetean gora egin du kopuru horrek.

Aurtengo ikasturtean ezingo da frontoia modu librean erabili

Ikasturteko erreserba egiteko aukera eskaintzen du Udalak; gaur da horretarako azkeneko eguna

A.E. ARAMAIO

Osasun egoerak baldintzatutako ikasturtea izango da aurtengoa. Leku publikoak ahalik eta egoera onenean eta erosoenean erabiltzea da udal ordezkarien nahia. Horretarako, hainbat neurri

hartu behar izan dituzte. Hala, horietako bat da kiroldegia erabiltzeko ezarritako arauak.

Orain arte egin izan denaren kontra, aurrerantzean ezingo da pilotalekua modu librean erabili. Hala ere, pilotalekuak

duen erabilera kontuan hartuta Udalak hura erabiltzeko bi modu eskaini ditu.

Batetik, ikasturte osorako erreserba egiteko aukera dago udaletxean bertan. Horretarako, baina, azkeneko eguna gaur izango da: irailaren 25a, egubakoitza. Edonork egin dezake ikasturte osorako erreserba. Ez dago zertan taldea edo federatua izan aukera hori hartzeko: pilotan edo palan jokatu nahi duen edonork har dezake lekua. Baldintza bakarra da ikasturte

osorako ordua hartu behar dela pilotalekuan.

Bestetik, aurrez ordua eskatzeko aukera egongo da. Horretarako, kirol arduradunekin harremanetan jarri eta eskaera egin beharko da: lekua egonez gero, pilotalekua erabiltzeko aukera egongo da. Libre geratzen diren orduak ondorengoak dira: astelehenean 17:00etatik 18:00etara eta egubakoitzetan 17:00etatik 21:00etara. Hain zuzen, horiek izango dira ikasturte honetan kiroldegia erabiltzeko arauak.

Ura zentzuz erabiltzeko dei egin du Aramaioko Udalak

Ur deposituetan ur gutxi dagoela eta, Aramaioko Udalak eskatu du ur kontsumo neurtuak egitea; hau da, ura zentzuz erabiltzea: "Ur kontsumo zentzudunak egitea eskatzen dugu, eta etxeko kontsumorako bakarrik erabiltzeko ura; osterantzean, egoera okertzen bada, bestelako neurriak hartu beharko ditugu".

Osteta kaleko gunea hobetu dute

Osteta kalean dauden auzo-konpost guneetan hainbat hobekuntza egin ditu Udalak azkenaldian. Konpostagailuen tapak aldatu dituzte eta egituratzailea pilotzeko modulu berri eta handiagoa instalatu dute. Hobekuntza horiekin gunea horren funtzionamendu egokia mantentzea espero dute udal ordezkariak. Hobekuntza horiekin eta Aita Gabireleko gunearekin batera, hondakinen kudeaketa "sistema jasangarri baten aldeko apustua sendotu" egin du modu horretan Udalak.

Osteta kaleko auzo-konpost gunea 2015. urtean jarri zuten martxan. Gunea egokitu eta konpostagailuak jartzeaz gain, ekimena herritarren artean zabaltzeko komunikazio kanpaina abiatu zuen Udalak. Orduan, 40 familia inguruk eman zuten izena konpostagailuak erabiltzeko; bada, ordutik, etxeko hondar organikoak han konpostatzen dute familia horiek. Udalak emandako datuen arabera, gunea horretan, urtean 5,1 tona biohondakin kudeatzen dituzte parte hartzen duten herritarrek, Udalak egiten dituen mantentze eta jarraipen lanen laguntzarekin. Modu horretan, organiko horiek errefusera botatzea saihesten da: "Ingurumenaren eta ikuspegi sozial batetik aukera askoz ere jasangarriagoa da auzo-konposta. Hau da, azken finean, ekonomia zirkularraren oinarria", diote udal arduradunek.

Errefusera botatzen dena

Hondakin mota bakoitzeko bilketa selektiboari buruzko datuak nabarmen egin dute hobera Aramaion. Gainera, nabarmendu behar da Aramaioko datuak Arabakoak baino hobeak direla. Arabako datuei begira jarriz, sortzen duten hondakinen %66 errefuseko edukiontzira botatzen dute; Aramaion, aldiz, datu hori %52koa izan zen 2019an; eta 2018ko datua %64 izan zen.

Arabako Aldundiak azaldu du sortzen den hondakina errefusera ez botatzea dela duten erroka handiena.

Etxeko konposta

Auzo-konposta edo etxeko konposta egiteak eragin zuzena du datuetan. 2019ko datuen arabera, 72.000 kilo biohondakin kudeatu ziren aipatutako konpost guneetan.

Konpost guneetan kudeatzen diren biohondakinen datuak ez dira zehatzak -ez da etxeko konposta neurtzen-; baina errefuseraren edukiontzia pisatu egiten dira, eta hor ikus daiteke datuak behera egin dutela. Errefuseko edukiontzian jasotzen diren hondakinei erreparatuta, 2019. urtean %6,5 murriztu zen errefus kopurua 2018. urteko datuekin alderatuz.

Hori horrela, Aramaioko udal ordezkariak eskerrak eman nahi dizkiete lan hori egiten duten herritar guztiei, eta horrela jarraitzeko animoak eman.

ERREFUSEKO EDUKIONTZIRA BOTATZEN DENA %6,5 GUTXITU ZEN 2019. URTEAN



Martitzen arratsaldean ibili ziren antolatzaileak bidea markatzen. PERU ABARRATEGI

Martxa segurua izatea da antolatzaileen nahia

Bihar, zapatua, egingo dute Aitor Aranaren omenezko mendi martxa. 24. aldia izango da aurtengoa, eta, osasun egoerak baldintzatuta, protokolo zehatza jarraituko beharko dute parte hartzaileek. 20,6 kilometroko ibilaldia prestatu dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Aurtengoa berezia izango da. Protokolo zorrotza bete beharko dute bihar egingo duten mendi ibilaldian. Besteak beste, jende kopurua mugatu egin dute: 80 lagunendako lekua egongo da. "Izen-ematea ireki eta hiru egunean bete genuen 80ko kopuru hori", azaldu du Orixol mendizale elkarteke Peru Abarrategik.

Izan ere, bizi dugun osasun egoerak baldintzatutako mendi ibilaldia izango da: "Udalarekin elkarlanean adostu ditugu protokoloa eta baldintzak".

Aurrera egitea erabaki

Egoera berezi honetan, hainbat ekitaldi bertan behera geratu dira. "Hainbat mendi martxa bertan behera geratu zirela ikusi genuen. Gure kasuan, nahiz eta iaizko martxa jendetsua izan, ez gara beste martxa batzuk ibiltzen diren kopuruetan ibiltzen", dio Abarrategik. Hori kontuan hartuta, eta herrian antolatzen diren ekintzak mu-

gatuta daudela kontuan hartuta, elkarlanean adostu dute jarraitu beharreko protokoloa.

Irteera mailakatua

Izena eman duten mendizale gehienak herrikoak dira –beste batzuk, ondoko herrietakoak–. "Jende ezaguna da gehiena; horregatik, badakigu euren egunerokotasunean ze zirkulu edo burbuiletan mugitzen diren, Gure ahalegina izan da talde egonkor horiek errespetatzea", gaineratu du.

07:30erako kiroldegian egoteko agindua jaso dute mendizaleek. Taldeetan banatuko dituzte eta bi minutuko aldearekin irtengo dira: "Gure kezka zen 80 horiek ez batzea leku eta ordu berean".

ZENBAIT BERRITASUN IZANGO DITU IBILALDIAK: CUATROVIENTOS ALDETIK IGOKO DIRA

Helburu nagusia jende pilaketak saihestea izango da. Hori horrela, anoa-postuetan ere, jende asko pilatzen dela ikusiz gero denbora tartea izango dute. Gainera, anoa-postuetan maskara janztea derrigorra izango da eta hidroalkohola erabili beharko da. Bi anoa-postu egongo dira ibilaldian, eta azkena kiroldegian.

Ibilbidean berritasunak

Aitor Aranaren omenezko 24. mendi ibilaldia zenbait bide berri erakutsiko ditu aurren: "Cuatrovientos baserri ingurutik sartuko gara aurren, hori berritasuna izango da".

20,6 kilometroko ibilbidea izango du martxak: Cuatrovientos aldetik Lurgorrira hartuko dute, eta handik Tellamendi, Zabalaundi eta Lezia pasako dute Orixolera iritsi aurretik; Arrikoititik jaitsiko dira Ibarrra.

Bost bat ordu inguruan egiteko martxa izango da.

Egutegia osatzeko argazki onenen bila dihardute

Aramaioko Udalak argazki lehiaketa jarri du martxan; lanak aurkezteko epea urriaren 31ra artekoa da

A.E. ARAMAIO

2021ko egutegia diseinatzeko erabiliko dituzten argazkiak aukeratzeko argazki lehiaketa jarri du martxan Udalak aurren ere. Aramaion egindako argazkiak izan beharko dira, eta beste inon argitaratu edo saritu gabeak.

Gehienez, hiru argazki

Parte hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu. Argazki bakoitzari jarri behar zaizkio izenburua, tokiaren izena eta data.

Argazkiak JPG formatu digitalean aurkeztu beharko dira, eta neurritz mega bat baino handiagoak izan beharko dira. Argazkietan pertsonaren baten lehen planoak agertzen baldin badira, pertsona horren baimena aurkeztu beharko da –umeen kasuan, gurasoen baimena–.



2019ko irabazlea. ARAMAIOKO UDALA

200 euroko saria

Irabazleak 200 euro irabaziko ditu; gainera, urtaro bakoitzeko beste sari bat emango da, 100 eurokoa. Beste zazpi argazki ere aukeratu dira egutegia osatzeko. Lanak aurkezteko azkeneko eguna urriaren 31 da.

Joao Gilberto omenduz

Geraldine hirukoteak bossa nova doinuak ekarriko ditu gaur, parkera, 19:30ean. *Udaramaio* ekimenaren barruan eskainiko den azken emanaldia izango da. Geraldine abeslariak interpretazio eta jazz ikasketak egin ditu Nafarroako kontserbatorioan. Gaur egun, Geraldine hirukotearekin dihardu: *Hó Bá Lá Lá* diskoan Joao Gilberto maisua omendu dute.



GERALDINE

Arabako kuadrilla arteko hirugarren saioa, bihar

Aramaioko Kondeko Basoko Iluek taldeak parte hartuko du hirugarren finalaurreko horretan: aurrez aurre izango dute Gasteizko Errexala taldea. Amurrioko katekesi aretoan izango da bertso saioa, 19:30ean –19:00etan zabalduko dituzte ateak–. Murgian jokatu den finalerako txartela egongo da jokoan.

Dantza eta trikiti ikastaroetarako izen-ematea gaur itxiko da

Lagun Artean dantza taldeak urriaren hasiko ditu ikastaroak; izen-emate sasoia zabalik izan dute eta gaur izango da taldean izena emateko azken eguna. Pandero eta trikiti eskolak hartu nahi dituztenek ere izen-emate epea zabalik dute. Gainera, gaur, probatzeko aukera dago, *trikikalejira@gmail.com* helbidean txanda hartuta.

Kultura ekitaldi askorekin dator udazkena Arkupera

Musikak eta antzerkiak protagonismo handia izango dute; Kepa Errasti aretxabaletarrak, esaterako, 'Fadoak entzuten zituen gizona' aurkeztuko du. Kanean ere egingo dira ekitaldi batzuk; adibidez, herriko artisauen topaketa urriaren 4an

Mirari Altube ARETXABALETA

Urteko azken hiruhilekoa kultura ekintzaz bete gura izan du Udalak, eta egitarauaren berri eman dute Kultura Saileko arduradunek. "Ekintza batzuk kanean izango dira eta beste batzuk barruan, negu sasoi datorrela jakinik. Askotariko eskaintza egongo da: antzerkia, musika... eta adin guztiei begira pentsatutakoak", adierazi du Ainhoa Cabero zinegotziak.

Segurtasuna zainduta

Kanean zein barruan izan ekitaldiok, "segurtasun neurri guztiak" zainduko dituztela adierazi dute. Maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango da; ikusleen arteko distantzia zainduko dute eta eskuak garbitu beharko dira gel hidroalkoholikoarekin. Zaraia aretoaren edukiera, gainera, 60 ikusletara murriztu da. Ildo horretatik, zera jakinarazi du Inma Miguel teknikariak: "Edukiera antolatzeo helburuarekin, ikus-



Inma Miguel teknikaria eta Ainhoa Cabero zinegotzia. MIRARI ALTUBE

leak batuko ditugu familiak eta lagun-taldeak. Horretarako, sarrera erosterakoan izen-abizenak eskatuko dira". Ikuskizunetarako sarrerak, ohi legez, hilabete hasieran jarriko dituzte salgai Arkupen bertan.

Antzezlanak eta musika

Urriaren 4an emango diote hasiera egitarauari, umeendako antolatutako antzerki batekin; Trotamundos taldearen antzezlanak izango dira Arkupen. Umeek beste hainbat ikuskizun izango

dituzte: Traka Matraka taldearen kontzertu didaktikoa eta Zurrunka taldearen eskutik itzalen eta txotxongiloen emanaldia, besteak beste.

Helduek, ostera, Tdiferencia taldearen eta Xake Produzkoak-en lanak izango dituzte. "Azken hori estreinatu berri da eta Kepa Errastik dihardu horretan; hortaz, herritarrek harrera beroa egingo diotela uste dugu", dio Miguelek; hain zuzen, horregatik, bi emanaldi izango dira.

Musikak ere leku handia izango du urrian. Estitxu Pinatxo eta Mikel Santxez musikariak *Dama beltzak* proiektuaren bultzatzaile izango dira Herriko Plazan; eta Unai Indo *Xatiro* bilbotarrak, berriz, rap doinuak eroango ditu Arkupera.

Artisauen topaketa, Duranan

Udazkeneko berrikuntzen artean herriko artisauen topaketa dago. Urriaren 4an izango da, eta Durana kalea girotuko dute hamai-k artisauak. "Asmoa da ekimenak jarraipena izatea aurrerantzean", adierazi du Miguelek.

Zinemarik ez, oraingo

Urriaren ez da filmik emango. Dena den, Udalaren asmoa bada zinema itzultzea Arkupera: "Zerbitzua eskaintzeko kontratua bukatu egin da, eta proiektorea alokatzeko aukerak aztertzen gabiltza. Ea azaro erditik aurrera pelikula ematen ditugun", azaldu du Caberok.

Urriko egitaraua

Urriak 4

- **11:00-15:00** Artisauen topaketa. Durana kalea.
- **17:00** Compañía Trotamundos: *Historias de un baúl*. Arkupe.

Urriak 7

- **18:00** Traka Matraka: Kontzertua. Herriko Plaza.

Urriak 9

- **22:00** Tdiferencia: *Con fajas y a lo loco*. Arkupe.

Urriak 12

- **16:30 eta 18:00** Zurrunka: *Aioko*. Arkupe.

Urriak 16

- **22:00** Xake Produzkoak: *Fadoak entzuten zituen gizona*. Arkupe.

Urriak 17

- **19:00** Xake Produzkoak: *Fadoak entzuten zituen gizona*. Arkupe.

Urriak 21

- **19:00** Dama Beltzak: Kontzertua. Herriko Plaza.

Urriak 23

- **22:00** *Xatiro*: Rap kontzertua. Arkupe.

Ibarra kiroldegiko tasa osorik kobratzen hasiko dira urritik

Azken hilabeteetan kiroldegiaren instalazioak erabili dituztenek bakarrik ordaindu dute tasa murriztua

M.A. ARETXABALETA

Urriarekin batera Ibarra kiroldegiko tasa osoak hasiko direla kobratzen jakinarazi du Udalak. Pandemiaren hasieran itxita izan zen kiroldegia hainbat astez, eta tasak bertan behera uztea erabaki zuten orduan. Ondoren, alarma egoera amaitu eta txanda-sistemarekin jarduerari berrekin ziotenean, tasa murriztua aplikatzea erabaki zuten instalazioak erabili dituztenei. Uztailetik iraila arte iraun du horrek, eta, Udalak aditzera eman duenez, neurriak tasen

diru-sarrerak 315.000 euro murriztu ditu, 2019ko epe berarekin alderatuta.

Irailean hainbat baja

Aretxabaletan erroldatutako 18 urtetik gorakoek 26,98 euroko kuota ordainduko dute hilean -32,55 euro beste herri batzuetakoek-. 14-17 urte bitarteko gazteei eta 18-23 urte bitarteko ikasleei, ostera, 22,47 euro kobratuko diete -24,72 euro gainerakoei-. 65 urtetik gorakoek 17,98 euro ordainduko dituzte instalazioak 07:00etatik 16:00etara

erabiltzen badituzte -19,10 euro Aretxabaletan erroldatuta ez dauden bazkideentzat-.

Une honetan 2.962 abonatu ditu Ibarrak. Irailean erregistratu dela aurtengo baje kopururik altuena jakinarazi dute, guztira 166 bazkide, 79 altaren aldean. Urte hasieran 57 baja eta 82 alta izan ziren, eta urtea hasi denetik hona, 399 baja eta 258 alta. Kirol jarduerari dagokionez, orain arte, 513 lagunek eman dute izena 21 ekintzatan.

Txanda sistema

Irailean 14tik ordutegi luzeagoa du kiroldegiak: asteleheneetik ostiralera 07:00etatik 21:30era; zapatuetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; domeketan 09:00etatik 14:00etara. Instalazioak erabiltzeko txanda sistemarekin jarraitzen dute.



NIRE USTEZ

AINHIZE BARRAINKUA

Bertsio bat

Iraila arraroa zait aurtengoa, eta ez pandemia baten erdian gaudelako soilik. 5 urtetan lehen aldian da herritik hirirako joan-etorrien zirkuluan sartzen ez naizela. Etapa garrantzitsua bati itxi dizkiot ateak. Modu nahiko xelebrea, gainera. Astegun buruzuri batean, etxeko egongelatik amaitu behar izan dugu unibertsitateko gradua askok. Kameraren aurrean dotore, gerritik behera pijamarekin makinatxo bat, seguru asko. Inork imajina zezakeen amaieratik urrutia.

Eta beste horrenbeste sartu dira lehen aldiz zirkuluan. Zabaldutako dizkiete ateak lagun bihurtuko diren ezezagunei, ohitura berriei, barreei, negarrei, euforia egunei, egun monotonoei, ostegun luzei, garai gogorrei, Gabonak lapurtzen dizutenaren sentimenduari... Arima eta bizipen berrien beroak astinduko ditu, eta ezinbestean eraldatu, korronteek itsasoa nola. Aurretik daukate garai bakar eta berezi bat, Katixa Agirrek bere eleberrian narratzaileari jartzen dizkion hitzetan: "Bizitzaren bertsio intentso eta hala ere amable bat".



Komentu zaharreko lorategia eta eraikina. IMANOL BELOKI

Gaztelekuko kideek komentuan dute lekua

Nerabeendako zerbitzuak urriaren 2an ekingo dio ikasturteari eta ludotekak 5ean; aurretik, ate irekiak egingo dituzte azken horretan. Espazio berriak gertatu dituzte, segurtasun neurriak betetzeko, eta edukiera eta txanda sistema ezarri dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Urriaren ekingo diote ikasturteari ludotekako umeez zein gaztelekuko nerabeek. Udaletik jakinarazi dute pandemiak sortutako egoerara egokituko dituztela zerbitzuak, "segurua, kontrolatua eta erabiltzaileen gozamenerako egokia" eskaintzeko.

Ludotekak, bi egoitza

Algara ludotekaren zerbitzua 4 eta 12 urte arteko neska-mutikoei bideratuta dago eta Gernika plazako egungo egoitzan eta Zainduz gimnasioa izandako lokalean egongo da kokatuta. Astelehenetik egubakoitzera bitartean ordu eta laurdeneko txandak antolatuko dituzte, 16:45etik 18:00etara eta 18:15etik 19:30era, eta bakoitzean, gehienez, 13 eta 14 erabiltzaile artean egongo dira.

Urriaren 5ean jarriko dute martxan ikasturtea eta datorren astean, astelehenetik eguenera bitartean, ate irekien jardunaldiak egingo dituzte, 16:45etik

17:45era eta 18:00etatik 19:00etara bitartean.

Txanda berean mantenduko dituzte ikastetxeetan antolatutako burbuila taldeak. Eta eguraldiak laguntzen badu aire zabaleko jarduerak lehenetsiko dituztela iragarri dute; barrukoak, ostera, hezitzaileak gidatuko ditune oro. Hartuko dituzten neurrien artean honako hauek daude: erabilitako materiala kendu egingo da eta ezingo dute erabili desinfektatu arte; temperatura neurtuko diete egunero eta nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea -6 urtetik beherakoentzat izan ezik-; eta eskuak garbitu beharko dituzte.

Matrikularen prezioa 90 eurokoa da ikasturte osorako, eta bi

**LUDOTEKAK BI
EGOITZA IZANGO DITU:
GERNIKA PLAZAKO
ETA ILARGI PLAZAKO
ZAINDUZ LOKALA**

epetan ordaintzeko aukera eskaini dute -urriaren eta urtarriaren-. Izena emateko bi bide daude: 943 79 05 81/ 634 45 28 37 edo algara.ludoteka@gmail.com.

Gaztelekuan, kuadrillak

Gaztelekuaren ikasturtea urriaren 2an hasiko da, eta komentura lekualdatuko dute, segurtasun neurriak betetzeko. 12 eta 16 urte bitarteko nerabeentzako zerbitzua bi gelatan banatuta egongo da, eta sarrera independenteak izango dituzte.

Gelek, gehienez, 12-13 kideko edukiera izango dute eta kuadrillak antolatuko dira; ordu eta erdiko txandak erreserbatzeko sistema batekin funtzionatuko dute. Egubakoitzetik domekara zabalduko dituzte ateak: 16:30-21:00.

Izena emateko hiru bide daude: Udaltzaren webgunea, QR kodea eta ikastetxeetan banatu duten zirkularra. Urriko ostiraletan jarduera zehatzak programatu dituzte lehen aldiz joango direnentzat -DBHko 1. mailakoak-.

Herriko bost menditara igotzeko deia, presoen egoera salatzeko

Elorretako Aitza, Aranguren, Arlutz, Erlaitz eta Muru tontorretara igotzera gonbidatu dituzte urriaren 3an

M.A. ARETXABALETA

Sare Herritarrak maiatz inguruan abian jarri zuen Izan Bidea ekimenak beste erronka bat du jomugan urriaren 3rako: Euskal Herriko 650 mendi tontorretara igotzea -Gipuzkoan 113 dira eta Debagoienean, 29- eta horietatik euskal presoen aldeko aldarrikapenak lau haizetara zabaltzea.

Aretxabalean bost tontor hautatu dituzte; lau Kurtzebarri mendiaren bueltan daudenak -Elorretako Aitza, Aranguren, Arlutz eta Erlaitz- eta bosgarrena, Muru. Sare Herritarreko kideak hainbat aretxabaletarren antolatu dituzte igoera horiek: "Presentzia bermatuta egongo da tontor guztietan, pilaketak ekidinda eta segurtasuna zainduta. Kurtzebarri bueltako horietara igotzeko herritarrekin egon gara, kuadrillak osatzeko ardura har dezaten", adierazi du Txarli Garciak: "Murura, ostera, familia giroan joan daitekeela uste dugu; samur igo daiteke eta tontor zabala da". Igotzera animatzen direnek ez dute aurretik izenik eman beharrik; 11:30ean tontorrean agertuz gero nahikoa da, eta han argazkiak aterako dituzte.

Egoeraren berri ematen

"Presoen eskubideek urratuak jarraitzen dute. Eta pandemia sasoi honetan okerrera egin dute: isolamenduan, aurrez aurreko bisitarik gabe...", dio Garciak. Horregatik, auziari "behin behiko konponbidea" topatzeko gizarte zibila mobilizatzea ezinbestekoa dela uste du. Horren guztiaren berri ematen dihardute herritarrei, eta herriko eragileekin eta elkarteekin banan-banan egin dituzte bilerak: "Harrera beroa jaso dugu guztietan".

Aurrez aurreko bisita barik

Picassenteko kartzelan (Valentzia) dagoen Gari Garcia Arrieta izango dute gogoan aretxabaletarrek urriaren 3an. "Aurrez aurreko bisitak kendu egin zizkiguten abuztu bukaeran, eta ez dakigu noiz arte izango den. Gainerako bisitak baditu, baina lau lagun beharrez bi bakarrik sar daitezke", azaldu du haren arreba Amaia Garciak: "Gainerako ondo dago".

Gaur, hilabeteko azken egubakoitza, presoen aldeko elkarretaratzea egingo dute Herriko Plazan (19:00).

GORA ETA BEHERA



Garajeetako xurgapen-dorrea, umeen jolasgune

"Herriko jolasguneak nahikoa ez omen dira... Eta edozein eraikuntza txintxaun bezala erabiltzen dute gure haurrek. Homologatu gabe, segurtasun neurririk gabe, zaintzarik gabe... Belorrietako garajeetako xurgapen-dorrea gaztelu bihurtu dute oraingoan", dio herritar batek, kezkatuta.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.





luz, Aldaype Ehiza eta Arrantza Elkarteko lokalean, herritarrek postu zozketarako izenak ematen. I.B.

Eguaztenetan soilik egingo dira ehiza-postu zozketak

Orain arte, astegunetan egin izan dira ehiza-postuen zozketak Aldaypeko lokalean, eta egubakoitzetan, asteburuetarako eta astelehenerako zozketak egiten ziren. Orain, aldiz, eguaztenetan soilik egingo dira aste osoko zein asteburuetarako zozketak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Urria heltzeaz batera, herriko ehiztariak gogoz egoten dira ehizara joateko, eta horren aurretik egin behar dutena postua izatea da. Zenbait herritarrek postuak dituzte euren lurretan, eta horiek pribilegiatuak dira, ez baitaude zozketara joan beharrik, badutelako postua erabilgarri, baina ehiza-postua duen lursailik ez duten herritarrek egunero joan behar izaten dute Aldaype Ehiza eta Arrantza Elkarteko zozketara, ehizatzeke postu onena tokatzeko asmoz.

Hala, egunero batzen dira ehiztariak elkartearen lokalean, Intxaurtxuetako bederatzigarren atarian, postu zozketarako. 18:00etatik 20:00etara bitartean izan ohi dira izen-emateak, eta 20:00etan, zein postu hautatu diren adierazten da. Zozketak egunero egin izan dira, hurrengo eguneko postua aukeratzeko, eta egubakoitzetan, berriz, asteburu osorako zein astelehenerako zozketak egin izan dira.

Zozketak, eguaztenetan

Aurten, baina, ehiza-postu zozketetan jende pilaketak saihesteko eta herritarren segurtasuna bermatzeko zenbait berrikuntza egingo dituztela adierazi dute elkartekideek: "Urriaren 7an izango dugu lehenengo zozketa eguna, eta hilaren 8an hasiko dira ehiztariak ehizatzen. Berrikuntza nagusia zozketa egunena izango da. Orain, astean behin egingo ditugu zozketak, eguaztenetan, 17:00etan hasi eta 18:45ean amaituko da izen-ematea. Gero, 20:00etatik 20:30era jakingo dute bertaratuek zein postu tokatu zaien. Horrekin batera, lehen, elkarteko bulegora sartzen ziren zozketan parte hartu nahi zutenak, baina orain,

DENBORALDI BERRIKO EHIZA POSTU BANAKETA URRIAREN 7AN EGINGO DA ALDAYPEKO LOKALEAN

kanpoan itxarongo dute, segurtasun neurriak errespetatuz, eta pantaila jarriko diogun leihotik artatuko ditugu. Ez da samurra izango egun bakarrean egitea zozketa, denbora beharko digulako, baina bizi garen garaira egokitu behar dugu", adierazi du Oier Eskibel Aldaype elkarteko presidentek.

Denboraldirako aurreikuspenak

Urtero moduan, ehiztariak bi lineatara postuak lortu ahal izango dituzte zozketan: lehenengo linean 87 postu daude – Lete, Apotzaga eta Marin–; eta bigarrenetan, berriz, 77 –parke naturala, Alabita eta Aranguren–. Aurreikuspenenak ez daudela garbi adierazi du Gerardo Cantera elkartekideak, baina ehiztariak gogotsu daudela azpimarratu du: "Hiru urte txar izan ditugu, baina jendea ehizarako gogotsu dago. Ikusiko dugu zer pasatzen den. Hala ere, azaroaren 22ra arte izango dugu denbora ehizan aritzeko..."



Martitzenean egindako ohiko osoko bilkura. I.B.

Udaletxeko aretora bueltatu dira osoko bilkura egitera

Martxotik gaur arte modu telematikoa egin dituzte osoko bilkurak Eskoriatzako udal ordezkariak

I.B. ESKORIATZA

COVID-19aren pandemiaren ondorioz ezarritako alarma-egoeraren aurrean, Eskoriatzako Udalak osoko bilkurak eta batzordeak modu telematikoa egiteko neurria hartu zuen, eta apirilaren 2tik gaur arte modu horretan batu dira. Hala, zenbait hilabeteren ostean, osoko bilkuren aretora bueltatu eta elkarren arteko distantziak hartuta egin zuten iraileko osoko bilkura.

Osoko bilkuren aretoan dagoen mahaiaren bueltan esertzen dira, normalean, udal ordezkariak, baina, martitzenean egindako

osoko bilkuran zenbait kide mahaiaren bueltan jarri arren, beste hainbat eserlekuetan izan ziren jarrita, elkarren arteko distantziak errespetatu eta segurtasunez jokatzeko. Tratatu-tako gaiei dagokienez, tramite aldaketak izan zituzten hizpide, kreditu aldaketa, eta horrekin batera, 2019-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzea, besteak beste.

Tramite kontua

Irairlaren 29an, 18:00etan, era telematikoa ezohiko osoko bilkura izango dute.



JOKIN ETXEBERRIA

Sei arigune osatuta

Euskaraldiaren bigarren ediziora begira 11 entitatek eman dute izena Eskoriatzan, eta Eskoriatza Kirol Elkarteak ere bat egingo duela adierazi du hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa sozialean. Hori horrela, elkarte barruan sei arigune sortu dituzte, euskaraz lasai eta eroso hitz egiteko espazioak izango direnak.



Haurrak, uztaileko udalekuetan, maskara jarrita dutela, Urkulu urtegi inguruan jolasean. ESKOITZAKO GAZTELEKUA

Arau eta funtzionamendu berriarekin hasiko dira

Eskoriatzako Tortolis ludotekako haurrek irailaren 29an hasi eta urriaren 9a arte izango dituzte ate irekiak. Gaztelekuko nerabeak, berriz, urriaren 2an hasiko dira; hala ere, asteburu honetan funtzionamendu arauak azalduko zaizkie

Imanol Beloki ESKORIATZA

Tortolis ludotekako haurrek eta gaztelekuko nerabeek urrian hasiko dute ikasturtea, baina, aurretik, irailaren amaieran ate irekiak egingo dituzte, gunea erakutsi eta arauak eta funtzionamendu berria aurkezteko.

Ludotekan txanda itxiak

4 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako udal zerbitzuan, jolasa eta ludikotasuna bitarteko tresna hartuta hainbat helburu lantzen dira Tortolis ludotekan; besteak beste, haurren parte-hartzea zerbitzu barruko zein kanpoko ekimentera, inklusioa, euskara, kultura, harremanak... Astelehe-

netik ostiralera eskaintzen den zerbitzua da, eta 34 euro da urte osoko kuota. Hain zuzen, izen ematea urriaren 5etik aurrera egin ahalko da.

"Aurten, beste urte batzuetan ez bezala, txanda itxiak izango dira. Haurrek astean bi taldetan joateko aukera izango dute, eta taldekideak beti izango dira berdinak. Txanda bakoitzean 13 haur egon ahalko dira ludotekan, hori da neurtu den edukiera. Hona hemen beste hainbat aldaketa: kanpo espazioa eta kanpo ekintzak egingo dira. Sarre-irteera txandak mailakatuak izango dira. Materiala desinfektatuko da...", adierazi du Maider Etxanizek, Gazteria teknikariak.

Bi espazio independente

Gazteleku zerbitzuak, aldiz, urriaren 2an zabalduko ditu ateak. 12-16 urte bitarteko nerabeei zuzendutako eskaintzara begira, aurten, arautegi protokoloa diseinatu dute. "Zerbitzua ahalik eta nerabe gehiengana iristeko bi espazio independente eskainiko ditu, sarrera eta irteera propioarekin, eta espazio bakoitza hezitzaile batek gidatuko du. Gaztelekuan parte hartzeko izena eman beharko da, eta izen ematea lagun taldeka egitea gomendatuko da, horiek izango dira burbuilak. Espazio bakoitzak bi txanda eskainiko ditu eta talde bakoitzak bere txanda erreserbatu beharko du".

Kiroldegiko hitzordua Whatsapppe ere hartu daiteke

Irailaren 14a ezkerro, Manuel Muñoz kiroldegiko igerilekuan eta gimnasioetan nahiz pilotaleku txikian aritzeko hitzordua hartzea ezinbestekoa da. Hala, orain, Whatsapp zenbakia ere jarri dute horretarako.

Hala, zenbait bide daude erreserba egiteko: kiroldegian bertan, kiroldegia@eskoriatzeta.eus helbidera idatzita, telefonoz 943 71

53 28 zenbakira deituta edo Whatsapppe 610 86 59 54 zenbakira idatzita.

Gehienez, 48 orduko aurrerapenarekin hartu ahal izango da txanda, eta, behin erreserba eginda, txandara joan ezin denak kiroldegiari abisatzeko eskaera egin dute Eskoriatzako Udaletik, beste pertsona batek erabili dezan ordu hori. Pertsona batek behin eta berriro abisatu barik egingo balu kale, zigorra jasoko duela adierazi dute, gainera.

Izan Bidearen baitan, Atxorrotxera igoera izango da urriaren 3an

Sarek abian jarritako Izan Bidea dinamikaren barruan, urriaren 3an, zapatuan, Atxorrotxera eta Mugarriluzera igoera egingo dute eskoriatzarrek. 11:30erako tontorretan batzeko dei egin dute, eta, euskal presoen eta iheslarien egoerari irtenbidea egiteko pausoak eman eta kilometroak egitea izanda asmoa, *Marixol askatu!* lelopean igoko dira tontorretara.



Bi gatzagar Labidea tabernako terrazan zerbait hartzen. GOIENA

Pandemia hasi eta zazpi hilabetera, lehen positiboa

Koronabirusa Gatzagara iritsita, lasaitasun mezua helarazi gura izan du Eugenio Otsoa alkateak

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Pandemia hasi zenetik koronabirus kasurik gabeko Debagoieneko herri bakarra izan da Leintz Gatzaga, baina agertu da lehen kasua. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak joan den egubakoitzean jakinarazitako datuen arabera, egunean, hilaren 17an, egindako PCR probetan kasu positibo bat atzeman zuten Leintz Gatzagan.

Pazientzia eta lasaitasun mezua

"Iritsi zaigu guri ere herrira. Denbora kontua zen, baina, leku guztietara iritsi den mo-

duan, gurera ere etorri da. Dezentente aguantatu dugu, eta kasu bakarra da; beraz, espero dut azkar errekeratzea eta beste kasurik ez irtezea. Positibo eman duen herritarra bakartuta dago etxean, eta, gainera, oso ondo jokatu du probaren berri eman diotenetik; beraz, ez dugu larritu behar. Pazientzia hartu behar dugu, kasu positibo gehiago ateratu daitezkeelako, eta lasai egon behar dugu: orain arte bezala jarraitu, neurriak hartu, eta elkar zaindu", adierazi du Eugenio Otsoa Leintz Gatzagako alkateak.



GATZAGAKO GATZ MUSEOA

RTVEko saio baterako grabatzen

RTVEko *Turismo rural por el mundo* programako lantaldea Gatzagako Gatz Museoa izan zen joan den egubakoitzean, grabaketak egiten. Herrian eta museoa irudiak hartu zituzten, eta gero, adierazpenak egin zizkieten Gatz Museokoek. Grabaketa orain egin berri duten arren, 2021. urtean emitituko dutela adierazi zuten.

Aurrekoen bizipenen arrastotik tiraka

Memoria historikoarekin lotutako bi liburu aurkeztu dituzte asteon Elgetan: Manolo Cainzosen 'Elgetarrak historian' eta Aiert Zubigarai elorriarraren 'Emakumeon memoria 1937'. Intxorta 1937 kultur elkarteak argitaratu ditu, eta biak daude salgai

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Julianen Kioskoan dago esku-ragarri *Elgetarrak historian*, 12 eurotan. Elgetan jaiotako hemezortzi gizonezkoren eta zortzi emakumezkoren bizipenak jasotzen ditu bi hizkuntzatan argitaratutako 209 orriko liburuak. "Kontaketa laburrak dira, eta bizitza horien kontakizunari esker gizarte eredu horien nolokotasunean sar gaitezke: botere ekonomikoaren eta erlijiosoen nagusitasuna, desoreka soziala, genero bereizketa, langileen esplotazioa...", azaltzen du Manolo Cainzosek. "Daude jauntxo feudalak, ezkontza-itunen bidez aberastutako familiak, konkistatzaile militarrek, merkatariak, kargu politikoak, elizako gizon-emakumeak, artistak, irakasleak, gizarte-ongileak, bidelapurak, gerrako biktimak...".

Liburuko pertsonaietako batzuk agertu ziren Cainzosek duela bi urte kaleratutako *Elgeta lehen eta orain* liburuan, baina inor gutxi ezagutuko ditu Elgetako artxibo historikoko agiriak Cainzosek beste, eta aurkikuntza berriak ere egin ditu. Bestelako artxiboetara ere jo du 26 istorio horiek osatzeko: Bergarara, Oñatira, Bilbora eta Alcalá de Henaresera, tartean. "Zoragarria izan da Juan Ochoa



Manolo Cainzos, Elgetan, *Elgetarrak historian* liburu berriarekin. L.Z.L.

Elgueta ahaide nagusiaren pista aurkitzea. Jalotza etxeko leinuak bi mendez izan zituen kontrolpean Elgetako lurak. Guiomar Donor Olaegui Guzman (1490-1555), berriz, emakume oso boteretsua izan zen. Hiru aldiz ezkondu zen, eta ezkontza-

MEMORIA ASTEKO AURKEZPENAK IZAN DIRA; HURRENGO ASTERAKO BESTE BI HITZORDU DAUDE

itun bitartez inguruko familia boteretsuenak elkartu zituen: ibarratarrak, elgetatarrak eta olaegitarrak".

Maria Angela Telleria Arana (1779-1864) beste balentria batzuegatik da ezaguna. Durangoko kartzelan preso zeuden 26 soldaduren ihesaldia ahalbidetu zuen frantsesen aurkako 1808ko gerran. Birritan atxilotua, heriotza-zigorra kondenatu zuten, baina aske amaitu zuen.

Juan Maria Eguren Mugikak (1828-1880) maisutza ikasi zuen, ikastea gutxi batzuen pribilegioa



Aiert Zubigarai *Emakumeon memoria 1937* liburuarekin. L.Z.L.

'Emakumeon memoria 1937'

Aiert Zubigarai *Bizka* elorriarrak *Emakumeon memoria 1937* aurkeztu zuen atzo Espaloian. Handiagoa den proiektu baten aurrerapena da. "110-120 orriko komikia osatu nahi dut. Komikilari bat eta soziologo bat izango dira Elgetatik abiatu eta Artxandaraino eramango gaituen bidaiaren haria. Herriz herri geldialdiak egingo dituzte, eta herri bakoitzean emakume nagusi batek gerra garaiko gertaerak kontatuko dizkie", azaltzen du komikigileak. Pertsonaiak fikziozkoak izango dira, baina gertaerak ez. "Han eta hemen jasotako benetako gertaerak dira, baina komikian ez ditut beti jatorrizko kokalekuarekin lotuko, eta ekidingo dugu, baita ere, betiko biktimitasunaren eta heroismoaren jaustea". Fanzineak aterako ditu poliki-poliki komikigileak, eta Elgetakoa izango da lehenengoa. "Espero dut Elgetako kapitulua Durangoko Azokarako prest egotea. Hemezortzi orrialdeko fanzinea izango da, eta Elgetako hitanoan argitaratuko dugu. Euskara batuan eta gaztelaraz ere egongo da, QR bidez. Gidoia prest dago, eta marrazkien zirriborroak ere bai. Kapitulua guztiekin, gero, komiki bilduma osatuko dugu". Fanzine horren lagina da liburu honetan jasotzen dena, eta horrekin batera testuinguru historikoa, frontearen kokapena, garaiko argazkiak, eta gertaeren kontakizuna egin duten emakumeetako batzuen erreferentzia. Liburua El Rincon de Lola tabernan dago salgai, 10 eurotan.

zen garai batean. Gipuzkoako lehen hezkuntza ikuskaria izan zen, eta 200 bat eskola abiarazi zituen. Euskal hiztuna bazen ere, gaztelararen defendatzaile sutsua zen, eta oso kritikatu izan zen horregatik. Gaztelera ikastea metodo bat garatu zuen.

Martin Saez Ibarra inkisidorea, Francisco Zulueta ontzi-kapitain aberatsa, Joaquin Iturbe Arregi *Santua* bidelapurra, Domingo Iturbe Altube ongile ezaguna... Ez dira gutxi Elgetak emandako pertsonaia historikoak.

Astehenean hasiko dira udal kirol eskaintzako jarduerak

Zumba, pilates eta tai ji saioak asteon abiatu dira; guztiak ere, COVID-19ak eragindako protokoloekin

L.Z.L. ELGETA

Izena emateko epea zabalik da, eta eskaintzaren nondik norakoak, ordutegiak eta prezioak udal webgunean daude ikusgai. COVID-19ak eragindako egoera dela-eta protokolo zorrotzak ja-

rraitu beharko direla jakinarazi du Udalak. Plaza mugatuak izango dira saio guztietan, eta jarduera batzuk squash kantuan egingo dira.

Erabiltzaileei protokoloak ezartzen dituen neurriak bete-

tzeko eskatuko zaie, eta konpromiso fitxa sinatzeko. Gainerakoan, eskatzen dute sintomarik edukiz gero ez bertaratzeko, distantziak mantentzeko, toalla eta estera etxetik eramateko, aldagelak ez erabiltzeko, eta erabiltzen badira garbitzeko.

Maskara aldean eraman behar da beti, eta erantzi daiteke bakarrik jarduera fisikoa hasiterakoan. Sarreran eskuak garbitu beharko dira, eta instalazioan sartu aurretik oinetakoak aldatu beharko dira.

Berbalagun taldeetan izena emateko dei egin dute

2020-2021 ikasturtean mintzalagun praktikorako izen-ematea zabalik dago, eta bidelagunak zein bidelariak behar dira Elgetan ere. Asteon ordubetez taldean elkartu eta euskaraz hitz egiteko konpromisoa eskatzen da. Interesatuak liburutegian jaso dezakete informazio gehiago. Baita ere berbetan@elgeta.eus edo 688 72 96 03 bidez.

Azken egunak arigune moduan izena emateko

Euskaraldian arigune izan nahi duten Elgetako entitateek domeka aurretik eman behar dute izena, Euskaraldia.eus atarian dagoen formularioa beteta. Oraingoz, izena emanda daude Herri Eskola, Goibeko, Liburutegia, Kirolak, Herrixa Dantzan, Kontsumo Taldea, Elena Elkoro Botika, Julianen Kioskoa eta Saioa Masajeak (Ikus 2-5 orriak).

SANMIGELAK

EZ-JAIAK

2020 OÑATIN



Oihana Elortza OÑATI

Aurten ez dira San Migel eta Errosarixo jaiak egingo. Ez da urteroko jai egitarauak jaso ohi dituen ekintzarik egingo. Kultura eskaintza, baina, egongo da. Udako hilabeteetarako egin zuen moduan, modu horretan egingo den agenda prestatu du Udalak datozen asteburuetarako; zapatuan hasi eta urriaren 11ra bitarterako. "Ez da jairik egongo. Kultura eskaintzera mugatuko gara", baieztatu du Kultura zinegotziak. Gaineratu du antolatu diren ekitaldi guztiak segurtasuna bermatzeko hartu beharreko neurri guztiekin egingo direla.

Txosnarik ez da egongo

Diziplina askotariko ikuskizunak egongo dira datozen hiru aste-buruetan: musika kontzertuak, antzezlanak, bertso musikatuak eta herri kirol saio bat, adibidez. Eta plaza ondoko jolastokian martitzenean muntatzen hasi ziren karparen azpian izango dira gehienak; herri kirolen saioa eta Tio Teronen Semeak taldearen ikuskizuna Olaiturrin edo kiroldegiko frontoian izango dira. "Baina ekitaldi gehienak toki berean izatea erabaki dugu, horretarako prestatutako toki batean, kontrolatua izateko eta neurriak betetzeko bermearekin", zehaztu du Iñaki Olalde Kultura zinegotziak.

Karpa hori izango da muntatu den azpiegitura bakarra.



Martitzenean hasi ziren plaza ondoko karpa muntatzen. O.E.

Jairik ez da egongo aurten, baina bai kirol eta kultura ekitaldiak

Plaza ondoko espazioan muntatu duten karpa izango da ekitaldietarako Udalak jarriko duen azpiegitura bakarra. Zentzuz jokatzeko eskatu dute udal ordezkariak

Txosnarik ez da egongo eta txosnagunean ez da ezer jarriko. "Txosna batzordeko kideak aurretik egindako bilera irekietan parte hartu dute beste eragile batzuekin batera. Hasieran jasotako baimen eskaera zehazteko beste bilera bat egin genuen, eta handik etorri da euren eskaera bertan behera uzteko eskaria. Guk gune bakarra izendatu dugu kultura ekitaldiak egiteko, horra mugatzen gara".

Tabernekin ordutegia dute

Barrakak, kaleko saltzaileak, janari azkarren furgonetak eta bestelakoak ere ez dira egongo: "Ez dago jairik". Tabernekin egotzeko ordutegia izango dute: oraingo legearen arabera, azken tragoa 00:00etan aterako dute eta 01:00etan hutsik egon beharko dute. "Geuk antolatzen ditugun ekitaldiak kontrolatuko ditugu eta hortik aurrerakoetan beste batzuek ere badagokie. Egun normalak izango dira eta denoi dagokigu eguneroko bizitzaz disfrutatzea eta ordutegiak errespetatzea".

Asteburuan lehen ekitaldiak

Herriko hainbat eragilek antolatutako ekintzak ere egoten dira urtero herriko jai nagusietan, izan arku tiroketa txapelketa, plato tiroketa edo herri antzezlanak, esaterako. Horiek guztiak ere bertan behera gelditu dira, Udalak eta horien antolatzaileek elkarrekin horre-



Su ere oñatiarrekin!

ONGI • GAROA • AKER • HELMUGA
ALOÑA MENDI • URTIAGAIN • TXOPEKUA



Amak taldeko kideak: Amaia Oreja, Kristina Solano, Alaitz Telletxea eta Maixa Lizarribar. GAIKZA PEÑAFIEL

la adostuta. Bakarrik egongo da Udalak antolatutako kultura eskaintza. Asteburu honetan izango dira lehen ekitaldiak. Zapatu iluntzean, esaterako, Amak taldeak joko du zuzenean.

Ez da ohiko egitaraurik egingo eta banatuko aurten, baina QR kodea duten kartelak jarriko dituzte kalean, eta hori deskargatuta kontsultatu ahal izango dira egitaraua bera eta egon ahal diren aldaketak. Ekitaldiak doan izango dira, baina karpako edukiera mugatua izango da eta ikuskizunetako sarrerak aurrez

hartu beharko dira udal webgunean eta Txokolateixan.

Bestalde, ospatuko ez diren jai hauetan izandako bizipenak islatuko dituen kartel lehiaketa antolatu du Udalak. Urriaren 1a da lanak aurkezteko azken eguna, kultura etxean. 500 euroko sari bakarria egongo da.

Zentzudunak izateko mezua

Udalbatza osatzen duten alderdi biek egin diete dei herritarrei zentzudunak izateko eta arduraz jokatzeko. "Gauden egoeran egonda, zentzudunak izateko eta la-

guntzeko gauzak ondo egiten", eskatu du Kultura zinegotziak. EAJk ere "zentzuz eta arduraz" jokatzeko eskatu du, eta "elkar zaintzeko garaia" dela azpimarratu. "Udal Gobernuak osasun neurriak hartuko dituen konpromisoa azalduta", lasaiago daudela gaineratu dute jeltzaleek, prentsa ohar bidez, eta onartu kultura ekitaldiak antolatzearekin erabat ados egon arren, dutekin ez dutela bat egiten. Jeltzaleen ustez, ekitaldirik ez antolatzea izango litzateke jairik egongo ez den mezu garbia.

Antolatutako egitaraua

Irailak 26

- 17:00 *Ongi etorri, lagun* haurrendako ikuskizuna. Karpan.
- 20:00 Amak musika taldea. Karpan.

Irailak 27

- 10:30-14:00 Gaztetxoendako abentura parkea San Martinen.
- 13:00 Voces Riberas taldearen jota emanaldia. Karpan.
- 19:00 Iker Lauroba & Beste Urtaroak musika emanaldia. Karpan.

Irailak 29

- 09:00 Txistularien goiz-eresia herriko kaleetan zehar.
- 11:00-14:30 Umeendako tailerrak berdura azokan eta egunean zehar gaztelekuak nerabeendako antolatutako jolasak.
- 13:00 Musika bandaren kontzertua. Lazarraga lorategian.
- 19:00 Puro Relajo musika taldea. Karpan.

Urriak 3

- 18:00 Herri kirolen erakustaldia. Zubikoako pilotalekuan.
- 20:00 Julen Alonso eta Oinkari taldeen ikuskizuna. Karpan.

Urriak 4

- 09:00 Txistularien goiz-eresia herriko kaleetan zehar.
- 13:00 Musika bandaren kontzertua. Lazarraga lorategian.
- 13:00 *Trakamatraka* haurrendako ikuskizuna. Karpan.
- 19:00 Tio Teronen Semeak taldea. Zubikoako frontoian.

Urriak 10

- 20:00 Hutsun + Ortzi taldeen *Urbasa* ikuskizuna. Karpan.

Urriak 11

- 10:30 Artisauen azoka. Herriko plazan.
- 12:30 *Auskalo zeinek jarriak* bertso jarri musikatua. Karpan.
- 19:00 Herriko talde baten kontzertua. Karpan.

Irailak 26 - Urriak 6

- **Argazki erakusketa** *Oñati begi bistan*. Plazako arkupeetan.

Oharra: Ekitaldiak doan dira, baina edukiera mugatua da eta aurrez hartu behar da sarrera udal webgunean edo Txokolateixan.



Mekanizazio zerbitzu integralak

**Gu ere
oñatiarrekin!**

Zubillaga 13 - 20560 Oñati - tel.: 943 78 19 11 / www.mekalki.es / e-mail: comercial@mekalki.es

Danborradarik ere ez da izango bertan behera gelditutako sanmigeletan

Pandemia dela eta, ez da danborradarik egingo aurtengo sanmigeletan. Penaz hartu dute erabakia antolatzaileek, baina indarra hartzeko balio dezakeela uste dute



2015eko haurren danborrada, Foruen plazan. GOIENA

Karmele Uribesalgo OÑATI

Aurten ez da danborradarik izango Oñatiko San Migel jailetan; ez umeena, ezta nagusia ere. Koronabirusaren pandemiaren eraginez, antolatzaileek erabaki dute ekitaldi hori bertan behera uztea, baina inflexio-puntua izan daitekeela aitortu dute. Izan ere, azken urteetan beherakada nabarmena izan du danborradak parte hartzaileei dagokienez, eta antolaketa ere zailtasunak izan dituzte. Geldiunearen ostean, indartuta itzultzea espero dute.

"Erabakirik onena"

25 urtez atera da Jabi Agirre danbor-jole, eta txikitako oroitzenak ere baditu ekitaldi horren inguruan. "Penaz" bizi du danborrada bertan behera utzi beharra. Izan ere, oso egun polita iruditzen zaio irailaren 28koa: "Jende pila bat ateratzen da kalera, eta izugarria da danborrada barrutik bizitzea; herri osoa zeharkatu eta herritar pila bat ikustea". Iritzi berekoa da Lorea Suarez. Haurren danborradan ateratakoa da, eta helduenean ere hartu izan du

parte. Orain, umeena antolatzeaz arduratzen da. "Berezia" da Suarezentzat urteroko ekitaldi hori. Azaldu duenez, gogorra da ekitaldia bertan behera utzi beharra. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleak atera ohi dira danborrada horretan, eta Suarezek gaineratu du umeek ere ulertu dituztela danborradarik ez egiteko arrazoiak. "Egoera nola dagoen ikusita, erabakirik onena dela uste dut", nabarmendu du Suarezek.

Uztailean bi danborradetako antolatzaileek bilera egin zuten,

aurtengo ekitaldiarekin zer egin adosteko. Agirrek azaldu du nahiko argi zegoela helduena ezin izango zela egin: "Jende pila bat batzen da, eta arriskugune izan zitekeen". Haurren danborradarekin zalantza gehiago izan ziren, eta aztertu zuten ea zenbait moldaketarekin egin zitekeen. Besteak beste, talde txikiagoetan egitea pentsatu zuten, alde batetik bestera mugitu gabe edo danborradarako propio izaten dituzten arropak jantzi barik. Hamabost pertsona inguru aritzen dira, gaur-

gaurkoz, umeen danborradako antolaketa lanetan; batzuk gurusoak, beste batzuk boluntarioak. Euren artean landu zuten gaia, Udalarekin hitz egin zuten, eta, bozkatu ostean, bertan behera uztea erabaki zuten. "Ni irtetearen aldekoa nintzen, baina ordu pila bat dira, ume asko daude, eta arriskutsua izan daiteke", aitortu du Suarezek.

Beherakada parte hartzean

Azken urteetan jaitsi egin da helduen danborradan parte hartzen duen jende kopurua.



GENERALI

**M^a JOSE ASTIGARRAGA GURIDI
ANA LADINO CÁRDENAS**

**Kale Barria 36, behea
20560 OÑATI**

Tel./Faxa: 943 78 33 82

Mug.: 651 705 350 / 636 80 73 00

mastigar@generalimediadores.es

aladino@generalimediadores.es

Guz ere oñatiarrekin!

**SAN MIGEL
JAIK
OÑATIN**

**GOIENA TELEBISTA,
HEMEN DEBAGOIENA SAIO BEREZIA**
IRAILAREN 29AN, MARTITZENEAN,
18:00/20:00/22:00

goiena
20 URTE ZUEKIN.



Duela lau urte, esaterako, 400 lagun inguru atera ziren danborradan, eta iaz erdia izan ziren; 200 bat oñatiarrek hartu zuten parte. Jendea ekitaldira animatzeko zailtasun ugari izan zituzten joan den urtean, baina, hainbat deialdiren ostean, aurreko urteetan baino parte hartzaile gehiago izatea lortu zuten.

Haurren danborrada, galtzear

Haurren danborrada, berriz, galtzear egon da, baina iaz herritar taldetxo bat batu, eta ekitaldi hori antolatzen animatu ziren. Tartean da Suarez ere, eta dio pena dela gisa horretako jai "garrantzitsu" bat bertan behera uztea jenderik ez dagoelako. Iaz 150 gaztek hartu zuten parte, baina Suarezek ez uste danborradaren indar faltaren arrazoia parte hartzaile falta denik; lan handia dakar antolaketaz arduratzeak, eta baliteke familia guztiak ez egotea konpromiso hori hartzeko moduan.

Helduen danborradaren antolaketan ere gorabeherak izan dira azken urteetan. Batzorde batek izan zuen zita prestatzeko ardura, eta 2012an beste

talde bat eratu zen lan horietan jarduteko. Gauzak horrela, bi batzorde horiek aritu ziren danborrada antolatzen. 2014an, berriz, hasieratik zeudenek lan hori utzi zuten, eta beste batzorde bat osatzeko dei egin zen. "Errelebo beharra zegoen", adierazi du Agirrek. Deialdi horren ostean, talde berri bat osatu zen, eta horrek dihardu orain danborrada antolatzeko lanetan. Hala ere, Agirrek nabarmendu du lagun gutxi daukela talde horretan, eta indartu beharrean dagoela.

Danborrada indartzeko unea

Aurten ez da danborradarik izango, eta hurrengoaren esperoan egongo direla azaldu dute antolatzaileek. "Geldiune hau abiapuntua izan daiteke helduen danborradako batzordea osatzeko eta indartzeko", adierazi du Agirrek. Urte hau baliagarria izatea espero du, eta hurrengo sanmigelak gogo gehiagorekin ospatuko dituztela gaineratu du. Haurren danborradan bide bat ireki dela uste du, herritar talde batek hartu baitu jada konpromisoa. Horrez gain, azaldu



Jose Luis Urrutia eta Jose Mari Lizarralde, danborradan. JESUS MARI ARZUAGA FUNTSA

du musika eskola ere badagoela laguntzeko prest.

Suarezek ere uste du aurtengo geldiuneak indartu egin dezakeela danborrada: "Beste urtetxo bat daukagu gauzak hobeto prestatzeko eta indarrak hartzeko". Donostiako tailer batekin bate-

GAUR EGUN EZAGUTZEN DEN SAN MIGEL BEZPERAKO DANBORRADA 1966AN EGIN ZEN LEHEN ALDIZ

ra jantzi berri batzuk ari ziren prestatzen aurtengo danborradarako, baina ezingo dituzte estreinatu. "Hor egongo dira umeen zain, eta hurrengoan eskertuko da berrikuntzak izatea", adierazi du. Antolaketa lanetara batzera animatu nahi du jendea Suarezek. "Ez gara oso talde handia, eta ondo etorriko litzaiguke laguntza", azpimarratu du.

Mende erditik gora

Gaur egun ezagutzen den San Migel bezperako danborrada

1966an egin zen lehenbiziko aldiz. Urte bat lehenago sortu zen Club Mixto de la Juventud arduratu zen antolaketaz, gerora Oñatz taldea izan dena. Hasiera haietan izan zen Jose Luis Madinagoitia, eta azaldu du aurretik ere egin zela danborrada bat, 1960an, baina bere horretan gelditu zela. Madinagoitiak adierazi duenez, hasierako urteetan "nahiko klasikoa" zen danborrada, inguruko herrietan egiten zirenak eredu hartuta sortutakoa. Horrez gain, lehen urte haietan abesti propiorik ere ez zuten, eta Donostiakoak erabili ohi zituzten.

Haurren danborrada 1982an egin zen lehen aldiz, eta emakumeen konpainia hurrengo urtean sartu zen helduenera. "Ez genuen inolako zalantzarik izan", azpimarratu du Madinagoitiak.

Gerora, hainbat aldaketa izan ditu danborradak, eta unean uneko egoera eta beharretara moldatu da. Aurten ezin izango da ekitaldi hori egin, eta hurrengoaren zain gelditu beharko dute bai antolatzaileek, baita herritarrek ere.

Duela 40 urtetik egiten da Herri Eguna zapatuan eta unibertsitate ondoan

Duela 41 urte sortu zuten Nekazarien Elkarteak, eta urte hartan antolatu zuten lehen aldiz baserritarren azoka. Ordutik, soziedade horretako bazkideek dute horren ardura



Sokatiran garaile izan zen taldea, Nekazarien Elkarteko bazkideak denak. R.E.

Oihana Elortza OÑATI

Elkarteko toki baten bila hasi ziren herriko hainbat baserritar duela 40 urte pasatxo. Elkarteko gastronomiko bat sortu gura zuten eurek ere, eta horretarako lokal bila hasi ziren herri-gunean. Erdiko eta osteko kaletan lokal egoki bana topatu zuten, eta egungoaren alde, Atzeko kalean, egin azkenean, merkeagoa ere bazen eta. 1979an inauguratu zuten, duela 41 urte, eta orduan egokitu zitzairen, lehenbiziko aldiz, baserritarren azoka antolatzea.

40 urte ohiko tokian

Aurretik, Udalak antolatzen zuen azoka hori, baina urte hartatik aurrera Nekazarien Elkartek hartzen du horren ardura, Udalaren laguntzarekin.

Nahiko buruhauste eman zien antolaketa horrek elkarteko bazkideei. "Garai hartan, Erro-saixo Biharamun egunean egiten zen azoka hori, eta Santa Marinako plazan. Ez genekien nondik hasi edo zelan egin, baina moldatu ginen. Oso eguraldi txarra egin zuen, oso", du gogoan orduan diruzaina zen Jose Luis Astiga-

rraga bazkideak. Hurrengo urtekoa antolatzea errazagoa egin zitzairen. Tokiz eta egunez ere aldatu zuten: zapatuan eta unibertsitatearen inguruan, egun ezagutzen dugun moduan. Aurtan, beraz, 40 urte beteko zituen Herri Egun bihurtu denak.

Txapela sokatiran

Paulo Agirre zen soziedadeko presidentea sorrerako urtean. Eta zuzendaritzako kide ziren Astigarragarekin eta Agirrerekin batera Agustin Beitia eta Antonio Elkoroiribe, besteak

beste. Azken hori egungo zuzendaritzan ere badago, gainera. "Astiazaran eraikitzailearekin hasi genituen lanak. Udaberria zen. San Migel egunean ezin izan genuen zabaldu, baina handik egun gutxira bai. Hiru

hilabetean egin genituen lanak", du gogoan Paulo Agirrek.

Pedro Irazabal zena arduratu zen obraren jarraipena egiteaz. "Oso azkarra zen. Gauzak argi ikusten zituen, ondo, eta neurriak hartzen, planoak egiten eta horrelakoetan oso ona zen. Ordu asko egin genituen biok egin nahi genuena nola egin pentsatzen eta diruaren kalkuluak egiten", aipatu du Jose Luis Astigarrak. "Hemen dauden sabaiko zutabe asko, esaterako, Arrasatetik ekarri genituen. Hango mojen komen-

150 BAZKIDE ZITUEN SORRERAN NEKAZARIEN ELKARTEAK, 1979. URTEAN



itusionorako hamaika arrazoi



Paulo Agirre, Antonio Elkoroiribe, Jose Luis Astigarraga eta Agustin Beitia. O.E.

tu bat bota egin behar zuten eta egur haiek ekartzea okurritu zizaion Irazabali. Ekarri, neurtu eta berak esandako neurria moztu zituzten. Hor daude oraindik zutabeak", gaineratu du Astigarragak. Elkartearen sarreran, tabernako pareta batean dagoen uztaia, bestalde, Oñatiko Belaskoa baserrikoa da. Elkartea inauguratu zuten egunetik dago hantxe jarrita.

Bazkideak lortzeko, gutunak bidali zituzten etxeetara soziedade berriaren barri emateko;

50ek erantzun zuten. Gero, ahokoarekin beste asko animatu ziren: 150 herritar zeuden Nekazarien Elkartearen sorreran. "Bazkide izateko baldintza zen baserrian bizitzea edo, nahiz eta kalean bizi, baserriko sementa izatea", zehaztu du Agirrek.

Diru kontu guztiak eginda, orduko 150.000 pezeta -900 bat euro- ordaintzea tokatu zitzaion bazkide sartu zen baserriar bakoitzari. "Ez zen inongo arazorik egon. Jarritako epe barruan ordaindu zuten guztiek", dio Astigarragak.

Soziedadea zabaldu zuten urtean, bertako bazkideek osatutako taldeak irabazi zuen txapela. Elkartean dute jarrita oraindik, beste garaikur batzuekin batera.

Uda aurretik lanean

Ordutik hona bazkide kopurua mantendu egin da Nekazarien Elkartean, baita gehitu ere; egun, 172 bazkide dira. "Egia esan, alde horretatik, ez dugu inoiz arazorik izan. Baserritarrek gutxitzen doaz, bai, baina ia urtero dago bazkide sartu gura duen norbait. Pozgarria da hori", dio, irribarrez, Agustin Beitia.

Urtarrileko azken egubakoitzean egin dute beti urteko batzar nagusia eta han hartzen dute bazkide berriak egiteko erabakia, adibidez. Zuzendaritzako kideak ere orduan aldatzen dira. Bi urterako karguak izaten dira eta denbora horretan Herri Eguna antolatzea tokatzen zaie zuzendaritzako kideei. Antonio Elkoroiriberi duela 41 urteko azoka antolatzea tokatu zitzaion eta aurtengoa egitea ere bai, berez, egun ere juntako kide da eta. "Egoera dena da eta aurtent

Esna! musikariaren salbea

Badago Herri Egunean urte askotan egiten den beste ekitaldi bat: Francisco Esna! musikariaren *Salbea Arantzazuko Amari* abesten dute urtero parrokiari, iluntzeko mezaren amaieran. Bertako eta Oñati abesbatzek kantatzen dute.

Donostiarra jaiotzez, Oñatiko San Migel parrokiako organo jotzailea izan zen Esna!. 1951n, berak konposatutako salbea eskaini zuten lehengo Aloña zinema-antzokian, eta, harrezkero, urtero abestu dute Errosario bezpera egunean, Julian Zelaia organo jotzailea hil zen arte (1970). 80ko hamarkadan, tradizioa berreskuratuz, berriro hasi ziren kantatzen.

ez da Herri Egunik egingo. Berez, uda aurretik, hilabete pare bat lehenago-edo hasten gara dena antolatzen, eta iraila bete-betea izaten da; hor izaten dugu lan gehien. Aurtent, ordea, askoz lasaia ibili gara. Urteek emandako esperientziarekin errazagoa da egun, baina badu bere lana, gauza asko eduki behar izaten dira kontutan eta dena ondo lotu behar izaten da", dio Elkoroiribek.

Haurren Egunaren urteurrena

Eta Herri Eguna bertan behera gelditu den bezala gelditu da aurtengo Haurren Eguna ere. Joan den domekan zen berez egiteko, baina ez da ospatu. Oñatzeko kideek azaldu dutenez, dantzari gaztetxoak beteta egon beharko lukeen plaza hutsik geratu da aurtent. Eta 50.a beharko zuten aurtengoak.

Hain zuzen, urtarrilean hasi ziren Oñatz dantza taldearen urteurren borobil hori ospatzen. Hilabete bakoitzerako ekintza bat prestatzea zen asmoa, baina pandemiak bertan behera utzi ditu plan asko. Baita Haurren Eguna ere.

Gualbi asesores

Cu ere oñatiarrekin!

ZERGA, KONTABILITATE ETA LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK

KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!

Euskadi etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48
onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

Hiru zezen hil zituen 'El Viti'-k orain dela 47 urteko zezenketan

Ibarran muntatu zuten zezen-plaza 1973ko urriaren lehen astebururako. Urte batzuk lehenago, 1965ean, beste zezenketa bat egin zen Natra-Zahor dagoen inguruan

Oihana Elortza OÑATI

Zezen-plaza bat ekarri, muntatu eta zezenketa bat egin zuten 1973ko urriko lehen asteburuan Oñatin. Hiru zezen hil zituen Gabriel Nieto *El Viti*-k.

Ibarrako zezen-plazan

Urte batzuk lehenago, 1965ean, beste zezenketa bat egon zen. "Soldadutza egiten nengoen ni orduan eta ez zidaten baimenik eman etortzeko. Sekulako pena hartu nuen. Natra-Zahor enpresa dagoen inguruan jarri zuten orduan zezen-plaza eta bi torea-

tzaile aritu ziren: Juan Calleja eta Anjel Liarte. Handik urte batzuetara, 1973an, beste bat antolatu zuten, eta han bai, han hartu nuen parte", du ondo gogoan *El Viti*-k.

Gasteizko zezen-plazaren ardua zuenak antolatu zuten zezenketa hura, *Serranillo*-k, "Oñatin torero bat bazegoela jakinda". Ibarran jarri zuten orduan zezen-plaza. "Bi toreatzaile ginen, baina besteak min hartu zuen lana hasi eta gutxira, eta neuk hil nituen hiru zezenak. Toreroek izaten duten traje distiratsu bat

jantzi nuen egun hartan", dio irribarrez. *Serranillo*-k utzi zion trajea.

Euren aurretik beste bikote bat aritu zen zezenen aurrean: *Chato de Córdoba* eta *Morenito de Palencia*. Gero zen euren txanda; *Tinin* zen beste toreroa.

Oñatin zaletasun gutxi egon arren, egun hartan zezen-plaza nahiko bete zela gogoan du *El Viti*-k.

Zezenak, txikiagoak

47 urte dira bigarren zezenketa hura antolatu zutela, eta *El Viti*



Gabriel Nieto Macoteran zezenketa batean 1960an. G.N.

oraindik ondo gogoratzen da zezen haiek zuten itxuraz: "Oso txikiak ziren, Salamancakoak baino txikiagoak bai, behintzat. Hiltzeko unea zetorrean bel-durtu egiten nintzen, ezpata non sartu ez nekielako. Askoz zezen handiagoak toreatzera nengoen

UMETATIK GUSTATZEN ZAIO ZEZENEKIN ARITZEA, ETA GERO ERE HARTU DU KAPA PASEAK EGITEKO

ohituta ni. Eta hain bizkar mehea ikusten nien haiei! Kosta egin zitzaidan ausartzea, huts egingo nuela pentsatu baituen. Baina zezenari begira-begira jarri nintzen eta asmatu egin nuen".

Umetatik gustatu izan zaizkio zezenak *El Viti*-ri; ezizena ere hortik dator, Salamancako torero famatu bat zen *El Viti*. "Han edozein kaletan hasten ginen zezenari kapotea erakusten. Hemen, sanferminetan, esaterako, ezin duzu hori egin. Baina han bai, han egiten genuen eta herriz herri ibiltzen nintzen,



- Gasa
- Berogailuak
- Pellet eta egurrezko estufak
- Eguzki plakak
- Energia berritzaileak
- Isolamendu ekologikoak: zelulosa, kortxo proiektatua eta xafla termikoak.
- Galderen aldizkako azterketak.

- Sukaldeak
- Bainurako behar duzuen guztia

Finantzatzeko aukera onak!

Gu ere oñatiarrekin!

943 71 82 49 - 943 75 16 46
Kale zaharra 17, behea (Oñati) - Errabal 2, behea (Sorluze)
fogasleriturgingintza@gmail.com



LIZKER

Tel.: 943 71 80 52

AHOLKULARIAK

Aholkularitza fiskala

•
Lan aholkularitza

•
Kontabilitatea

•
Zerga aitortpena

Gu ere oñatiarrekin!

Errementari plaza 2-3 behea
OÑATI



Nieto, Oñatin, traje distiratsuaekin. G.N.



El Viti, lbarrako zezen-plazan. G.N.

jairik jai. Oinez joaten nintzen askotan, baita asto gainean ere bai zenbaitetan. Amari ez zitzaion nire zaletasun hau gustatzen eta haserretu egiten zen batzuetan, baina anaia-arrebek ondo ikusten zuten, ondo moldatzen nintzen zuten, ondo moldatzen nintzen zuten eta".

Askok baloiarekin bezala, *El Viti*-k zezenari aurre egiteko kaparekin, oihalarekin, jolasten zuen. Plazetara ateratzen zen, egunen batean norbaitek bere aita ponteko egingo zuela esango zion esperantzarekin. Gura zuen profesional izan, baina ez zen eguna iritsi.

Nagusitan ere bai

Umetan ez ezik, nagusiagotan ere bere zaletasuna horixe izan da, zezenekin ibiltzea. Baina zezen handiak toreatzea, ez sokamuturretan parte hartzea.

Oñatin bizi arren, herrira, Macoterara, joan izan da urtetan Gabriel Nieto udako oporretan, eta bidaia horiek aprobetxatu ditu torero izaten jarraitzeko. "Udan toki askotan izaten dira jaiak, eta herri ezberdinetara joan izan naiz zezenak ikusi eta eurekin aritzera. 60 urte nituela oraindik hartzen nuen kapotea eta pase batzuk egin".

Ez du inoiz aparteko adarkadarik jaso. "Kolpeak asko, baina adarkadarik ez. Behin, adar baten puntarekin ukitu ninduen zezen batek izterrean. Orduan ez nion garrantzirik eman, baina, Oñatira bueltatu nintzenez, Arrasatera eraman ninduten eta ingresatu, zauria zabaldu eta barrutik behar bezala garbitzeko".

Argazki kuttunak

78 urte ditu egun *El Viti*-k eta "lasai" bizi dela dio. Ohiko tabernetara joaten da, ohiko irteerak egiten ditu egunero kalera. Oso oroimen ona du eta berrikerian egitea ere gustatzen zaio. Gaztetan zezenekin ateratako argazki asko ditu etxean, "kaxa bat bete argazki", eta tardeka atera eta begiratzen dituela aitortu du. Oñatiko zezenketakoak alkandorako poltsikoan sartuta etorri da Boga tabernan egin dugun hitzordura, "kuttunenak aukeratuta". Tabernako koadro batean bilduta daudenak ere ikusi ditugu gero, Oñatin traje distiratsuaekin ateratakoa, batez ere. Egun hartako oso oroitzapen onak ditu.

"Aita pontekoa izan banu, torero profesionala izango nintzen"

GABRIEL NIETO 'EL VITI' ZEZENALEA

19 urte zituela etorri zen Gabriel Nieto *El Viti* (Macotera, Salamanca, 1942) Oñatira.

Nola heldu zinen Oñatira?

Lanera etorri nintzen. Etorri eta Garay enpresan hasi nintzen lanean eta 60 urterekin hartu nuen erretiroa. Beste hiru anai-arrebek ere han egin dute lan, eta beste batek Cegasan.

Non ikasi zenuen zezenak toreatzen?

Macoteran. Umetatik gustatu izan zaizkit zezenak. Torero izaten jolasten nintzen herriko lagunekin; bat zezena izaten zen eta bestea toreroa. Eta gero, alderantziz. 14 urte nituela hasi nintzen toreatzen, nire kasa ikasita. Inguruko herrietara joaten nintzen gorriz pintatutako zaku batekin, kapotea erosteko dirurik ez nuen eta.



O.E.

Profesional izan gura zenuen?

Bai, noski. Baina aita pontekoa falta nuen nik.

Oñatin ez zen han beste zezenalerik egongo.

Ez. Horrek harritu egin ninduen pixka bat. Hemengoei ez zitzaizkien zezenak gustatzen; ez, behintzat, horrenbeste.

Zer egiten zenuen zaletasun hori asetzeko?

Azpeitian izugarrizko zaletasuna dago eta hara sarri joan izan naiz, esaterako. Baita Eibarren antolatu izan dituzten zezenketetara ere.

Ingelesko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiastrui Kortabarria
20 urte baino gehiagoko esperientzia irakaskuntzan

GU ERE OÑATIARREKIN!

Izen ematea **ZABALIK**
Oraindik badaude plazak!
943 53 36 57
4sgoiena@gmail.com

100 m²

Distantziamendua eta higiene neurriak bermatuta

- Irisgarritasuna
- 2 Komun, bat dibertsitate funtzionala duten ikasleentzat
- Kalegoienako parking-a, ondoan

- Hizkuntzaren 4 alderdiak jorratuko dira
- Haurrak: 4 urtetik gora: jolasak, ipuinak...
- Haur koskorragoak eta gazteak: hizkuntza sakonago landu nahi dutenentzat (azterketa ofizialeterako prestakuntza) edota eskolan landutakoa indartzeko klaseak
- Helduak: Oinarriko ezagutza, mintzamen taldeak...
- Talde txikiak 6-8
- Teknologia berriak erabiliko dira

www.jabierenostarbaeus

Artzainen eta txakurren lana gertutik ikusteko aukerarik ez aurten

Euskal Herriko Artzain Txakurren Txapelketen Antolatzaileen Elkarteak txapelketa bat bera ere ez antolatzeko erabakia hartu du aurten, osasun larrialdiarengatik

Maidar Arregi OÑATI

COVID-19ak bete-betean eragin du gure artzainen lanean. Aurten ez da 61.a beharko zukeen Nazioarteko Artzain txakur Txapelketa jokatu, Oñatin.

Euskal Herriko Artzain Txakurren Txapelketen Antolatzaileen Elkarteak da EHATE. Bertako kide da Jose Mari Bengoa aretxabaletarra, eta, berak txapelketarekin aurrera egin gura zuela aitortu dion arren GOIENARI, ezinezkoa izan dela azaldu du: "Hainbat batzar egin genituen eta lurraldeka ez egi-

teko erabakia hartu genuen. Txapelketa horietan Gipuzkoa, Arabako, Bizkaia, Nafarroako eta Iparraldeko txapeldunak erabakitzen dira eta horiek Oñatiko Nazioartekoan dira ordezkari. Lurraldeko txapelketarik ezean, Oñatikoa ere ezin da egin. Gainera, protokoloaren baitan zerbaitek gertatuko balitz, ardura hori norbanakoaren gain hartu beharko litzateke. Hortaz, aseguru kontuengatik aurten aurrera ez egitea erabaki dugu, eta arriskurik ez hartzea". Aire librean eta espazio zabaletan

egin ohi dira txapelketak, eta berez egitea bazegoela dio. Hala ere, arriskurik hartu gura izan ez dutela nabarmendu du.

Euskal artzain txakurren geroa

EHATEk, txapelketen antolatzaileen elkarteak, aurten txapelketarik egingo ez den arren lanean jarraitzen duela azpimarratu du, ohar bidez. Facebookeko orriari artzainen testigantzekin osatutako bideoa ere kaleratu dute, haien lana azalera eta bermatu guran: "Aurten EHATEko artzain eta antolatzaileok lehiaketarik ez



Felix Rodriguez de la Fuente, txapelketako irabazleekin (1970). 'GUREGIPUZKOA.EUS'

antolatzea erabaki dugu, osasun egoera dela eta. Hala ere, lanean jarraitzen dugu artzaintzaren geroa eta euskal artzain txakurren geroa bermatzeko. Lagundu nahi diguzu? Edo laguntzarik nahi duzu zure euskal artzain txakurra trebatzeko edo beste zerbaiterako?

HASIERAKO URTEETAN BOST MILA IKUSLE BATZEN ZEN OÑATIKO NAZIOARTEKO TXAPELKETAN

Idatz egiguzu: ehatezuzendaritza@gmail.com", jakinarazi du elkarteak.

Era berean, Bengoa artzainak azaldu du geldi ez direla egon, eta, osasun neurri guztiak bermatuz, ikastaroak antolatu dituztela pandemia garaian. "Beste ikastaroren bat ere antolatu guran gabiltza orain, artzainen lana erakusten jarraitzeko".

Aurrez ere bertan behera
Aurtengoa, ordea, ez da nazioarteko txapelketa bertan behera geratzen den lehen aldia izan.

Javier Pérez
Abokatu

Tel./Faxa: 943 716 766
Mugikorra: 657 796 926
E-posta: jperez@icagi.net

Su ere oñatiarrekin!

Foruen Enparantza 5-6, 20560 Oñati (Gipuzkoa)

LIZARRALDE
KIROLAK

Gu ere oñatiarrekin!

ARRASATE Foruen Enparantza • San Andres auzoa Tel.: 943 79 91 47	OÑATI Olakua 16 Tel.: 943 78 29 86	LEGAZPI Patrizio Etxebarria 2 Tel.: 943 08 28 46
-------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------

Aurrez auzi politikoengatik txapelketarik ez zela antolatu azaldu du Bengoak: "1961etik 1967ra bitartean, ez zen txapelketarik antolatu. Orduan, Txantxiku Txoko elkarteak zuen nazioarteko txapelketa antolatzeko ardura, eta, gai politikoak tartean, ez antolatzearabaki zen urte haietan".

Ikus-min handia

Artzain txakurren txapelketak urrezko aroa bizi izan zuen bereziki 70eko eta 80ko hamarkadetan. Hasieran, Soraluze inguruko belardietan egiten zen; ondoren, Asentzioko zelaietara aldatu zuten. Bertan, bost mila lagun pasatxo elkartzen ziren txapelketa ikusteko. Sasoiko ospetsuak ere ez zuten hutsik egiten; tartean, Felix Rodriguez de la Fuente naturazalea eta Cesar Perez de Tudela alpinista entzutetsua gonbidatu gisa etortzen ziren, eta artzaintzaren munduari eruen babesa erakusten zioten. "Orduko Reyes Korkostegi alkateak lan handia egin zuen, eta berak ekarri zuen txapelketa eredu Kataluniatik. Fraga Iribarne ere ekarri zuen Urbiara, tele-

Oñatiarrak Kataluniako txapelketan

Reyes Korkostegiren eskutik, oñatiarrak ere izan dira Kataluniako Castellar de N'hug-eko txapelketa ospetsuan. "Reyes alkatea gure aitaren oso laguna zen mutikotatik; harreman ona geneukan eta 20 urte beteta ez nituela eraman ninduen Kataluniara. Irabazi ere egin nuen", azaldu du Migel Arregi *Azpilleta* Arantzazuko artzainak.



1971. urtean, Migel Arregi, Castellar de N'hug-eko txapelketan. M.A.



Asentzioko belargunea jendez lepo 1970. urtean. 'GUREGIPUZKOA.EUS'

ferikoa jartzeko asmoz, pentsa! Reyes Korkostegik oihartzun handia eman zion txapelketari. Ospetsuak ekartzen zituen, artzaintzari bultzada eta errekonozimendua eman guran. 70eko hamarkadan, Felix Rodriguez de la Fuente hainbat txapelketa ikustera ere etorri zen".

Kataluniatik Oñatira

Katalunian Agustin Franco izeneko abeltzain batek sustatuta, abeltzainek eta artzainek apustuak egiten zituzten txa-

kurrik onena nork zuen erakutsiz, 1948an hasita. Kataluniako gizartean eta baita bertako prentsan ere oihartzun handia izaten zuen. "Oñatiko mendizale talde batek Kataluniara egindako irteera batean prentsan ikusi, eta Reyes Korkostegiri ekarri zioten albiste. "Izan ere, Reyesek ordurako bazeukan halako zerbaiteko nahia ere buruan bueltaka. Agustin Franco albaitaria ekarri zuen Oñatira, eta halaxe jarri zuen martxan artzain txakurren lehiaketa".

Datorren urtean, bai

Aurten posible izango ez den arren, EHATEko kideek antolaketa lanetan buru-belarri dihardute datorren urtean Oñatin nazioarteko 61. txapelketa jokatu dadin. "Egoerak lagunduko gaituelakoan gaude eta datorren urtean txapelketa guztiak egingo direlako esperantza badaukat. Gure jardueraz guzti-guztia eremu zabalean eta aire librean egiten da, gainera, eta hori aldeko dugu. Egin egingo dela esango nuke", dio Bengoak.



TXOPEKUA

jaletxea / sagardotegia

Gu ere oñatiarrekin!!!

Tel. 943 78 05 71 • Urbarri 5, Arantzazu bidea • 20560 Oñati



COINBROKER

OÑATI

ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

Gertuko zerbitzua momentu zailetan

*Arduraz eta alaitasunez
gozatu egun hauetaz!!*

688 774 531 - WHATSAPP 943 089 006

OINATI@COINBROKER.EUS WWW.COINBROKEREUS

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA, 20560 OÑATI

Karme Uribesalgo OÑATI

San Migel jailetako ekitaldi ia guztiak bertan behera geldituko diren arren, Ilunpetan Argazki Taldeak aurten ere egingo du bere ohiko *Begi bistan* erakusketa. Dozena bat argazki egongo dira ikusgai, Foruen plazako arkupeetan, hilaren 28tik urriaren 6ra arte.

Izan ere, pandemiaren ondorioz bertan behera gelditu diren ekintzak islatu nahi izan dituzte argazkietan. Asier Egaña Ilunpetan Argazki Taldeko kideak azaldu duenez, COVID-19a hartu dute ardatz, baina pandemiaren "beste aurpegi bat" erakutsi nahi izan dute. Katia Madina ere Ilunpetaneko kidea da, eta gaineratu du irudietan ikusten dela zer-nolako aldaketak eragin dituen jendearen egunerokotasunean koronabirusaren pandemiak. Iaz hasi ziren gaia zehazten, ordura arte libreagoa baitzen erakusketaren norabidea. Horrela, "kohesio" bat eman nahi izan zioten *Begi bistan*-i. "Erabaki genuen hobe zela argazki guztiek norabide bera izatea, eta uste dugu horrela ikuslearen begietatik ere zentzu



Danborradarik izango ez dela irudikatu nahi izan dute Ilunpetan Argazki Taldeko kideek. ILUNPETAN ARGAZKI TALDEA

Pandemiak eragotzitako ekintzei omenaldia egin die Ilunpetan taldeak

Ilunpetan Argazki Taldearen 'Begi bistan' erakusketa ikusgai izango da astelehenetik aurrera. Egin izan ezin diren ekintzak bildu dituzte argazkietan

handiagoa duela", azaldu du Madinak.

Erakusketako argazkiak ateratzea esperientzia "interesgarria" iruditu zaio Egañari, gaia ere "berezia" baita: "Polita izan da irudikatzea, adibidez, danborrada ez dela egingo". Izan ere, azaldu duenez, bertan behera gelditu diren ekintzen "birsorkuntza" bat egiten ahalegindu dira. Argazkilariek aitortu dute urte hasieran beste gai bat zutela buruan; hirugarren adinekoekin lotutako irudiak ateratzeko asmoa zuten. Hala ere, COVID-19aren iritsierarekin plan hori aldatu egin behar izan zuten. "Komentatzen hasi ginen ekintza asko bertan behera gelditzen ari zirela, eta konturatu ginen hori adierazi genezakeela argazkien bitartez", azaldu du Madinak.

Bertsoez lagunduta

Txinparta bertso eskolako kideek ere hartuko dute parte erakusketan, eta ikusgai egongo den argazki bakoitzak bertso bana izango du. Hiruzpalau urte daramatzate elkarlan horrekin. Gauzak horrela, argazkiek izen-

Iturgintza
BELOKI

ERAKUSKETAKO ALTZARIEN LIKIDAZIOA!

APROBETXATU AUKERA ZURE BAINUGELA BERRITZEKO!

80, 100 ETA 120 ZENTIMETROKO ALTZARIAK

Bakardadeko Ama kalea 11 – OÑATI
Tel.: 678 46 54 58 / 943 10 52 54

Gu ere oñatiarrekin!

TXANTXIKU

Kale barria 20 • Errekalde 8
OÑATI
Tel.: 943 78 01 54 • txantxiku@telefonica.net

TXANTXIKU
ELEKTRIZITATEA
BETEHARREKO ELEKTRIKOAK

burua izan beharrean, bertso bat dute lagun. "Asko janzten du irudia, eta ikuspuntu boro-bilagoa ematen dio", adierazi du Egañak.

Oñatiarrentzat zita kuttuna da argazki erakusketarena, eta Ilunpetanekoek onartu dute herritarrek ekarpen ugari egin ohi dituztela. Egañak kontatu du herritarrek "kuriostatea" izaten dutela, eta urtero galdetzen dietela ea erakusketarik egiteko asmorik duten. "Pozgarria da

jendeak gure argazkiak ilusioz ikusten dituela jakitea", adierazi du Madinak.

Argazkilari taldekoak gustura daude emaitzarekin, baina Egañak nabarmendu du aberasgarriena izan dela jendearen egoera ezagutzeko aukera izan dutela. Ilunpetaneko kideek eskerrak eman nahi dizkiete eurekin elkarlanean aritu direnei. "Jende askorengana joan behar izan dugu laguntza eske, eta esku zabalik hartu gaituzte", adierazi



Telelana etxean eskolarik gabeko umeekin. IAT



Auzoko jairik eta txorimalorik ez. IAT



Hirugarren adinaren konfinamendua. IAT



Hileta elizkizunik ez. IAT

du Madinak. Behin erakusketa amaituta, Ilunpetaneko kideek adostu dute argazkiak irudietako protagonistei oparitzea. Bai Egañak baita Madinak ere uste dute oroitzapen bat izateko modua dela argazki horiek esku artean edukitzea.

Ekintzak urtean zehar

Mende hasieran sortu zen Ilunpetan Argazki Taldea. Gaur egun, zortzi kidek osatzen dute. Argazkilaritza-zaleak biltzeko aukera ematen duen talde bat da, Egañak azaldu duenez: "Lagun

talde txiki bat gara, eta aukera ematen digu elkartu eta gure jakin-minak partekatzeko".

Urtean zehar hainbat erakusketa antolatzen dituzte, eta, adibidez, bi urtean behin Argi festibala antolatzen dute, argazkilaritza garaikidea zabaltzeko helburuarekin. Besteak beste, hitzaldiak eta erakusketak eskaintzen dituzte jaialdi horren baitan. *Begi bistan* urteroko zita da, taldeak antolatzen duen ekimenik esanguratsuenetakoa. Aurten ere ez du hutsik egingo plazan izaten den erakusketak.



egaralur

Construcciones | Eraikuntza Lanak

50 años-urte
1967 | 2017

- Eraikuntza lanak
- Industria-nabeen eraikuntza
- Obra Zibila - Urbanizazioak
- Industrialde eta etxebizitzaren promozioa
- Etxebizitzaren eraikuntza

Bidebarrieta 17, behea • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 07 15 • Faxa 943 78 08 62 • www.egaralur.net



Gu ere oñatiarrekin!

Bidebarrieta kalea 19, Tel.: 943 78 34 44 OÑATI



OÑATI
dabilen herria



HUTSUN ORTZI



AMAK



OÑATIKO MUSIKA BANDA



OÑATIKO TXISTULARIAK



IKER LAUROBA

Saur zaindu dezagun, bihar ere izateko



TIO TERONEN SEMEAK



ZIRTAKA



JULEN ALONSO



PURO RELAJO

SANMIGELAK EZ-JAIAK 2020 ARETXABALETAN



Durana
Hartz Klinika

Zu ere aretxabaletarrek!

Durana
Hartz Klinika

Odontologia estetikoa	Ortodontzia
Endodontzia	PADI zerbitzua
Inplantologia	Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55

FIPS: 83/19

Jone Olabarria ARETXABAETA

San Migel jaien bueltan aretxabaletar askoren ohitura izaten da taloa jatea. Aurten, Loramendi elkarteak ez du urteroko posturik jarriko, baina elkartekoek ez dituzte aretxabaletarrak taloa probatu barik utzi gura izan.

Hala, joan den asteko zapatu goizean, talo-orea egiten eta taloa jotzen ibili ziren, gero plastikotik sartu eta hurrengo egunetan eskaria egina dutenei banatzeko. Ez dira gutxi izan, gainera, eskaria egin duten herritarrek: 100 inguru. "Norberak etxean berotu eta jateko izango da, baina gustura gaude izandako erantzunarekin", azaldu zuen Eñaut Zubizarretak, taloak plastikotik sartzen zebilela zapatu goizean. Sarta bakoitzean hiru talo sartu dituztela kontuan hartuta, 300 inguru egin dituzte bi txandatan banatuta lan egin duten 25 lagun inguruk.

Erantzun oparoa

Bi txandatan banatuta egin dituzte aurtengo taloak eta, guztira, 25 lagun inguru aritu dira lanean. Aurten, norberak etxean bukatu beharko du taloa, baina,

Sanmigelik gabe ere, taloa dastatzeko aukera

Loramendi elkartearen ekimenez, herritar talde bat talo-orea egiten eta forma ematen ibili zen joan den zapatu goizean Aretxabaletan. Aurten ere jaiak izango ziren egunen bueltan herritarrek taloak jatea da horiek egiteko ekintzaren helburu nagusia



Herritar talde bat, joan den asteburuan, jaietarako taloak prestatzen. TXOMIN MADINA

Zubizarretak azaldu duenez, herritarrei sanmigeletako "plazer txiki hori" mantentzeko aukera eman nahi izan diete. "Ekintzaren helburua zen presentzia izan eta jairik egongo ez den arren keinu txiki bat egitea. Urteetan zehar erantzun oso ona izaten dute taloek, herritarren gustukoak dira, eta lanera ere batu dira asko, hortaz, ederto".

Zapatuan egin zuten taloen orea plastikotik mantendu dute hozkailuetan, atzora arte. Loramendin bertan egin zuten atzo banaketa, eta eskaria egina zutenek hiruko paketetan sartuta eta taloa betetzeko jeneroarekin batera jaso dute.

Urteroko ohiturari eutsiz

Jobita Artabe da urtero San Migel jaietan taloa egiten egoten den lagunetako bat; azaldu duenez, bertan ikasi zuen taloa egiten, San Migel jaien aitzakian. Joan den zapatuan ere horretan ibili zen: artoaren irina, ur beroa eta gatza hartu eta eskuekin eman eta eman, taloaren orea behar den modukoa egiten. "Jaietan taloa egitea sakratua da niretzat. Gaur ez nintzen etortzekoa, gazteen kontua zelakoan, baina, azkenean, animatu egin naiz. Egin dut, eta oso pozik geratu naiz, gainera!".

Herritarren artean preziatua

Hala ere, ohiko jaiak faltan igarri dituela aitortu du Artabek: "Giroa ezin da alderatu, baina konformatu egin beharko dugu". Berarentzat taloa egitea "sakratua" dela azaldu du: "Ilara luzeak izaten ditugu, normalean, geratu gabe aritzen gara taloak egin eta herritarren artean banatzen; lan handia da, baina oso gustura egiten dugu". Seguru hurrengo egunetan taloa janaz jaien zaporea gogoratzen dutenek eskertuko diotela egindako lana.

Jon Harategia

Gu ere aretxabaletarrekin!

Durana 15 • Aretxabaleta • 943 79 71 69

"Azokek berreskuratuko dute betiko martxa, ziur"

MARIAJE REVUELTA EKOIZLEA

Sanmigel jairik gabe, hitzordu maitatuenetakoa izaten den azoka ere ez dute egingo Aretxabaletan. Bertan egon ohi diren ekoizleen egoera azaldu du Revueltak

Jone Olabarria ARETXABAETA

Sanmigel jaietako egun handiko protagonista da urtero barazkiak, artisautza produktuak eta ganadua biltzen dituen Artisautzaren eta Nekazaritza Ekologikoaren Azoka, eta bertan ohikoak dira Mariaje Revuelta eta bere ortuko produktuak. Aurten, baina, huts egingo dute: azoka bertan behera geratu denez, ezingo dituzte udako produktuak bertan eskaini.

Zenbat urte daramatzazue sanmigeletako azokan parte hartzen?

Urte mordoxka bat, zazpi edo zortzi urte inguru daramatzagula esango nuke, baina ez dakit ziur esaten. Asteroko azo-



Mariaje Revuelta Eskoriatzako Eraña auzoan duen ortuan. A.A.

ketara ez gara joaten, baina, azoka bereziei dagokienez, hainbat hitzordu izaten ditugu urtero: Donostiara joaten gara Biolurrek antolatutako azokara, Leintz Gatzagan eta Eibarko produktu ekologikoen azokan ere izaten gara.

Azoka bereziez gain, kontsumo taldeekin ere egiten duzue lan...

Bai; kontsumo taldeekin jarraitzen dugu, eta konfinamendu garaian bereziki horrekin aritu gara lanean: gure bezeroei saskiak helarazten genien, eta oso eskertuta agertu dira denak, orokorrean. Sasoiko eta bertako produktuez gozaten jarraitu ahal izateko aukera eskaini zaie saskien bitartez.

Salmenta puntu garrantzitsua izaten da zuentzat sanmigel jaietako azoka Aretxabaletan?

Bai, urteko hitzordu garrantzitsuenetakoa bat izaten da sanmigeletakoa. Pena da aurten bertan ezin egotea. Leintz Gatzagako azoka ere aurten, esaterako, bertan behera geratu da eta Eibarren, ziur ez dakigun arren, uste dut ez dutela egingo. Azokak oso modu berezian egiten ari direnez, saskiek edota kontsumo

taldeek hartu dute garrantzi berezia; Arrasateko Ereindajenera eta Aretxabaletako Kiloka dendara ere eramaten ditut.

Uda sasoiko produktuekin zer moduzko uzta izan duzue aurten?

Aurten, bero larregi egin du udan, eta, tamalez, hainbat produktu hondatu egin dira; aurreko urteetako baina okerragoa izan dela esango nuke.

Oraingo egoera ikusita, nola uste duzue egingo dutela aurrera jaietako azokek?

Nik uste dut egoera animatuko dela. Baikorra naiz eta koronabirusa aurtengo kontua izango dela uste dut. Datorren urterako birusa ea apur bat gehiago menderatzen dugun eta normaltasuna berreskuratzen dugun. Azokak bueltatuko dira bere ohiko martxara, ziur.

Ohiko egoeran badute osasuna azokek?

Bai; herritarrei asko gustatzen zaie azoketara joatea eta beti batzen da jende mordoxka bat hauen bueltan. Bertako produktu freskoa kontsumitzea bereziki baloratzen dute herritarrek. Hori da, behintzat, nik hemen inguruan ikusten dudana.

San Migelak!!

EGUZKIGRAF
inprimategia

...beti herritarren alboan

Aupa Aretxabaleta!!

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com



Iazko sanmigeletan herriko plazan egindako kantu afariak 600 lagun batu zituen mahaiaren bueltan. IMANOL SORIANO

Urtetik urtera errotuz joan den kantu afaria

Sei Pistols & Trabuko Bat taldearen eskutik klasiko bilakatu da dagoeneko jaietan herriko plazan egin ohi duten kantu afaria. Hitzordu maitatua izanik, taldeko kideek "penaz" hartu dute aurten taula gainera ezin igo eta herritarrekin musikaz gozatzea

Jone Olabarria ARETXABALETA
Iazko sanmigela jaiak ospatzeko asmoz 600 lagun inguru batu ziren bapoz afaldu eta euskal kantuak abestuz. Giro ederrean abestu zituzten betiko kantu tradizionalak, Sei Pistols & Trabuko Bat taldearen musika doinuekin, baina aurten, afaria eta emanaldia egitea ezinezkoa

izanik, taldeko kideek "penaz" hartu dutela azaldu dute.

2013. urteko San Juan jaietan ekin zioten sei lagunek proiektuari, baldintza berezi batekin: Arrasaten eta Aretxabaletan baino ez dituzte eskaintzen emanaldiak. Aitor Ziardegi Sei Pistols & Trabuko Bat taldeko kideak azaldu duenez, muga bat jartzea

garrantzitsua zen: "Hainbat herritarrek eskaintzak jaso ditugun arren, Arrasaten eta Aretxabaletan bakarrik eskaintzen ditugu emanaldiak, sanjuanetan eta sanmigeletan". Sei lagun hasi baziren ere, bederatzi dira orain, eta, "apurka, herritarren artean finkatuz" joan dira; batez ere, Aretxabaletako kasuan.

Euskal kantuak eta bertsioak

Lehen urteetan "inprobisazio hutsa" zela aitortu dute: "Taula gainera irten eta esaten genuen, 'zer abestuko dugu?'. Bat aukeratu eta han hasten ginen, apur bat jolasean bezala". Denborak aurrera egin ahala nolabait "profesionalizatu" egin zirela azaldu dute.

"Musu-truk egiten genuen lehen emanaldi haietan, afariaren trukean. Gero, denbora gehiago dedikatzen joan ginen heinean ere, talde modura finkatuz joan ginen". Hasieran, kantu tradizionalak ziren taldeko erreperitorioaren oinarri, baina azken urteetan euskal abesti berriak gehituz joan direla azaldu dute, "publiko gaztea erakartzeko asmoarekin". Abesti berriak prestatzeko denbora behar dutela adierazi dute, eta nahiko luke tena baino "aukera gutxiago" dituztela azaldu dute: "Hala ere, saiatzen gara urtero pare bat kantu berri gehitzen".

Herrien arabera, ezberdin

Herritarren artean duten harreara Arrasaten eta Aretxabaletan ezberdina dela aitortu dute: "Azken urteetan, lortu dugu Goizalde plaza betetzea Arrasaten, baina, hasieran, dezente kostatzen zitzaigun. Aretxabaletan, berriz, herri osoa etortzen da".

Publikoaren profilaz galdetuta, Aretxabaletan "denetik" joaten dela azaldu du Ziardegik: "Publiko nagusiagoa, gazteagoa,

familiak... herritar asko eta profil ezberdinekoak batzen dira sanmigeletan, denetik".

Bertsioekin konforme

Hileroko azken ostiralean egin ohi duten kantu-poteorako bereziki sortutako kantu bat ere gehitu dute abesti sortara: "Konfinamenduan bideo bat egin genuen abesti horrekin, eta orain, emanaldietara gehitu nahi izan dugu". Abestiak egiten hasi zitezkeela azaldu dute, baina denbora faltagatik eta bestelako betebeharrak eraginda erabaki zuten bertsioetara mugatzea taldearen emanaldiak. "Horrekin konformatzen gara".

Hala ere, aurten ez dute taula gainera igotzeko aukerarik izan Sei Pistols & Trabuko Bat taldeko kideek, ez Arrasaten, ez Aretxabaletan. Egoera honetan "penatuta" bizi dituztela jaiak azaldu dute. "Herrian bertan jendeak ere galdetzen digu ea hori ere ez den egingo aurten, baina, bueno, itzuliko gara taula gainera. Urtean bi kontzertu ematen ditugu, baina aitzakia polita izaten da elkartu eta denok batera ondo pasatzeko mahaiaren bueltan".

"PUBLIKO ZABALA BATZEN DA KANTU AFARIAN: GAZTEAK, NAGUSIAGOAK... DENETIK APUR BAT"



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

**Gu ere
herritarrekin!**

Aretxabaletako campusa
Otalora 31
20555 Aretxabaleta

Eskoriatzako campusa
Dorleta auzoa, z/g
20540 Eskoriatza

943 71 41 57
harrera.huhezi@mondragon.edu
www.mondragon.edu

LEIBAR
ARRAINDEGIA



Gu ere aretxabaletarrekin!

ARETXABALETA • Mitarte 1 • Tel.: 943 77 13 79



Aretxabalelako komertzioa bizirik!
Gu ere aretxabaletarrekin!
Egin dezagun aurrera denok batera!





Aretxabaleta Abesbatzako kideak, iaz, Arkupen, entsegu une batean. ARETXABALETA ABESBATZA

Lehen kontzertuaren zain, etxetik lanean

2020rako zituen asmo guztiak atzeratu beharrean izan da Aretxabaleta Abesbatza; horien artean daude San Migel jaietako kontzertua eta 40. urteurreneko ospakizunak. Era berean, argi dute zelan itzuli, COVID-19ak jotakoak oroitzeko ekitaldi batekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Zarzuolak, euskal kanta herri-koiekin osatutako kontzertuak, mexikar doinuak oinarri dituen ikuskizuna, Benito Lertxundiren

omenezko ekitaldia... Aretxabaleta Abesbatzak 20 urtetik gora daramatza San Migel jaiak girtzen, eta herritarrek harrera beroa egin izan diete beti. Aur-

ten ez da halakorik izango. Uztail hasieran erabaki zuten bertan behera uztea, eta Udalari jakinarazi zioten. "60 urtetik gorako kideak asko gara; hau

da, arrisku taldekoak. Eta osasun gorabeheratxo batzuk ere izan ditugu; hortaz, 2020an ez egitea erabaki genuen", adierazi du Angel Barandiaran zuzendariak.

Entseguekin hasteko gogoz

Azken hilabeteotan apenas egin dute entsegurik; hala ere, ez dira geldi egon. "Telanean gabiltzala esan daiteke, nor bere etxetik. Orain ere bi partitura prestatu berri ditut: Beethovenen *Alaitasunaren oda* eta bakarlarientzat Ennio Morricone konpositorearen *Nella Fantasia*". Etxean egindako lana garrantzitsua izanda ere taldeko entseguak ezinbestekoak direla

aitortu du, eta zelan ekin berriro entseguei pentsatzen dabilta: "Udalaren babes osoa dugu, eta lokalen bat behar izanez gero eskatzeko esan digu. Baina oraindik ez dugu zehaztu noiz eta zelan hasi".

Agertokirako itzulerak egunik ez izan arren, badakite zelako kontzertua izango den lehenengo hori: COVID-19ak jota hildakoak omenduko dituen ekitaldia. "Azken hilabeteotan hil direnak izan gura ditugu gogoan", dio Barandiaranek, eta gaineratu du: "Eta ez dakit Gabonetarako zerbait berezia antolatu ahal izango den...".

40. urteurrena, atzeratuta

Aretxabaleta Abesbatza 1980an sortu zen; hortaz, aurten 40. urteurrena ospatzea zegoen: "Hainbat asmo genituen: kontzertu batzuk eskaini, Mozarten koroatze meza abestu eta erakusketa bat gertatu, egindako bidaien, kontzertuen eta irabazitako garaikurren berri jasoko duena. Hori guztia, baina, atzeratu egin dugu. 41 urte izango dira datorren urtean, baina horixe ospatuko dugu".

Artisau-ogia,
etxean bertan egina

25 urte

Gu ere aretxabaletarrekin!

ARETXABALETA
OKINDEGIA

Basabe poligonoa 2 ARETXABALETA Loramendi 6



Ezkontideak, aita ponteko eta ama pontekoarekin.



Abadea, laguntzaileekin Loramendi kalean. ARGAZKIAK: MARI NATI OLABE

Sasoi bateko euskal jaien giroa berreskuratuz

Bi aldiz antzeztu dute euskal ezkontza herrian, 1960an lehenengoa eta 1990eko sanmigeletan bigarrena; 30 urte pasatuta, hirugarrenez egitea zen Udalaren asmoa, baina atzeratu beharrean izan dira pandemiaren eraginez

M.A. ARETXABAETA

Sasoi bateko euskal giroko jai berreskuratu nahian hasi zen antolatzen Aretxabaletako Udalak San Migel jaiak irailera azken aste bukaeran, orain dela 30 bat urte. Ezkontza antzeztu zuten lehen urtean eta bataioa hurrengoan; handik aurrera, erromeria giroa ekarri gura izan zen kale bazterretara, eta azoka egoten da urtero. Dena den, antzinako jai giro hori berreskuratzen aitzindaria 1960an egindako ezkontza izan zen.

Herriko kuadrilla batek sustatu zuen ezkontza hura. Ekainaren 19a izan zen hautatutako eguna eta ezkontideak izan ziren Milagros Urreta eta Jabier Iturbe; kalerik kale joan ziren futbol zelairaino, gonbidatuek lagun eginda, eta han ospakizuna egin zuten.

Ezkontza, Herriko Plazan

Bigarren ezkontza handik 30 urtera egin zuten, 1990ean, eta oinarri hartu zuten aurretik egindakoa. Udalak bultzatu zuen eta herritarrek lanerako gertu agertu ziren. Ezkontideak izan ziren Amaia Garcia eta Isidro

Serrano; aita pontekoa, oster, Joseba Lasagabaster, eta ama pontekoa, Mari Nati Olabe. Hark gogoan du zelakoak izan ziren antolatze lanak: "Herritar mordoak hartu genuen parte, eta norbera arduratu zen bere janztekoa topatzeaz. Ni, esaterako, soineko beltzarekin joan nintzen, eta buruko txiki bat neraman, hori ere beltza". Abade papera Jose Antonio Zubizarretak egin zuen eta haren laguntzaileak izan ziren Iosu Otxoa eta Ekaitz Filarmendi. Futbol zelaitik Herriko Plazara joan ziren, han ezkontzeko. Ikusmin handia piztu zuen herrian, eta sekulako giroa sortu zela du gogoan Olabe: "Bukatutakoan, Durana kalean afaldu genuen guztiok".

Hirugarrena, atzeratuta

Udalaren asmoa zen hirugarrenez antzezte ezkontza hori aurtentzen, eta, horretarako, herritarrei dei egin zien urte hasieran. "Gero, baina, etorri da pandemia eta bertan behera utzi behar izan dugu. Asmoa hor dago, baina jakin ez noiz egin ahal izango dugun", adierazi du Ainhoa Caberok, Kultura zinegotziak.



Mobiliario
ARENAZA altzariak

Bizkaia kalea 1 ARETXABATETA
Tel./Faxa: 943 79 08 07
mobiliarioarenaza@hotmail.com

■ **Altzariak**
■ **Diseinua**
Apainketa

*Su ere
aretxabaletarrekin!*



Herrikidek, ARLO GUZTIAK landuz, jabeen komunitateen kudeaketa lan egiten du; jabeen lasaitasuna bermatuz eta, betiere, zerbitzuan PRESTUTASUN osoa bilatuz.

Hurbil egoteak ematen duen erosotasunaz baliatuz -Aretxabaletan gaude- zure komunitatea zentzuz eta arduratsu kudeatzen dugu. Horretaz aparte, beste balio bat dugu: eraikuntzan eta lan arloen zuzenketa urte askotako esperientzia (ezbeharrak, dokumentazioa, laguntzak...)

Gu ere aretxabaletarrekín!

Herrikide
Komunitateen kudeaketa

Basabe,4 - EO-11 20550 Aretxabaleta
Tel./Faxa: 943089875 / Tel: 679455764
herrikide@outlook.com
www.herrikide.net



IOSU
harategia • taberna

Urdaitegia-gozotegia • Kroasantegia • Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08

Gu ere aretxabaletarrekín!

Zintzilikarioak egokituko dira zerbitzua hobetzeko

Debagoieneko Mankomunitateak onartu egin du Antzuolako Udalak eginiko eskaera. Hala, zintzilikarioak egokitu egingo dituzte, eta gaika sailkatutako hondakinak biltzeko zerbitzua hobetu. Udalak herritarrendako sentsibilizazio kanpaina abiatuko du

Maidar Arregi ANTZUOLA

Debagoienean, Antzuolan ezarri zen lehengo hondakinak gaika sailkatzeko sistema; Gipuzkoako laugarren herria izan zen Antzuola atez ateko sistema abiarazten. Usurbilen, Hernaniren eta Oiartzunen ondotik. 2011ko martxoan. Orain, zerbitzuak ia hamarkada bete duen honetan, atez ateko zintzilikarioak berregokitu egingo ditu Debagoieneko Mankomunitateak, Antzuolako Udalaren eskariz.

Helburua hondakinak biltzeko zerbitzua hobetzea da. Martitzen, Mankomunitateak onartu egin zuen zintzilikarioen berregokitzea. "Ohartuta geunden behealdeko tokian ez dela zintzilikatzen zegoen poltsa edo ontzia. Lurrean uzten ziren eta animaliek dena zabaldu eta zikindu egiten zuten ingurua. Horrek behealdeko tokia kendu eta zintzilikarioan egokitzea ekarri du", argitu du Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateak.

Berrerabilitakoak

Bere garaian Bergaran eta Aretxabaletan kendu zirenak egokituko ditu Mankomunitateak. Guztira, 37 zintzilikario jarriko dira. Orain dauden guneak mantendu egingo dira, baina Irimoiko baserriendako aukera egon-



Sagasti auzoko zintzilikarioa. MAIDER ARREGI

BERGARAN ETA ARETXABALETAN KENDUTAKOAK APROBETXATUKO DIRA ANTZUOLAN

go da, zintzilikarioak jartzeko tokia aurrez ezarrita baitago.

COVID-19aren krisia

Pandemia betean herritarrek hondakinak ez dituztela behar bezala sailkatu aitortu du alka-

teak: "Gezurra badirudi ere, osasun larrialdian hondakinak biltzeko sistema guztiek, ez soilik atez atekoak, behar dira izan dute bileran. Orain, berriro igo da sailkatze tasa, zorionez".

Mankomunitateak ondorengo egunetan ordezkatuko ditu zintzilikario berriak eta kostua bere gain hartuko du. Egoera aprobetxatuta, Antzuolako Udalak herritarrendako sentsibilizazio kanpaina egingo du, hondakinen atez ateko biltzeko sistema ahalik eta hoberekin egiten jarrai dezaten.

Kutxabanki zerbitzua ez murrizteko eskatuko diote gaur

11:00etan, Landatxoeko erretiratuek herriko banketxeko arduradunari gutuna helaraziko diote

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Kutxabanken bulegoak zuzeneko arreta zerbitzua murriztu du. Hala, zerbitzuaren zati bat Bergarako bulegora eroan du. Hori dela eta, herriko erretiratuen eta pentsiodunen elkarrekin Landatxoeko desadostasuna helarazi du. "Banketxearen irabaziek ez dute murrizketa justifikatzen. Adinekoak diskriminatzen ditu, Internet bidez ezin baititugu zenbait operazio egin", argitu dute.

Hala, gaur, egubakoitza, 11:00etan, Antzuolako bulegoko

zuzendariari euren eskaera aintzat har dezaten eskatuko diote. "Gutuna Donostian dagoen Gipuzkoako bulegoen arduradunari eramateko eskatuko diogu".

Kutxabanke, berriz, GOIENARI jakinarazi dio erabakia gizarteak egun dituen beharrak aztertuta hartu dutela. "Digitalizazioaren aroan gaude eta online egiten dira operazio gehientsuenak. Pandemiak, gainera, sustatu egin du sarearen erabilera. Hala ere, herriko adinekoak aintzat hartuz, astean bitan bulegoa irekiko dugu".



ANTZUOLAKO UDALA

Kamioikada bat zabor errekan

Herri barrutik igarotzen den erreka garbitzeko auzolanerako deiak erantzun aparta izan du, beste behin. Joan den zapatu goizean, 12 helduren eta 6 gaztetxoren artean egin zuten-eta erreka garbiketa. "Kamioikada bat zabor atera genuen elkartu ginen herritarren artean. Eskerrik asko egindako lanarengatik!", adierazi du Antzuolako Udalak.

OHARRAK

Lagun arteko partidua

Antzuolak eta Urolak 10:30ean jokatu dute lagunarteko partidua, Eztalan. Denboraldia urriaren 18an abiatuko dute.

Kurutzeberrira irteera

Bihar, zapatua, Arrolak Kurutzeberrira egun osorako irteera antolatuko du. Izena emateko derrigorra da mezua bidaltzea arrolamt@gmail.com helbidera.

Elikagaien biltzea Lesbosera bidaltzeko

Moria kanpalekuko errefuxiatuei laguntzeko elikagai biltzea egingo da. Amaia, Eroski eta Aixa dendetan batu daitezke. Zapatuan 12:00etan denak batuko dituzte Abadia etxean.

Txakur eta animalia galduen bazka

Herritarrek Udalarari helarazi diote animaliek lurrean dauden hondakinen poltsekin egiten dutenaren gaineko kexa. Zintzilikarioen behealdeko poltsak apurtu eta ingurua zikin uzten dutela salatu dute. "Txakurrak, katuak eta arratoiak ibiltzen dira, poltsak lurrean uzten baldin badira; inguru guztia zikin-zikin uzten dute, eta poltsa barrukoak barreiatu".



Txakur galdu bat zabor poltsa artean. ANTZUOLAKO UDALA



Sabino Ormazabal, Iñaki Madinabeitia, Silvia Mendibil, Bertha Gaztelumendi eta Ander Bolibar, eguazteneko saioan. J. BEREZIARTUA

Borroka antinuklearraren sorreraz, nazioarteko eta Debagoieneko prismatic

'Ez, eskerrik asko. Gladysen leihoa' dokumentalaren emanaldia aprobetxatu zuten Udalak, Bergara Bizirik-ek eta ZinemaOn taldeak, duela 40 urteko zentral nuklearren aurkako borroka aritzeko, Bergaran eta eskualde osoan egin zena ere aintzat hartuta

Jokin Bereziartua BERGARA
Pandemiagatik martxoko emanaldia suspenditu ostean, eguazten iluntzean heldu zen Bergarako Seminarixora *Ez, eskerrik asko. Gladysen leihoa* dokumentala. Udalaren, Bergara Bizirik-en eta ZinemaOn taldearen arteko elkarlanari esker heldu da borroka antinuklearra kontatzen duen lana Bergarara. Bergarako emanaldian izan ziren Bertha Gaztelumendi dokumentaleko zuzendaria, Sabino Ormazabal gidoilaria eta Bergarako den Silvia Mendibil ekoizlea; Bergara Bizirik taldeko Iñaki Madinabeitiak bertako errealtatea kontatu zuten.

Hiru zentral nuklear euskal kostan
1980ko hamarkada hasieran mugimendu antinuklearra puripuritan zegoen nazioartean, eta baita Euskal Herrian ere. Kos-

taldean eraikitzeaz ziren Lemoizko, EAko eta Debako hiru zentraleraino gain, Arguedasen beste bat egiteko asmoa zegoen. Horren aurka egiteko, mobilizazioak antolatatu ziren Tuteran. Gladys del Estal Tuterara joan zen, baina ez zen itzuli; manifestazio baketsu hartan, guardia zibil baten tiroak erail zuen. Filmak orduko gizartearen onspena lortu zuen mugimendu sozialaren erretratu bat egiten du.

Oso harrera ona Euskal Herrian
Euskal Herrian zehar 40 bat emanaldi egin dituzte dagoene-


EGILEAK OSO POZIK DAUDE FILMAK EUSKAL HERRI OSOAN ZEHAR IZAN DUEN HARRERAREKIN

ko. Bertha Gaztelumendi zuzendariak dioenez, espero baino harrera beroagoa izan du: "Akaso, gaizki dago guk esatea, baina oso harrera ona izan du filmak. Aretoak bete egin ditugu; Donostian, adibidez, 500 edota 400 lagun elkartu izan ditugu emanaldi ezberdinetan. Iruñean, euskaraz egindako saioan ere jende asko batu zen. Oso martxa onean zihoazen proiektzioak, COVID-19a iritsi zen arte. Baina oso pozik gaude, interes handia piztu du eta".

Aitzindariak ekologismoan
Gizartea ingurumenarekin askoz kontzientziatuago dagoela argi dauka Gaztelumendik: "Ez nuklearren aurka bakarrik, beste hainbat arlotan badira aurrerapausoak. Eta hori garai bateko borrokan aitzindariak izan zirenei eskertu beharrean gaude".

"Duela 40 urte ez genekien ia ezer ekologiaz"

BERTHA GAZTELUMENDI
DOKUMENTALAREN ZUZENDARIA



J.B.

Zer kontatzen du filmak?

Gladysen erailketa kontatzen du, eta baita zentral nuklearren aurkako borroka nolakoa izan zen ere; Euskal Herrian, Europan eta munduan. Oso mugimendu anitza izan zen, sormen handikoa eta kolore zein ahots askotakoa.


Badu beste helbururik?

Batetik, 23 urteko Gladys moduko neska bat horrela erail izana eta gaur egun oraindik ere biktima moduan aitortua ez

izatea salatu eta biktimatzat onartu dezatela eskatu nahi dugu. Gainera, transmisio lana ere egin nahi dugu, egungo gazteriak ezagutu dezan zer gertatu zen duela 40 urte. **Ordukoa da egun ekologiaz dugun ikuskera?** Duela 40 urte gizarteak ezer gutxi zekien ekologiaz. Garai hartakoak dira lurraren eta bizitzaren aldeko mugimenduak. Gaur egungo egoera ulertzen laguntzen du dokumentalak.

"Orduko lobbyek bizirik diraute gaur egun ere"

IÑAKI MADINABEITIA
BERGARA BIZIRIK-EKO KIDEA



J.B.

Bergarak eta Debagoienak ze paper jokatu zuten borroka antinuklearrean?

Debako zentrala horren gertu egongo zela jakiteak sekulako zukurutza sartu zuen eskualdean. 1972an izugarritzko mugimendua hasi zen; ez bakarrik talde antolatuetan, norbanako gisa ere jende asko mugitu zen. Geroago sortu ziren komite antinuklearrak. **Borrokak emandako fruituekin pozik zaudete?**

Asko ikasi, ikusi eta sufritu zen. Inor mugitu izan ez balitz, hiru zentral nuklear izango genituen euskal kostaldean; non egongo ginen gaur egun? Baten batek esan zuen azak jango genituela... Baina nongo azak? Euskal Herrikoak, behintzat, ez. **Belaunaldi berriak jakitun dira orduko egoeraz?** Halako dokumentalek asko laguntzen dute. Hori bai, orduko lobbyek gaur egun ere bizirik diraute...

ZinemaOn: ikasturte berrirako gertu

2019. urtearen amaieran sortu zuten herriko zenbait zinemazalek ZinemaOn taldea, Seminarixoan ohiko eskaintza harago pelikulak eskaintzeko asmoz. *Ez, eskerrik asko. Gladysen leihoa* izeneko dokumentalaren proiektzioa lotzen lagundu zuten, baina urrian abiatuko dute ikasturtea. Ohiko zinema eskaintza asterokoa izango da astelehenetan eta domeketan, eta hilean behinekoa egubakoitzetan. ZinemaOn taldearen zinekluba, berriz, eguazteneko elkartuko da Seminarixoan (20:00), eta, GOIENARI aurreratu diotenez, asmoa dute ikasturte honetan ere hilean behin emanaldi bereziren bat egiteko; solasaldi bat antolatuta, pelikulako lantaldeko kideren bat gonbidatuta... Gogora ekarri behar da Seminarixoko edukiera 130 laguneko dela, pandemiak eraginda.

Banda gosea handitu du sei hilabeteko etenaldiak

Ikusmin handia piztu zuen irailaren 20an bandak Boluko frontoian lehen aldiz eman zuen kontzertuak, 90 lagunendako muga berehala bete eta kanpoan jendea pilatzeraino; urriaren 18an eta azaroaren 22an udal frontoian joko dute, 300 laguneko edukierarekin

Jokin Bereziartua BERGARA

Asko kostatu da, baina itzuli da Bergarako banda. Eta irailaren 20ko kontzertu bereziak izan zuen harrera ikusita, bergararrak banda gosez zirela ez dago dudarik. Jende asko elkartu zen, pandemiak eragindako frontoi barruko 90 laguneko edukiera berehala betetzeraino –ez zegoen alde aurretiko sarrerarik eta ikusleak heltzeaz bat joan ziren harmailetan esertzen–.

Berezia, hainbat arrazoiengatik

Zuzeneko berezia izan zen hainbat arrazoiengatik. Batetik, Boluko frontoi estalian lehen aldiz jo duelako bandak bere historia luzean. Era berean, jai-rik izan ez bada ere, Miguel Gonzalez Bastidaren sanmartinetako ereserkerik ez zen falta. Eta, azkenik, Jose Mari Arrondo ere omendu zuen bandak; Boluko jaien sustatzaile nagusietako bat eta bandako tronpajotzaile 50 urte baino gehiago aritu zen Arrondo. Bandako kideak zutik, txalo zaparrada hunkigarria jaso zuen hark.

Pilaketak frontoi kanpoaldean

Barruko edukiera bete zenean, herritar batzuek frontoiko alde batetik jarraitu zuten kontzertua, distantzia gabeko pilaketak sor-




Banda gosea zegoela islatzen duen irudia: 90 laguneko edukiera berehala bete zen. I.S.

tuz. Udala horren jakitun da, eta etorkizunerako ze neurri hartu aztertzen ari dira. "Frontoi barruan segurtasuna bermatzea izan zen gure lehen tasuna. Kanpoko kontrolatzen saiatuz gero ere, ezin da ahaztu eremu publiko delako eta gure hori etxeetarako pasabidea dela; beraz, ezin dugu itxi. Udaltzainekin egon nahi dugu etorkizunean ze neurri har ditzakegun baloratzeko. Argi utzi nahi dugu gure eskuetan dagoen guztia egingo dugula jende pilaketa gehiagorik ez dadin izan, baina norbera ere bada

pilaketon erantzule; erantzukizunez jokatzeko denoi dagokigu", dio Kultura zinegotzi Kristina Markinak. Urriaren 18an eta azaroaren 22an udal pilotalekuan joko du bandak, eta gehienez 300 lagun sartu ahalko dira.

Gonzalez Bastida: 100 urte jaio zela

Bihar, irailak 26, 100 urte beteko dira Miguel Gonzalez Bastida jaio zela. Bandak omenaldia egitea zuen aurreikusita, baina, pandemiaren egoerak eraginda, bihar ez dute kaleko ekitaldi publikorik egingo.



J.O.

"Jendaurrean berriro jotzea itzela izan da"

ENRIKE TXURRUKA
BANDAKO ZUZENDARIA

Gustura itzulerarekin?

Berriro jendaurrean jotzea zen lehen helburua, asko kostatu da eta. Protokoloei buelta ugari, zalantza asko... baina itzela izan da. Lehen konpasak entzuteaz bat hunkitu egin naiz eta amaierako erreakzioak ikusita publikoak ere gozatu du. Oso pozik gaude.


Boluko frontoia estreinatu duzue. Zelan?

Toki berri baten jotzerakoan beti dago beldur puntu bat. Kontzertuaren aurreko probaldietan oihartzun handiagoa bazegoen ere, jendearrekin oihartzuna txikitu egin da. Ez da gure lekua, baina balekoa da.

Bazegoen banda gosea...


Denok gaude laga behar izan ditugun zaletasunak berreskuratzeko gosez, eta berreskuratzeko hori zenbat eta kontrolatuagoa izan, orduan eta hobeto. Denok gustura geratzeko itzulera izan da.

Boluko frontoia egokia da bertan jotzeko?



ANDONI BADIOLA
KLARINETE-JOTZAILEA

"Gustatu zaigu. Entseatu dugunean oso indartsu irteten zen soinua, eta egoera berrira egokitu egin behar izan dugu. Gero, baina, kontzertu kuriosoa irten zaigu. Publikoarentzat oso edukiera mugatua bazegoen ere, gustura geratu direla esango nuke".



MAITANE JUARISTI
KLARINETE-JOTZAILEA

"Soinu aldetik pozik geratu gara. Orain Zabalotegin ari gara entseatzeko, eta areto horretako soinuarekin alderatuta badago alde. Kontzertu hunkigarria izan da, San Martin jaietako abesti eta guzti. Hurbildu direnak gustura egon direla igarri dugu barrutik".

Bidegorria hobetzeko lanak

Gureak pareko biribilgune bidegorriaren egoera hobetzeko lanean aritu dira asteon. Guneko irisgarritasuna hobetzeko, koska kendu diote bidegorriko zebraideari, eta espaloian eta areketan ere aritu dira lanean. Ibilgailuen zirkulazioan ez dute eraginik izan, baina oinezkoak eta txirridulariak pasatzeko saihebside bat jarri dute bidegorrian bertan.



JONE OLABARRIA

Proiektuak · Koltxoiak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurritan
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Enpresa Registrada: 1100/025

Udala berrantolatu dute, "hobeto erantzuteko"

Herritarren "gaur egungo beharretara" egokitzeko 14 batzordetarik hiru izatera pasatu da Udala; antolaketa berriarekin modu "eraginkorragoan eta koordinatuagoan" emango dute zerbitzua; eredu hau martxan dago Tolosan, Legazpin eta Zarautzen, besteak beste

Jokin Bereziartua BERGARA

Uztailaren 20ko osoko bilkuran onartu zenez, irailean Udala antolaketa berriarekin hasi da funtzionatzen. Helburuak dira Udaleko batzorde informatzaileen funtzionamenduan eta eraginkortasunean eragitea, departamentu ezberdinen arteko koordinazioa erraztea, planifikazioa hobetzea eta herritarrei erantzuna egokitu eta azkartzea.

Eguazten arratsaldeko agerraldian Gorka Artola alkateak esan zuenez, aurreko agintaldian hasi zen prozesua, Bergararren Arreta Zerbitzuaren sorrerarekin eta aholkularitza enpresaren kontratazioarekin: "Agintaldi honetan, egindako lanari jarraipena eman eta eraldaketa martxan jarri dugu. Garbi daukagu gizaratean etengabeko aldaketak gertatzen direla, eta horiei guztiei erantzun ahal izateko etengabeko hobekuntza batean murgilduta dago Udala ere. Orain martxan jarri dugun antolaketa eman beharreko aldaketen hasiera da. Udalaren funtzionamendua eta eraginkortasuna hobetzeko pauso garrantzitsua, baina, dudarik gabe, jarraipena eman eta hobekuntzak egiteko aukera irekita uzten duena".

Nola igarriko du herritarrek?

Antolaketa berria martxan jartzeko, lan-esparru guztiak hiru multzo handitan antolatu eta departamentuetako lan dinamikak eraldatu eta sistematizatu dira, eta prozedurak azkartu. Udal barruko antolaketa goitik behera aldatu izanak herritarrei zehazki nola eragingo dion galdetuta, honako hau dio Artolak: "Batetik, hainbat prozeduratan herritarrei emango zaion erantzunean denbora azkartu egingo da; hau da, batzordeetatik ez pasatuta eta sistematizatuta egonda, erantzuna azkarrago eta hobeto ematea ahalbidetuko du. Bestetik, koor-



Gorka Artola alkatea; atzean, Juan Luis Gonzalez, Ekaitz Aranberri eta Ainhoa Lete. J.B.

HIRU BATZORDE ETA LAU KOORDINAZIO MAHAI DIRA GUZTIRA, "FUNTZIONAMENDUAN HOBETZEKO" ASMOZ

dinazio mahaia egoteak ekarriko du, adibidez, antolatzen diren ekintzek ez kointziditzea, esaterako, kirol, kultura edo gizarite zerbitzuetako egitarauetan. Izan ere, saiakerak egin izan diren arren, sailak euren artean horren isolatuta eta estanko egoteak deskordinazioa sortzen du eta berrantolaketa honekin disfuntzio horiek ekiditea lortuko dugula sinistuta gaude".

Hamalau batzordetik, hiru izatera Aldaketa nabarmena batzordeetan gertatu da, 14 izatetik hiru izatera pasa dira eta. Honako hauek dira hiru batzorde berriak, hileroko maiztasunarekin egingo direnak: lurralde arloko batzorde informatzailea, herritarren arlokoa eta antolakuntza arlokoa. Eta, bestetik, "koordinazio tekniko-politikorako taldeak" sortu dira, aurrez hartutako erabakien

exekuzioa kudeatu, jarraipena egin eta planifikazioa lantzeko erabiliko direnak; udal teknikariek eta Gobernuo politikariek hartuko dute parte bertan. Lau koordinazio talde egongo dira: eremu bakoitzeko bat-lurraldea, herritarrek eta antolakuntza-, eta koordinazio orokorra bideratuko duen taldea. "Kultura Saileko arduraduna Kultura zinegotzia izango da aurrerantzean ere; sortzen dena da figura bat arlo bakoitzean sail ezberdina koordinatuko dituen".

Martxan beste herri batzuetan

Udal antolaketa berria martxan jarri duten herrien artean daude, besteak beste, Tolosa, Legazpi eta Zarautz; EH Bildu eta EAJ daude gobernuan herri horietan. Hain zuzen, Artolak uste du adostasun politikoak garrantzi handia duela halako erabaki batean. "Uztailean EAJk eta PSE-EEK kontra bozkatu zuten, baina uste dut forma kontuak izan zirela. Berrantolaketa beharra guztiok konpartitzen dugula uste dut; argi daukagu Udalak asko duela irabazteko eta herritarrek hobekuntzak igarriko dituztela".



Herritar bat Usondo parkean paseoan, aurtengo maiatzean. GOIENA

"Inoiz baino gehiago" erabiliko dituzte eskolek espazio publikoak

Parkeak, aterpeak eta lorategiak erabiliko dituzte eskola orduetan: "Seguruagoak dira eta ikasleek behar dute"

J.B. BERGARA

Herriko ikastetxeek orain arte baino gehiago erabiliko dituzte herriko espazio publikoak, COVID-19ak eraginda. Izan ere, Udala "harreman estuan" dabil ikastetxeekin, haiek zein espazio eta zein ordutegi behar dituzten entzun eta "erraztasunak" emateko. Izan ere, ikastetxeek segurtasuna bermatzeko neurri berriak ezarri dituzte: distantzia soziala, talde burbuilak zaintzea, sarrera-irteeren antolaketa, garbiketa eta desinfekzioa handitzea... "Eta, ildo horretan, eskolek inoiz baino gehiago erabili-

ko dituzte espazio publikoak - parkeak, aterpeak, arkupeak, elizpeak, lorategiak...-, seguruagoak direlako eta haur eta gaztetxoek euren garapen egokirako ezinbestekoa dutelako mugitzea", gaineratu dute Udaletik.

"Begirunezko elkarbizitza"

Pandemia honetan guztion inplikazioa beharrezkoa dela sinistuta, Udalak "begirunezko elkarbizitza" eskatu du. Udalak ez du espazio horien erabileraren gaineko egutegi zehatz baten berri eman, baina mahai gainean duten asmoa aurreratu dute.

OHARRAK

Kultura Kalera domekan, euri arriskuarekin

Kultura arloan diharduten hemezortzi taldek euren lana aterako dute San Martin plazara; euria dago aurreikusita, eta, seguruenik, Seminarioko karpan egingo dute. Antolatzaileen asmoa da 12:30etik 14:00etara herritarrei zuzendutako tailerrak egitea eta arratsaldean taldeon lana jendaurrean erakustea.

Berdintasun Kontseiluaren hamargarren bilera

Hilaren 30ean egingo dute, Irizarren (18:30); telematikoki ere emango dute. Bi helburu ditu: udaberrirako ekintzez berba egin eta azaroaren 25erako ekarpenak jaso. Ordu eta erdi iraungo du.

Ereindajanen urteko batzar orokorra

Irailaren 30ean elkartuko dira, UNEDen (18:00).

Bergarako Orfeoien batzar orokorra

Irailaren 30erako deitu dituzte bazkideak, Zabalotegin (21:00).

Tailerra Europako Ondare Jardunaldien barruan

Bergarako geologia eta ondare ezagutu, familian izeneko tailerra egingo dute bihar, irailak 26, 11:00etan. Doakoa da, baina aurrez izena eman behar da (943 76 90 03), edukiera mugatua duelako.

"Bizitza osoa neraman istorio hau idatzi nahian"

PATXI IRURZUN IDAZLEA

Zapatuan aurkeztuko du 'Tratado de [h]ortografía' eleberria idazle nafarrak, kartzela zaharrean. Euskal rock erradikaleko izar izandako pertsonaia baten istorioa du ardatz

Jone Olabarria BERGARA

Kartzela zaharrean aurkeztuko du bihar Patxi Irurzun idazle eta kazetari nafarrak bere azken lana, *Tratado de [h]ortografía* liburua. Angiolillo liburutegiaren eskutik egingo duten aurkezpena 18:30ean hasiko da, eta, azaldu dutenez, denboraldiko azkena izango da: "Alde batera utziko ditugu liburu aurkezpenak, eta liburutegiaren espazio fisikoa indartu gura dugu orain". **Zein da *Tratado de [h]ortografía* liburuaren heldulekia? Zer aurki dezake bertan irakurleak?**

80ko hamarkada, punka, eta abar oinarria diren arren, gauza askori buruz hitz egiten digun eleberri bat da; protagonistak seme-alaba nerabeekin duen harremana, hurbileko pertsona bat galtzea edo lanean sufritzen duen prekarietatea. Gaur egun gertatzen denaren isla ere bada. Euskal Rock erradikaleko antzinako talde bateko izar baten istorioa kontatzen du; Los Taponos taldeak arrakasta bakarra izan zuen, *Estamos contra las reglas*.

Nola bizi da une honetan protagonista?

Urte haiek nostalgiaz gogoratzen ditu, bizirik irauten saiatzen den bitartean. Liburutegi txiki bateko lanak, kazetari eta idazle lanak konbinatuz doan bitartean, bere taldea berriz elkartzerara behartuta ikusten du bere burua, hirian zehar aurkitzen dituzten akats ortografikoak zuzentzeko taldetxo bateko kide den neurrian.

Nondik dator liburu hau idazteko ideia? Zergatik gai hau?

Nik beti idatzi nahi izan dut euskal rockari buruzko eleberri bat, garai eta musika hura intentsitate handiz bizi izan nuelako, baita gaiari buruz fikzio gehiegi idatzita ez dagoela iruditzen zitzaidalako. Talde ezberdinetako musikariek berba egin nuenean, beraiek ere ez



Patxi Irurzun idazle nafarra. PATXI IRURZUN

"ELEBERRIA IDAZTEKO GAKOA GERTUKO ISTORIO BAT IDAZTEA IZAN BEHAR ZELA KONTURATU NINTZEN"

zutela garai hura guztiz ondo gogoratzen aitortu zidaten, eta nire eleberria idazteko gakoa aurkitu nuen; gertuko istorio bat izan behar zen, etxekoa, egunerokoan barneratutako kontakizuna. Belaunaldi jakin bateko jendeak -40 eta 70 urte bitarte dituztenak- islatuta ikusiko du bere burua bertan.

Zer-nolako lana ekarri dizu azken eleberri honek?

Idazte prozesua oso azkarra izan bada ere -hiru hilabete bakarrik eman nituen-, egia esanda, bizitza osoa neraman halako eleberri bat idatzi nahian. Prozesua hain azkar izan zedin zerikus handia izan zuen eguneroko formatu hori aurkitzeak. Lehenago ere erabilia nuen beste liburu batean. Egunkari formatuek hainbat abantaila dituzte, irakurleari alde morbosoa hori pizten diote, norbaiten intimitatean

sartzekoa, eta oso bizkorak dira, irakurtzeko eta idazteko.

Zerikusirik badu zure aurreko lanekin?

Bitxia da. Izan ere, istorio sinplea bada ere, konturatu naiz hori ere badela bereziki garrantzitsua. Nire literatur ibilbidea deienez gero, lan honen agertokian nire lehen bi eleberrietan ere ageri da Jamerdana irudimenezko hiria. Liburu konfesionalagoekin edo biografikoagoekin ere badu zerikusia. Niri buruz dezente daraman liburua ere bada *Tratado de [h]ortografía*, orain autofikzioa deitzen dioten liburu bat da.

Baduzu beste proiekturik une honetan esku artean?

Eleberri honetako pertsonaiekin jarraitu nahiko nuke, baina oraintxe bertan nobela historiko bat idazten ari naiz. Besteak beste, Santa Agedako bainuetxean gertatzen dena, Arrasaten, eta zerikusia du Canovasen hilketarekin. Hain zuzen ere, agertokietako bat Bergarako kartzela zaharra ere bada, Angiolillo hil zuten lekua. Zapatu honetako aurkezpena, hain zuzen ere, leku horretan bertan egiteak ilusio berezia egiten dit.



Koldo Eleizalde 1-3 plazatxoko lanak martxan, asteon. BERGARAKO UDALA

Plazatxoa inpermeabilizatzeko lanak Koldo Eleizalde kalean

189.488 euroko aurrekontuarekin egingo dituzte lanak: %53 jabeek ordainduko dute eta %47, Udalak

J.O. BERGARA

Hiru hilabete iraungo dute Koldo Eleizalde 1-3 zenbakietako plazatxoa berrurbanizatu eta inpermeabilizatzeko lanek, eta, hain zuzen, Bergarako Udalaren eta garaje-jabeen lankidetzaren publiko-pribatu artean egindakoak izango dira.

Eremu horretako lur azpiko garaje eta trastelekuetako jabeek itogin arazoak zituztela igarri, eta Bergarako Udalar jakinarazi zioten. Akordioa egin ostean, bertako jabeen eta Udalaren artean egingo dituzte lanak. Bide batez, udalak pla-

zatzoa berritzeko eta berrurbanizatzeko baliatu nahi izan ditu obrak.

Proiektu publiko-pribatua

Asteon hasi dituzte lanak eta Contrucciones Artzamendik garatuko du proiektua. Guztira, 189.488 euroko aurrekontua izango dute lanek. Horietatik %53,28 jabeek ordainduko dute eta Udalak, berriz, %46,72.

Garajeetako lanei dagokienez, lur azpiko garajeen eta trastelekuen sabaia hobetuko dute, itoginak bukatu eta hezetasun arazoak konpontzeko.



PILOTA SAILA

Bergara Hiriaren II. jardunaldia

Martitzen arratsaldean jokaturako partiduetan, promes mailan, "erraz" nagusitu ziren Laia Salsamendi eta Ane Mendiburu, Ibone Salinasen eta Andrea Capellanen aurka (22-5). Nagusietan, berriz, "partidu on eta lehiatuan", Ainhoa Ruiz de Infantek eta Maite Ruiz de Larramendik Irantz Etxebesteri eta Miriam Arrillagari irabazi zieten (22-17).



Kale Barrian daude herriko hainbat komertzio. O.E.

Merkataritza plana diseinatzen hasiko dira

Herriko merkataritza biziberritzeko plan bereziaren berrikuspina urte hasieran egiten hasi zen Udala, eta, diagnostiko hori oinarri hartuta, hemendik aurrerako plana diseinatzen hasiko dira laster aholkularitza enpresa batekin batera

Oihana Elortza OÑATI

Lauzpabost urtean behin berrikusten da herriko merkataritza biziberritzeko plan berezia eta orain tokatzen da egitea azken berrikuspina. Urte hasieran hasi zen Udala horretan, Siadecoren laguntzarekin batera. Pandemia etorri aurretik, marxtoan, justu-justu, bukatu zuten lana, eta orain, azterketa hori eskuetan hartuta, datozen urteetan egin beharreko bidea diseinatzen hasiko dira Udala eta herriko merkataritza elkarrekin. Ikertalde aholkularitza enpresaren laguntza izango dute.

Egindako txostena da ardatza

Pandemiak eragindako alarma egoerak hirugarren sektoreari dagokion hiri ekonomiaren egoera zein den agerian utzi du. Hori dela eta, datozen urteotan gidariburu izango den ekintza plan bat eraiki gura da, lan ildo zehatzekin. Baina ez da bakarrik pandemia osteko egoerara mugatuko; egoera normalizatu ba-

tean ematen den informazioa jasotzen du txostenak, eta hori izango da lanerako materiala. Ekintza zein ardatz nagusiak, lehentasun mailak, arduradunak, gutxi gorabeherako aurrekontuak eta antzerakoak esleituko dituzte orain hasiko den fasean.

Merkatari guztiak sartzen dira

Bigarren etapa honetan epeertain-luzerako lerro estrategikoak zehaztuko eta landuko dituzte, bai Udalak, bai dendarien elkarrekin, eta baita merkatariek ere. "Adibidez, ikusiko da indarguneak mantentzeko ze ekintza egiten diren edo hobetu beharreko arloak hobetzeko zer jarriko den martxan", azaldu du Udaleko Enplegu teknikariak.

HONEN HELBURUA DA TOKIKO MERKATARITZA SUSTATZEA, ETA DENAK SARTZEN DIRA

Txanda elkartarekin egin dute lehenbiziko bilera eta hemendik aurrera sektoreko kide diren eragileekin batera landuko dute hurrengo urteetarako plana. Herriko merkataritza sustatzea da plan honen helburua, eta denak sartzen dira, izan Txanda elkarteko kide edo ez.

Tokikoa sustatzeko estrategiak

Martxora bitartean egin den diagnostiko honek egungo merkataritzaren ikuspegia jaso du. 400 herritar ingururi galderak egin dizkiete hirugarren sektoreari eta horrekin duten harremanaz, adibidez, eta erantzun horiek izango dira bigarren fase hau diseinatzeko oinarrian hartuko dituzten iritziak edo eskarriak. Udalerriko merkataritza jarduerarekin lotura duten eragileen arteko kolaborazioa sortzea da helburua, herriko tokiko merkataritza sustatzeko edo hori indartuko duten estrategiak garatzeko, Oñatiko garapen eredurak egokituta.

Artzain Eskolakoak izango dira ikasturtea hasten azkenak

Aurten, hamalau ikasle izango dituzte. MUko fakultatean eta IISJn aste honetan hasi dira eskolak ematen

O.E. OÑATI

Datorren astelehenean hasiko dute ikasturte berria Gomiztegiako Artzain Eskolan. Egoera berrira egokitu beha izan dute eskola hori ere: gelak berregituratu dituzte eta pantailak tokiz aldatu, esaterako. Aurten, hamalau ikasle egongo dira; horietako bat, oñatiarra. Beste bospasei han bertan biziko dira.

Mondragon Unibertsitateak Oñatin duen Enpresagintza Fakultatean aste honetan hasi dute ikasturtea. Erabat aldatu dituzte, gainera, eraikineko hainbat

gune: espazioak egokitu egin dira eskatutako neurrien eta ikasleen beharrei egokituta; pantaila handiak jarri dituzte geletan, eskolak etxetik jarraitu ahal izateko; eta gelen arteko komunikazioa hobetu dute. Bestalde, Lege Soziologia Institutuan ere astean, astelehenean, hasi zuten aurtengo master ikastaroa. Hamaika herrialdetako hamalau ikasle egingo dute master hori eta gehienak online arituko dira. Aurrez aurreko eta online bidezko ikastaro duala izango da aurtengoa.

Hiru zutabetan, sei tontor igoko dituzte urriaren 3an

Izan Bidea dinamikaren barruan, Euskal Herri mailako deialdi orokorra egin du Sarek urriaren 3rako, egun berean Euskal Herriko 650 tontorretara igotzeko erronka.

Oñatin hiru zutabe antolatuko dituzte eta sei tontorretara helduko dira. Santa Marina plaza-tik abiatuko da zutabetako bat, Arranoaitzera joateko. Arantza-

zun, Aloñara eta Artzanburura joango da bigarren zutabea. Eta hirugarrenak, berriz, Araotzeko frontoitik irten eta Andarto, Ahumategi eta Orkatzategiko puntak zapalduko ditu. 09:00etan aterako dira hiru zutabeak eta bakoitzak bere kasa egingo du igoera. 11:00etan, tontorretan, talde argazkia ateratzea da asmoa.

Izan Bidea dinamika hau kilometroak egitean datza, oinez, bizikletaz, korrika zein mendian, presoen eta iheslarien egoerari irtenbidea emateko eskatzeko.



I.L.

100 urte Asuncion Biainek

Kale Zaharreen jaio zen Asuncion Biain Guridi, duela 100 urte, 1920ko irailaren 18an. Harategi batean ibili zen lanean lehenengo, eta ondoren, Oñatiko familia baten zerbitzari aritu zen urteetan. Berarekin, zazpi dira jada Oñatin 100 urte edo gehiago dituzten herritarrak, denak emakumeak. Zaharrenak 106 urte ditu.

Ikastaroak antolatzen hasi dira erretiratuak

Pake Leku eta Lagun Leku elkarteetan ikusi dute herriko erretiratuek beldurra dutela, ez dira lehen beste joaten elkarteetara. Batean zein bestean ikastaroak antolatu dituzte orain; gutxi, baina egoera berrira egokitutako lehengo ohiturak berreskuratuz

Oihana Elortza OÑATI

Errespetuz eta beldurrez bizi dute egungo egoera herriko erretiratu askok. Argi ikusten dute hori Pake Lekun zein Lagun Lekun. Elkarte bietan animatu dira, baina, ikastaroak antolatzera, "bizitasun apur bat" izateko bada ere.

Bakoitzak bere materiala

Pake Lekun, esaterako, lau ikastaro antolatu dituzte: pintura, orratz lanak, yoga eta dantza. "Normalean, sei bat lagun edo apuntatu ohi dira ikastaro horietara eta horregatik erabaki dugu horiekin has-te datorren hilabeteen. Pena barruraino sartuta dute askok eta bizitasun apur bat behar dugu denok. Horretan laguntzeko bada ere antolatu ditugu. Noski, segurtasun neurri guztiak hartuta egingo dira ikastaro horiek. Distantziak mantenduko dira eta norberak bere materiala eramane beharko du, ezingo da ezer elkarbanatu",

dio Pake Lekuko zuzendaritza taldean dagoen Anton Umerzek.

Lau ikastaro antolatu arren, beste makina bat bertan behera utzita dutela gaineratu du Umerzek: "Ez bakarrik ikastaroak, abesbatzak ere ez du entseatzeko, esaterako, bingorik ere ez da egiten, ezta hitzaldirik ere, eta irteera guztiak suspendituta daude, noski".

Urrian hasiko dira

Lagun Lekun bizi duten egoera ere antzekoa da. Lokala itxita dute oraindik eta ez dakite noiz zabalduko duten. "Askok dute gogoia zabaltzeko, topaleku hori faltan igartzen dute. Baina beste batzuek garbi dute hobeto dagoela itxita. Ez da erraza egoe-

PINTURA, YOGA, DANTZA ETA ORRATZ LANAK BATEAN, ETA YOGA, JOSKINTZA ETA INGELESA BESTEAN

ra ulertzea eta erabakiak hartzea. Edukiera mugatua izango luke lokalak eta lehen baino gutxiago sartu ahal izango ginateke. Bestalde, batzuek, esaterako, kartetan egiteko ohitura badute, baina orain hori ere ezin da lehen bezala egin. Zaila da, bai. Hemen, baina, yoga egiten hasi gara batzuk eta urrirako ingeleseko eta joskintzako ikastaroak martxan jartzea pentsatu dugu. Egoeraren arabera joango gara gauza gehiago antolatzen", dio Lagun Lekuko kide Marilo Unzurrunzagak.

Izena eman behar da

Erretiratuen elkarte batean zein bestean datorren hilabeteen hasi gura dituzte ikastaroak, baina jendea apuntatu ahala hasiko dira margotzen, josten edo ingelese ikasten. Dena dela, edukiera mugak eta distantziak mantendu beharra kontuan hartuta, komeni da izena aurrez ematea, taldeak hamarrekokoak izan ahal direlako, gehienera.



Oinherriren eta Udalaren arteko akordio ekitaldia martitzenean. M.S.

Oñati "herri hezitzaileagoa" izateko akordioa egin du Udalak

Oinherriekin sinatu du akordioa astean eta alde bakoitzaren betebeharrak zehaztu dituzte

O.E. OÑATI

Oñatiko Udalak eta Oinherri Herri Hezitzaileak Sustatzeko Elkarteak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute; haurren hezkuntza eta aisialdia beste modu batera antolatzeko erak aztertu eta balio hezitzaileak herrian hedatzea da helburu nagusia.

Martitzenean egindako ekitaldian Udalak azalduz, Oinherri urteak daramatza lanean haurren hezkuntza eta aisialdia beste modu batera antolatzeko erak aztertzen, "teoria eta praktika uztartuz, herrigintzatik, benetakako parte-hartzea bultzatuz eta

balio hezitzaileak hedatzeko helburuarekin".

Hitzarmen hori sinatuta, Oinherri aholkularitza eta laguntza emango dio Udalari, eta herrien arteko esperientzia eta informazio trukea erraztuko du horrek. Bestetik, trebakuntzarako eta ezagutza konpartitzeko jardunaldiak antolatuko ditu herrian. Udalak, bestalde, konpromisoa hartzen du 4.000 euroko dirulaguntza bat emateko dena aurrera eramateko eta Oinherri dituen zazpi lan ildoak txertatzeko Udalak aurrera eramaten dituen ekimen guztietan.



NIRE USTEZ

JOSU ZUBIA

Begirada, borondatea eta zentzua

Beste bi testu idatzi ditut hau bidali aurretik. Haserre zantzuak zeuden lerroetan. Badakizue, egun, kontu izugarria eduki behar da zer esan aukeratzeko orduan –demokrazian eta aske bizi garen zeinua izango da–. Haserre idaztea baino gehiago, erabaki dut amestea eta gauzak imajinatzea. Imajinatu bulegoetako kultur teknikarien, kultur zuzendarien, antolatzaile handien... soldatak kultur gileon menpe daudela. Pentsatu kultur gileok dugula erabaki ahalmena euren soldataren gainean; noiz, zenbat, nola ordaindu... Dena gure kontu. Nahiko nuke jakin ea zenbat denboran emango lioketen buelta gaur egungo egoera tamalgarriari. Zenbat minutu behar izango luketen kulturaren auzia errotik hartu eta buelta bat emateko, kulturari behar duen garrantzia aitortu eta hortik lan egiteko. Kultura ez da programazioa bakarrik; hori erakusleioa da, egin den lan prozesu oso baten erakusleio soil bat. Babestu behar da sormena, ikerketa, hezkuntza... Eta babestea ez da animoak eta diru apur bat ematea. Babestea erortzen ez uztea da; hegan egin dezaten/gun laguntzea. Plan orokor batekin eta diru-inbertsioarekin egiten da.



Pintura ikastaroa da Pake Lekun eskainiko dutenetako bat. GOIENA

"Kluben arteko zatiketa ezabatu gurako nuke"

MIKEL MANTXOLA GIPUZKOAKO ESKUBALOI FEDERAZIORAKO PRESIDENTE IZATEKO HAUTAGAIA Federaziorako presidente izateko hautagaitza aurkeztu du Mikel Mantxolak. Gaur egingo dituzte hauteskundeak; eta irabazteko aukerekin ikusten du bere burua

Maialen Santos OÑATI

Aloña Mendi eskubaloi klubera lotuta egon da betidanik Mikel Mantxola oñatiarra. Jokalari, entrenatzaile, epaile eta Gipuzkoako harrobiko selekzioen hautatzaile izan da azken urteetan. Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko presidente izan gura luke orain.

Ze behar ikusten duzu Federazioan?

Egun dagoen egoera aldatzeko beharra ikusten dut. Klubak bi edo hirutan zatituta daude, eta epaileen artean ere badago banaketa hori. Gustatuko litzaidake zatiketa horiek ezabatzea; guztiak bat egitea, eta arazoak konpontzea. Uste dut nahiko ondo ezagutzen ditudala talde guztiak, eta helburu hori lortzea posible litzatekeela.

Banaketa horrek eragina du egunerokoan...

Eragin handia, bai. Euskal Federazioko erabakiak hartzeko orduan taldeak banatuta bagaude, beti irtengo gara galtzen. Ezer gutxi lor daiteke guztiok batera ez bagoaz.

Nor duzu hautagaitzan taldekide?

Viacheslav Kobin litzateke zuzendari teknikoa. 2003an iritsi zen Euskal Herrira eskubaloian jokatzera. Errusiako selekzioarekin ere jokatu izan du, eta azken urteetan arbitro lanetan dihardu. Markel Garralda ere funtsezko izango nuke taldean. Biak ala biak konfiantzazko pertsonak dira niretzat eta ondo baino hobeto ezagutzen dute Gipuzkoako eskubaloia zein egoeratan dagoen.

Zein ardatz jarraituko duzue?

Aurten tokatuko da ikustea osasun egoera nolakoa den, eta argi daukat COVID-19ak lehenastuna izango duela une oro; osasuna jarri gura dudalako lehen leerroan. Lehiaketa izango da zerrenda horretan bigarrena, baina ikusi beharko dugu Osakidetzatik, Jaurlaritzatik, Foru Aldunditik... zer dioten.



Mikel Mantxola, aurkeztu duen programa eskuetan duela. MIREIA BIKUÑA

"PRESIDENTE IZANGO BANINTZ, KLUB BAKOITZAREN ARAZOAK IKUSIKO NITUZKE LEHENENGO"

Lehiatzeko aukerarik ikusten duzu?

Nolabait lehiatu beharko dugula uste dut, baina ez ohiko moduan. Momentu honetan koronabirus kasu positiboren bat badago, taldekide guztiak konfinatu behar dira, eta horrek dakar ikasketak edota lana alde batera uztea. Eta jokalariei amateurrek ezin dute horrelakorik onartu.

Kalitate aldetik, nola dago Gipuzkoako eskubaloia?

Indartsu dago. Bidasoa eta Bera Bera Europa mailan daude. Eta azken hau txapelketa izan zen ligan. Bidasoan ere gutxienez bost jokalarik gipuzkoar daude, eta maila horretan ordezkariak izatea seinale oso ona da. Bestalde, emakumezkoetan gertatzen da oso goiz egiten dutela alde taldetik. Izan ditugu Estitxu Berasategi eta beste emakume batzuk lehen mailan, baina, az-

kenean, utzi egiten dute. Uste dut maila gorenera salto handia dagoela. Lan egin beharko dugu. **Eta nola dago eskubaloia Debagoienean?**

Osasuntsu dago. Arrasaten, esaterako, sekulako lana egiten dute jendea kirol honetara erakartzeko. Kontuan hartu behar da herri horretan errugbia, saskibaloia, futbola... ere badaudela. Bergaran ere hortxe dabil-tza; emakumezkoen taldea sortu dute, eta hori pozgarria da. **Gaur dira hauteskundeak. Nola ikusten duzu zeure burua?**

Gutaz gain, beste plataforma bat ere aurkeztu da hauteskude-tara; orain arte egon denaren jarraipena. Beraz, aukeren erdiak ditut nire alde. Halere, irabazteko aukerekin ikusten dut neure burua. Federazioko 27 klubek, sei jokalarik, hiru entrenatzailek eta bi epailek izango dute botorako eskubidea. **Presidente aukeratuko bazintuzte, zer egingo zenue lehenbizi?**

Klub guztiarekin hitz egin –orain arte egin dudana moduan–, eta leku bakoitzean ze arazo dauden ikusi beharko da. Bestetik, emakumeen afera ere garrantzitsua iruditzen zait.



2018ko trikiti jaialdia. GOIENA

Bi saiotan egingo dute aurtengo trikiti jaialdia, urriaren 17an

Santa Ana antzokian izango da, urtero legez. Sarrerak urriaren 1ean jarriko dituzte salgai ohiko tokietan

M.S. OÑATI

Santa Ana antzokiak hartuko du Oñatiko XII. Trikiti Jaialdia, urriaren 17an, zapatua. Aurten, baina, bi saio ezberdin eskainiko dituzte, segurtasun neurri gisara. Lehenengo saioa 16:30ean izango da eta bigarrena, 19:00etan. Saioak hasi baino ordu laurden lehenago zabalduko dituzte ateak. Jende pilaketak saihesteko, ordu hori baino lehenago ez joateko eskatu dute Lizargarate Trikitizale Elkartetik.

Sarrerei dagokienez, urriaren 1etik aurrera hartu ahal izango dira ohiko salmenta puntuetan:

Oñatiko Txokolateixan eta Udalen webgunean, 12 eurotan.

Trikitilari debagoiendarrak ez da izango jaialdian. Zazpi bikote edo talde arituko dira guztira: Agurtzane eta Ion Elustondo; Jauregi, Gozategi eta Arrospide; Xabi eta Kris Solanok eta DZK ere hartuko dute parte; baita Araitx, Josu eta Xabier Etxaniz eta Leire Larrañagak ere; Saioa Lizarralde eta Maddalen Artzallus ere igoko dira oholtza gainera. Eskarmentu handiko Tappia eta Leturiak eta Laja eta Lutxurdixok ere ez dute hutsik egingo Oñatin.

Aloña Mendiko pilotariek ekin diote Gipuzkoako Txapelketari

Joan den astean ekin zioten txapelketa jokatzeari, eta gaur arratsaldean ere izango dira partiduak, Zubikoan


M.S. OÑATI

Aloña Mendiko pilota saileko gazteak joan den astean hasi ziren Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko, eta datozen asteetan ere izango dituzte norgehiagokak.

Gaur arratsaldean, 18:30ean hasita, lau neurketa jokatuko dituzte Zubikoa pilotalekuan. Bigarren mailako kadeteen txanda izango da lehenbizi, eta Egurbide eta Juaristi oñatiarrek Bergarako bikote bat izango dute aurkari. Barrenak eta Osesek, aldiz, Añorga hartuko dute. Lehen mailako gazteak ere lehia-

tuko dira, eta maila horretan, Ugarte eta Galdos Tolosako bikote baten aurka arituko dira nor baino nor gehiago. Azkenik, hirugarren mailako gazteak ere aterako dira pilotalekura. Hain zuzen, Perezek eta Tatiegik Aretxabaletako bikote baten aurka izango dute neurketa.

Pilota Sailetik adierazi dutenez, norgehiagokak ikustera joateko aukera izango du hala nahi duenak. Hala eta guztiz ere, maskara eramatea ezinbestekoa izango da eta segurtasun distantziak errespetatu beharko dira.



16. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

**400 argazkitik gora jaso ditugu.
Eskerrik asko parte hartzeagatik!**

Irailaren 25etik 30era arte, zure argazki gustukoena aukeratu ahal izango duzu (**PUBLIKOAREN SARIA**). Sar zaitetz <https://goiena.eus/bereziak/16-udako-argazkien-lehiaketa> helbidean eta eman zure botoa!

Pertsonako boto bakarra onartuko da.

Eta adi egon! Urriaren 2an, lehiaketako lau sarien irabazleen berri emango dugu! Zorte on!



LASAITASUNA (CALP) | Argazkia: Markel Apellaniz




MYANMAR, ARRANTZAN | Argazkia: Jone Arregi



'SELFIE'-A JERUSALEMEN | Argazkia: Ander Etxeberria Otadui



LEGUTIO, ARAMAIOKO BIDETIK | Argazkia: Nerea Goikoetxea



AUÑAMENDIETAN | Argazkia: Egoitz Eraso Perez de Arenaza



AUTOKARABANA 'HOTELA' (PLA DE BERET) | Argazkia: Aimar Elortza



OLATUETAN GALDUTA (AJO) | Argazkia: Hodei Gomez de Balujera



PIRINIOAK | Argazkia: Ekaitz Iturbe



SOMO (KANTABRIA) | Argazkia: Igor Larrañaga Uribeetxebarria



ARANTZAZU, BELLOSTEGITIK ATERATA | Argazkia: Jose Ramon Olalde Aiestui

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante · Jatetxea

ARRASATE BIDAIAK


BERGARA
**EREIN
DA
JAN**

Xabier Urzelai ARRASATE

Kirol taldeek goitik behera egokitu behar izan dituzte euren jardunak Jaurlaritzak ezarritako osasun neurriak zorrotz betetzeko. Baina lehenago edo geroago gertatu behar zena gertatu da jada: ibarreko kirol taldeetan hasi dira COVID kasuak azaltzen. Hain zuzen, Oñatiko Fagor Industrial eskubalo taldeko jokalariek bakartuta egon ziren irail hasieran, taldean izandako positibo batengatik, eta Mondra futbol taldean senior mailako bi taldeetako jokalariek asko bakartuta daude -30 inguru-, joan den astean bi taldeen artean lagunarteko bat jokatu eta ondorengo egunetan jokalariek batek positibo eman zuelako. Bistan da denboraldi zaila datorrela aurretik.



Mondra futbol taldeko ordezkariek Mojategin, gola ospatzen, artxiboko irudi batean. 30 jokalariek inguru bakartuta egon dira. GOIENA



IORITZ AGIRIANO FAGOR INDUSTRIAL ALOÑA MENDI TALDEKO ENTRENATZAILEA

"Hamabost jokalaritik zazpik esan digute ez daudela horrela jarraitzeko gertu"

Talde guztiak denboraldi-aurrea prestatzen dabilzan honetan, oñatiarrak izan dira talde barruan positibo bat izan duten lehenak. Irail hasieran izan zen hori, eta, berrogeialdia errespetatuta, Fagor Industrialeko Aloña Mendiko lagunak gehiago zorrotz dituzte neurriak: "Erabaki dugu kantxa barruan ez entrenatzea, aire librean ibiliko gara ariketak egiten, kalean entrenatuko gara, eta oso-oso talde txikitzen. Gainera, Federazioaren aurrean eskaera egin dugu, horrela ezin dugu liga hasi, eta Arrasateko taldeko ordezkariek bat egin dute gure eskaerarekin. Ziurgabetasun handiarekin gaude denok, eta martitzeneko batzarrean erabaki genuen gazte mailatik beherako entrenamendu guztiak, oraingoz, bertan behera uztea".

Hala, positibo eman duen jokalariek baten ondoan entrenatu direnak gertuko kontaktu moduan kontsideratzen dituztenez, talde osoak berrogeialdia erres-

Kirolean ere buruhausteak

Berez, urrian hasiko dituzte liga txapelketak, eta denboraldi-aurre honetan klub guztiak egin dute segurtasun neurriak zorrotzeko ahalegina. Baina hasi dira lehenengo positiboak agertzen, eta horrek ziurgabetasuna ekarri du talde horietara

petatu behar izan zuen. "Hamabost jokalaritik zazpik esan digute lan edo ikasketa arazoak tarteko ezin direla ibili lanean osasun-bajak etengabe hartzen. Eta normala da. Gu ez gara profesionalak".



ANDER ROMERO MONDRA FUTBOL TALDEKO KIROL ZUZENDARIA

"Egun hauetan 29 PCR test egin ditugu, eta ia bi talde oso daude bakartuta"

Mondra Futbol Taldeko senior mailako jokalariek egoera berdintsua bizitzen dabilta egun-

tan. Klub zuri-moreko 28-30 jokalariek daude orain momentuan bakartuta: "Joan den asteko entrenamendu saio batean, lagunarteko partidu bat antolatu genuen Ohorezko Erregionalekoekin eta Erregionalekoekin batera, eta handik pare bat egunera jokalariek bat ondo ez sentitu zen eta urgentzietan positibo eman zuen PCR proban. Bada, ordutik 29 kidek egin behar izan dute PCR testa; oraingoz, positibo bakarra dugu, baina jokalariek guztiak egin behar izan dute berrogeialdia. Eskerrak zapatuan geneukan beste lagunarteko partidu bat bertan behera utzi genuela", dio kirol zuzendari Ander Romerok.

"Egoera honetan ez dakit ze punturaino den bideragarria urriaren 18an liga hastea, eta egia da, baita ere, klub barruan lehenengo positiboak izan arte

gauzak beste modu batera ikusten dituzula. Oraingoan, guri tokatu zaigu, zintzo jokatu dugu eta neurriak hartu ditugu, baina liga hasten denean positibo bakoitzeko berdegunean egon diren denak etxean geratu behar badira... Guri ere hasi zaizkigu jokalariek esaten horrela ezin direla ibili".

"Guk hasieratik errespetatu izan ditugu neurriak, baina orain, zorrotz egin beharko ditugu. Futbola aire librean egiten dugu, zelaia handia da, baina positibo bat dagoenean agindua da denak konfinatzea. Egoera honetan aurrera egiten badugu, liga hasiarekin batera jardunaldi bakoitzeko ehun lagunak etxean geratu beharko dugu. Klub moduan, gainera, nahiko salduta gaude, halako egoerak kudeatzea ez delako batere erraza, ez gaude prestatuta".



URTZI AMIANO ARIZMENDI BOLEIBOL TALDEKO ORDEZKARIA

"Boleibolean, sikiera, kontrarioen artean ez dugu inongo kontaktu fisikorik"

Arizmendi boleibol taldeak senior mailan bi talde izango ditu aurretik, lehenagotik zuten emakumezkoen taldera gizonzkoena ere batu da eta. Eta denboraldi-aurre honetan Ibarra kiroldegiko segurtasun neurriak betetzen dabilta: "Etxetik tenperatura hartuta etorri behar dute, botila ura bakoitzak berea ekartzen du eta, entrenatzeko orduan, ariketa gogorra ez bada, maskarekin entrenatzen dabilta", dio Urtzi Amianok. "Zentzu horretan, boleibolak gauza bat dauka ona, kontrarioen artean ez dela batere kontakturik egoten, eta, horrela, kutsatze arriskua txikitu egiten da asko". Horrekin batera, entrenamendu guztietan egon diren jokalariek zerrenda eguneratzen dute: "Positibo bat egongo balitz, pertsona horrek hartu-emana norekin izan duen jakingo genuke segituan".

Gizonzkoen talde berriak Euskal Ligan hasiko du ibilbidea, urriaren 3an, baina Federazioak oraindik ez du emakumezkoen egutegiaren berririk eman.



JULEN ARANBURU BERGARA PILOTA ELKARTEKO PRESIDENTEA

"Pilota jaialdia zaintzeko jende gehiagoren laguntza behar dugu orain"

Bergarako Pilota Elkartekoak entrenamenduak antolatzen bakarrik ez, pilota jaialdia ere antolatzen dabilta. Esaterako, irailean antolatu dute martxoan jokatzekoa zen Soralue Txapelketako finala, eta pilotalekuko edukiera zainduta antolatu dute jaialdia: "Klubean ondo molda-

tu gara protokoloa betetzeko, nahiz eta, esaterako, Soraluze Txapelketako finalean normalean baino jende gehiago behar izan dugun pilotalekuko edukiera zaintzeko, ikusleei tenperatura hartzeko... Lehen, lagun bakarria izaten genuen sarreran zozketak saltzen; orain, bost lagun egoten dira dena zaintzen, eta emakumezkoen txapelketa hasi dugun honetan ere berdin gabilta. Bestalde, pilotariak takoak etxean jarrita etortzen dira, aldagelak erabiltzea saihesten dugu... Halako neurriak hartu ditugu", dio Julen Aranburuk.

Bestalde, etxeko pilotariak uda ostean hasi zituzten entrenamenduak. Kategoria txikietakoak oraindik ez dira hasi, baina kadete mailatik gorakoak hasi dira lanean. Eta hor, neurrietako bat da kantxan gehien zortzi pilotari ibiltzea batera".



MARIAN MELLADO BERGARAKO SASKIBALOI KLUBEKO PRESIDENTEA

"Mariaren Lagundiko kantxan ez gara denak sartzen"

"Begarako saskibaloia elkartearen nahikoa buruhauste dute entrenamenduak antolatzeke orduan; izan ere, Labegaraietan egiten dabilzan obrek ez dute laguntzen. Etorrizun laburrean, kantxa txukun batekin gozatu ahal izango dute, eta, bitartean, Mariaren Lagundiko kirol instalazioak erabiltzea dabilta: "Badakigu datorren urtera arte ezin dugula Labegaraieta erabili. Kadete mailatik beherako neska-mutikoak oraindik ez dira hasi entrenatzen, ezta eskola kirolekoak ere, eta horrek arnas apur bat ematen digu gainontzekoen entrenamenduetako ordutegiak antolatzeke; hala ere, arazo handiak ditugu. Beste herri batzuetan entrenatzeko aukerak aztertzen gabilta, ea ze konponbide ematen diogun honi", dio Marian Melladok.

Hala, aurreikuspena da infantil mailakoak urriaren 1ean entrenatzen hasia, eta horrek areagotu egingo du beste kantxan beharra. "Gaztetxoan,



Fagor Industrialeko jokariak, arrasatearren kontrako derbi batean. GOIENA

baina, kontaktu barik hasiko dira entrenatzen. Helduen kasuan, talde horiek dagoeneko hasi dira lagunarteko partidua jokatzeko. Tenperatura hartzen dute, baloiak sarritan garbitu, aldagelak itxita ditugu... Eta oso ondo dakigu entrenamendu bakoitzean ze jokalarik hartu duen parte".



RUPER ARKAUZ ALOÑA MENDI TXIRRINDULARITZA TALDEKO KIDEA

"Errazena zen lasterketarik ez egitea, baina gazteengatik ahalgina egitea erabaki dugu"

Txirrindulariek abantaila hori dute, ez dituzte kirol instalazioak behar entrenatzeko, errepidean dabilta lan hori egiten, aire librean. Aloña Mendiko ziklistak, tarteka, talde txikietan ibiltzen dira errepidean. "Bakoitzak entrenatzaileak emandako lanak bete behar izaten ditu, eta entrenatzeko arazorik ez dute", dio Ruper Arkauzek. Entrenatzaileak, baina, ez du zentzurik denboraldi osoan lasterketarik izango ez balute, eta, zentzu horretan, Aloña Mendikoek ahalgina egin dute: "Bete beharreko neurriak zeintzuk ziren iku-

sita, errazena zen lasterketak ez antolatzeke erabaki hartzea. Baina klubean ditugun gazte mailako ziklistei begira erabaki genuen Mikel Deuna saria antolatzea, eta ondoren baita amateur mailakoa ere -aurreko bi asteetan izan dira lasterketa horiek-. Jaurlaritzako neurriak aztertu genituen eta Udalaritxosten bat bidali genion lasterketa zelan antolatuko genuen adierazita, eta, zorianez, probak arazo barik egin ahal izan genituen".

Hala, konfinamendu garaian bertan behera geratu ziren lasterketa batzuk erreperatzeko ahalgina egin dute zenbait klubek, eta ziklismo denboraldia beste bost aste luzatzea ekarriko du horrek".



JULEN BARRUTIA ARRASATE RUGBY TALDEKO ENTRENATZAILEA

"Gurea kontaktuzko kirola da eta kontuan izan behar dugu hori"

"Arrasate Rugby Taldeko lagunek oraindik ez dute garbi noiz hasiko duten liga txapelketa: "Egutegian moldaketak egiten dabilta, Ohorezko Mailan atzeratu egin dute hasiera eguna,

eta kategoria nagusia denez horrek eragina du gainontze-koongan", dio Julen Barrutiak. Taldeak, baina, normaltasunarekin entrenatzen dabilta: "Hain justu, oraingo astean hasi dira 14 urtez azpikoak entrenatzen, eta dagoeneko 16 eta 18 urtez azpikoak entrenatzen dabilta, eta baita emakumezkoen eta gizonzkoen senior mailakoak ere: "Kontziente gara gurea kontaktu handiko kirola dela. Oraingoz, hamar laguneko taldeetan entrenatzen gabilta, eta talde horiek errespetatu egiten ditugu, jokariak nahasten ez ibiltzeko. Gainera, taldean mediku bat dugu eta hark emandako aholkuak jarraitzen ditugu; norbaitek positibo ematen duen egunean talde osoa ez konfinatzea da helburua".



INES ALDAI ARRASATE ESKUBALOI TALDEKO PRESIDENTEA

"Abuztu amaieran noraez hasi ginen protokoloa betetzen"

Arrasate eskubaloia taldeko presidentek ez du oso garbi orain hartzen dabilzan lanak ze fruitu emango dituen, ezta jokariaren fitxengatik ordaindu behar dituzten dirutzak ere zentzurik ba ote duen: "Urri amaieran hasiko ditugu ligak, baina ez dakit zentzu handirik duen. Ikusi gure kategoria berean dauden Oñatiko taldekoei gertatu zaiena, dagoeneko konfinatuta egon dira denak. Gai izango gara egoera horretan liga oso bat jokatzeko? Merezki du horrela ibiltzeak?".

Beste klubek egin duten moduan, eskubaloioak ere segurtasun neurriak betetzen dabilta: "Kirol instalazioak Udalarenak dira eta edozer gauza egiteko euren onespina behar dugu. Gainera, ez gara Iturripe erabiltzen dugun bakarrak. Egoera horretara moldatu behar izan dugu denok; talde nagusiak jokatu du lagunarteko bat, baina beste urte batzuetan gehiago jokatu izan ditugu. Ez da batere erraza egoera honetan lan egitea, baina ez dugu beste aukerarik".



Eneko Carrascal Mojategin. X.U.

Hitzordu bikoitza du Sevillan Eneko Carrascalek

Eneko Carrascalek 23 urtez azpikoen Espainiako Txapelketa jokatu du bihar eta etzi Sevillan. Zapatuan izango du salto hirukoitzeko saioa, eta arrasatearra 15,90eko markarekin aurkeztuko da. Domekan, berriz, luzera saltoko lan-saioa izango du eta hor ere urteko marka onenetakoa du arrasatearrak (7,41). Podiumeko postuengatik lehian ibiltzeko aukerak ditu.



Iazko irabazle Iñaki Diaz. GOIENA

Uzarragako igoera bihar, Goizperko aparkalekutik

Ohi baino sei hilabete geroago helduko da aurtengo gazte mailako Uzarragako igoera, bihar, zapatua, egingo dute-eta Antzuolako lasterketa, 16:00etan hasita. Irteeran aldaketak izango dira, herritik beharrean Goizperko aparkalekutik abiatuko dira-eta ziklistak. Ibilbidea iazkoa izango da, 59 kilometro bailaran barrena, eta Uzarragako maldek erabakiko dute proba.



Akelarre filmeko lantaldea; horien artean, Yune Nogueiras bergararra eta Lorea Ibarra arrasatearra. DONOSTIA ZINEMALDIA



Asier Altuna alfonbra gorrian. SSIFF

Filmak protagonista, ezohiko Zinemaldian

Orokorrean, harrera ona izan dute ikusleen artean Debagoieneko parte hartzaileak dituzten 'Akelarre' eta 'Arzak since 1897' filmek eta 'Patria' telesailak; protagonistek "gustura eta ilusioz" jardun dute "arraroa" izan den aurtengo Donostia Zinemaldian

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Bihar bukatuko da 68. Donostia Zinemaldia, eta, aurreikusten zen moduan, "arraroa eta hotzagoa" izan dela dio Goienako berriemaile Imanol Gallegok: "Gehienok dugun sentsazioa da jaialdi hotza ari dela izaten zentzu askotan: harremanetan, alfonbra gorrian... Dena oso neurtuta dagoelako, azken finean.

Segurtasuna bermatzea da lehen-tasuna, eta alde horretatik dena ondo doa, ez dugu kutsaturik egon denik entzun. Edukiari begiratuta, denetik ikusi dugu. Film gutxiago izan dira, eta horrek lasaiago ikusteko aukera eman du".

Izarrei dagokienez, askok telematikoki egin dituzte aurkezpenak. "Etorri direnen artean,

batetik, Johnny Depp azpimarratuko nuke: hasieratik bukaera arte, izar bat dela erakutsi du, berandu heldu da toki guztietara eta tatuatutako irribarrea zuela zirudien. Matt Dillonek Zinemaldia oso gustuko duela erakutsi du, eta atzo Donostia saria jaso zuen Vigo Mortensenek gertutasuna erakutsi du kazetariekin eta zaleekin".

'Akelarre': denetarik iritziak

Sail Ofizialean lehiatzen ari den Pablo Aguerok zuzendu eta Debagoieneko Lorea Ibarra eta Yune Nogueiras protagonista dituen *Akelarre* filmak askotariko kritikak jaso ditu. "Plan-teamendua interesgarria da eta aktoreen lana ikaragarri ona da, baina filmak une batzuetan indarra galtzen du; horregatik, zail ikusten dut irabazleen artean egotea", azaldu du Gallegok, eta bide beretik jardun du Antonio Zabala zine aditu bergararrak: "Indarra du: aktoreen lanak, kameraren mugimenduek, gertuko planoek eta muntaiak ondo islatzen dute pertsonaien egoera aztoratzailea, baina filmari mehetasuna falta zaio pertsonaia batzuen izaera sakontzeko; trazu gordinez azalduta daude, eta horrek sinesgarritasuna kentzen dio bukaerari".

Ikusleen artean askotariko iritziak batu ditu Gallegok: "Ez zait askorik gustatu; ilusio handiarekin etorri naiz, baina aspergarri samarra egin zait. Iru-di dotoreak ditu eta antzezlan oso ona, baina pixka bat dezepzionatu egin nau", zioen ikusle batek, eta txalotu egin zuen beste batek: "Asko gustatu zait; bereziki, aktoreen lana. Indartsua da, une oro tentsioa du".

Altuna, pozik dokumentalarekin

Ikusleen txalo artean zabaldu zuen astelehenean Culinary saila Asier Altunak zuzendu duen *Arzak since 1897* dokumentalak, eta bergararra pozik da izan duten harrerarekin. "Arzak familiari omenaldia izan zen proiektzioa; orokorrean, filma gustatu dela sumatzen dugu".

'Patria'-k, emozioak azaleratu

Jon Olivares eta Mikel Laskurain bergararrak protagonista dituen *Patria* telesailak ikusleak hunkitu ditu. "Oso gogorra da, baina egiatik asko du", zioen ikusle batek, eta honako hau Olivaresek: "Bakoitzak ezberdin ulertuko du bi familien mina". "Irakurketa politikoa egiten dutenendako ez da gustukoa izango. Mundu osorako pentsatuta dago", azaldu du Laskurainek.

'La trinchera infinita', saritua

Loreak eta *Handia*-rekin saria jaso ostean, EZAE elkarteak hirugarrenez saritu zuen Moriartiko lantaldea eguaztenean.

'GOIENA.EUS' ATARIAN ESKURAGARRI DAGO IMANOL GALLEGOK ZINEMALDIAN JASO DUEN GUZTIA

DONOSTIAKO ZINEMALDIA

GOIENA TELEBISTA, SAIO BEREZIA

IRAILAREN 25EAN, EGUBAKOITZEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN GURE IZARRAK ZINEMALDIAN

goiena
20 URTE ZUEKIN.



"Azarora arte luzatu dugu Arrasateko egonaldia"

IKER GALARTZA GURE ZIRKUA

Gaur irekiko dute karpa publikoarentzako eta azaroaren 1era bitartean hogeita hamar saio egingo dituzte; 'Gurezirkua.eus' atarian eros daitezke sarrerak, 12 eurotan

Maialen Santos/ A. A. ARRASATE

Orion izan da Gure Zirkua abuztuan, eta, han harrera oso ona izan ondoren, Arrasateko Arruena parkean –Eroskiren ondoan– muntatu zuten aurreko astean karpa. Arrasaten ere sarrera guztiak agortu dira, eta beste hiru asteburu gehiago luzatu dute eskaintza.

Sold out berriz ere, eta egonaldia luzatu duzue azarora arte. Pozik?

Bai, horixe! Astebetean ia sarrera guztiak agortu ziren, eta Udalarri eskaera egin genion emanaldi gehiago eskaintzeko, eta, baiezkoa jasota, hurrengo hiru asteburuetan izango dira beste hamabost saio. Karpa handi honekin ezin gara gure zirku txikiarekin ibiltzen ginen moduan astero tokiz aldatzen ibili. Alokairua, trailerrak, erregaia, muntaketa lanetarako kanpotik etorri behar izaten dira laguntzera... Gastu asko dira, finean. Atzo jarri genituen sarrera berriak salgai, betiko legez, gure atarian.

Zergatik Arrasatera?

Zonaz aldatzeagatik, gehienbat; Oriotik Arrasatera ez gara askorik urrundu, baina zonaz asko aldatzen da. Arrasateko Udalak deitu zigun –beste toki batzuetatik ere bai, Nafarroatik eta Bizkaitik...–, baina Arrasate aukeratu genuen ondo komunikatuta dagoelako eta karpa jartzeko Arruena leku ederra delako ere bai, aparkaleku ona ere bertan dauka. Urte sasoi honetan, gainera, haize tokirik ez zaigu komeni, eta hemen babesean gaude; uste dut toki aproposa dela bizitzeko ari garen egoerari aurre egiteko.

Arrasateko akrobata bat duzue aurten, Agurtzane Telleria.

Bai, hala da. Gabonetako ikuskizunetarako batu zen taldera eta gurekin geratu da udan ere. Lantaldearekin gustura zegoen bera eta gu ere bai, eta zirkua harrak harrapatzen zaitue-



Iker Galartza, Arruena parkean duten zirkuko karparen kanpoan. MAIALEN SANTOS

"KARPA HANDIAREKIN EZIN GARA ASKORIK MUGITU, ETA TOKI APROPOSA DA ARRUENA PARKEA"

nean zaila da uztea. Orion ere oso ondo joan zaio, eta Arrasatekoetara pozik batu da, baina, egia esan, sekula ez dut horren urduri ikusi.

Zer moldaketa egin behar izan duzue segurtasun neurriak direla eta?

Karpa ez da betikoa, bikoitza da, eta harmailak ere bai. Gurean 280 lagun sartzen genituen eta honek 600 lagunentzako edukiera dauka. Erdira mugatu dugu eta metro eta erdiko distantzia dago eserlekuen artean, eta maskara derrigorrezkoa da. Unitate familiarak errespetatuko ditugu, baina familia bereko lagun asko etorri gero batera, ez da posible izango denak elkarrekin egotea. Matematika kontuak egin behar izaten dira emanaldi bakoitzeko. Kasik, esan genezake pista barruan baino, jende gehiago behar dugula kanpoan dena ondo antolatzeko,

eta jendea seguru sentitu dadin, ikuskizunean lasai eta eroso.

Ikuskizuna ere aldatu egin duzue?

Bai; batez ere, magoak jendearen parte hartzea eskatzen du bere saioetan, baina ezin du orain halakorik egin; Orion ari ginea, modu batera eta bestera egokitu behar izan zuen, baina, azkenean, ezin izan zuen nahi zuena egin; eta gure pailazoak jende artean ibili izan dira beti, ume bati eskua eman, hurrengoari beste zerbait egin... eta horiek ere ezin hala jarraitu.

Emanaldiaren ostean ere ezin orain artean moduan publikoarekin elkartu; zelan moldatzen zarete?

Hala da, bai; beti gustatu zaigu publikoarekin kontu batzuk esatea... eta orain ere bai, baina desberdin. Zirkua kanpoaldean hesi bat dago; hesi barruan geratzen gara gu eta ikusleak hesiaren kanpoaldean egoten dira, argazkiren bat ateratzeko edo agurtzeko...

Gure Zirkua hurrengo geltokia, noiz eta non?

Asmoa dugu Tolosan, gure herrian, Gabonetan egitea; inauguratu genuenetik ez dugu emanaldirik egin han, eta ea, bada, urtea hala bukatzen dugun.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko iraileko sariak!



'Arkada Social' eta 'En Tol Sarmiento' taldeen CDak
Parte hartzeko sariaren izena: CD

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
ONATIKO O D A K

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremanondena.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazlearen izena: DPE 15/1000 igarimendako giro-erregulazioaren bidezko erregulazioa. Irabazlearen izena: DPE 15/1000 igarimendako giro-erregulazioaren bidezko erregulazioa. Irabazlearen izena: DPE 15/1000 igarimendako giro-erregulazioaren bidezko erregulazioa.

Irabazi bi lagunendako otordua

UNZUETA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: irailaren 29a da

☎ 943 25 05 05 ✉ kluba@goiena.eus

📍 KLUBA Jateetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



ESKAITZA BEREZIA!!

Irailetik abendura bazkidetza: 30€

Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus


goienakluba
Euskara irabazle, denak irabazle!

ESKER ONA

M. Cruz Ayastuy Ballona

Bixente Orobengoaren alarguna

2020ko irailaren 20an hil zen, 103 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

Bere aldeko meza domekan, irailaren 27an, izango da, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian. Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko.

Arrasaten, 2020ko irailaren 25ean.

ESKER ONA

Goizane Ubera Lete

2020ko irailaren 18an hil zen, 48 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Elgetan, 2020ko irailaren 25ean.

ESKER ONA

Basilisa Azkargorta Egaña

Jose Mari Badiolaren alarguna

2020ko irailaren 22an hil zen, 87 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Eskoriatzan, 2020ko irailaren 25ean.

OROIGARRIA

Maria Josefa de la Granja Ugarte

2020ko irailaren 23an hil zen, 92 urte zituela.



*Urriaren bukaerak
Badu zerbait berezia
Jaiotza piztu zelako
Familia honen hazia
Ordunik jardun du gogor
Emanaz duen guztia
Baina inoiz galdu gabe
Bere barneko grazia*

*Jostea beti izan dezu
Lana baino abilezia
Dotore jantzi ere bai
Familia honen bizia
Gure maitasun beroa
Duda gabe irabazia
Gure bihotzean lekua
Daukazu ondo merezia*

Zure familia.
Bergaran, 2020ko irailaren 25ean.

OROIGARRIA

Maria Josefa de la Granja Ugarte

'Amama Pepa'

2020ko irailaren 23an hil zen, 92 urte zituela.



*Eguneroko gauza txikitari zaitugu:
Hanketako kilima bakoitzean,
Txokolatetz beteriko arratsaldetan,
Maitasunez oparitutako irribarretan
eta bizitzaz disfrutatzen gogoetan.
Txanpainarekin ospatuko zaitugu, amama.*

Zure bilobak: Maialen eta Canio, Beñat, Amaia, Eukene, Markel, Elene, Jon eta Patrizia, Andoni eta Irene eta birbiloba Unax.

OROIGARRIA

Maria Josefa de la Granja Ugarte

2020ko irailaren 23an hil zen, 92 urte zituela.



*Ama, hiru desio eskainiko balizkigute,
hiru aldiz aukeratuko zintuzkegu.*

Zure familia.
Bergaran, 2020ko irailaren 25ean.

OROIGARRIA



Iñaki Errasti Ibabe

2020ko irailaren 17an hil zen, 64 urte zituela.



Zure bizipoza betirako geldituko da gurekin.

Zure kuadrilla.
Aramaion, 2020ko irailaren 25ean.

OROIGARRIA



Maria Biain Kortazar

Felix Aristegi Agirianoaren alarguna

2020ko irailaren 23an hil zen.



*Zure mermeladen modukua,
hain zinan ona, goxua
zure Lur-ama maitian eran
dan-dana emotekua
Aizpeko dama, fin, dotoria*

*heldu udazkenai eskua
ta hegan zolaz; ai zure onduan
bizi izana, ze lujua!
lorez jantzita dogu bihotzian
Tia, zuretzat lekua.*

Lamaiño Etxeberriko lobak.
Bergaran, 2020ko irailaren 25ean.

URTEURRENA

Feliciana Gamboa Murgoitio

2019ko irailaren 28an hil zen, 89 urte zituela.



Bere oroimenez urteurreneko meza zapatuan, hilak 26, 19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren parrokian ospatuko da.

—

*Zure irrifarra eta maitasuna
betirako gurekin geldituko dira.
Sekula ez zaitugu ahaztuko.*

Zure familia.
Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2020ko irailaren 25ean.

HILDAKOAK

- M. Rosario Zubia Leibar.** Oñatin, irailaren 14an. 86 urte.
- Iñaki Errasti Ibabe.** Aramaion, irailaren 17an. 64 urte.
- Goizane Ubera Lete.** Elgetan, irailaren 18an. 48 urte.
- M. Cruz Ayastuy Ballona.** Arrasaten, 20an. 103 urte.
- M. Milagros Lezama Llano.** Arrasaten, 21ean. 80 urte.
- Felix Esperesate Gonzalez.** Arrasaten, 22an. 87 urte.
- Emilia Dominguez Gonzalez.** Arrasaten, 22an. 68 urte.
- Basilisa Azkargorta Egaña.** Eskoriatzan, 22an. 87 urte.
- Maria Biain Kortazar.** Bergaran, 23an. 89 urte.
- Maria Josefa de la Granja Ugarte.** Bergaran, irailaren 23an. 92 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 25	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Zapatua, 26	FERNANDEZ: Muskola 11 / 943 79 22 26
Domeka, 27	IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
Astelehena, 28	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Martitzena, 29	ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguaztena, 30	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguena, 1	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 25	URRITIKOETXEA: Orxondo plaza 4 / 943 76 11 74
Zapatua, 26	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Domeka, 27	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Astelehena, 28	DIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Martitzena, 29	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Eguaztena, 30	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguena, 1	URRITIKOETXEA: Orxondo plaza 4 / 943 76 11 74
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 25	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 26	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 27	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 28	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 29	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 30	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguena, 1	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

ARRASATE GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2020ko abenduaren 31ra arte:
ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38
/ 943 77 16 30

BERGARA GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2020 osoan:
ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76
19 63

Gipuzkoako farmazien
egutgia eskura izateko:
COP Gipuzkoa aplikazioa
deskargatu Google Play eta
App Store dendetan.

BADESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

*Jakin ezazue
nahiz eta heriotz
asegurua izan, zuak nahi
duzuen hileta-zerbitzua
aukeratzeko eskubide
osoa duzuela.*



*Lasaitasuna, maitasuna eta
laguntza dut beti zuentzako.*

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK



1



3

1. Beethovenen musikari jarraiki

Kamerata Euskdivarius-ek musikari alemaniarren *Bigarren sinfonia* interpretatu zuen Bergaran, eta harrera beroa izan zuen herritarren partetik. Hainbat lagun batu zen parrokian musikarien lana entzuteko. Mirian Moñux bergararrak biolinarekin hartu zuen parte kontzertuan eta Arkaitz Mendozaren ardura izan zen batuta.

2. Era jasangarrian mugitzeko murala

Oñatiko Mugikortasun Astearen baitan, mural tailerra egin zuten aurreko zapatuan, Arazi enpresako hezitzaileekin. Bidegorrien erabilera sustatu eta ingurune jasangarri baten ezaugarriak landu zituzten. Murala bitan banatu zuten: alde batean, kutsakorrak diren ibilgailuak ipini zituzten; eta beste aldean, jasangarriak direnak.



4

3. Urrezko ezteiak beteko dituzte

Miguel Angel eta Mari Carmen bergararrak zorioneko daude. 1970eko irailaren 26an ezkondu ziren. Hortaz, bihar, urrezko ezteiak beteko dituzte. 50 urte ezkondu zirela. Eta behar den moduan ospatuko dute etxekoekin. Haiek ere gogoratu dute ospakizun data: "Zorionak, etxekoen partetik! Segi zoriontsu izaten, bikote!".

4. 58 urte ezkondua

Pedro Garitano eta Rosa Mari Larrañaga bergararrak 1962ko irailaren 27an ezkondu ziren. Hori horrela, domekan, ezkondu zireneko 58. urteurrena ospatuko dute. Orain arte moduan, gazte eta zoriontsu izaten jarraitzeko mezua bidali diete etxekoek eta lagunek: "Zorionak eta urte askotarako, bikote!".



2

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

**SAN MIGEL JAIK
ARETXABALETAN**

GOIENA TELEBISTA, HEMEN DEBAGOIENA SAIO BEREZIA
IRAILAREN 25EAN, EGUBAKOITZEAN, 18:00/20:00/22:00

goiena
20 URTE ZUEKIN.



ZORION AGURRAK



ONĀTI
Anartz Arregi Camino
Urriaren 1ean, 9 urte.
Zorionak, *guapeton!*
Ondo pasatu zure
eguna eta patxo
erraldoi bat, gure
partetik.



ONĀTI
Valeria Garcia Gaza
Irailaren 30ean, 8 urte.
Zorionak eta patxo
handi bat amamaren,
tieren eta familia
osoaren partetik!



ARAMAIO
Nahia Reguero
Osinaga
Irailaren 29an, 10 urte.
Zorionak, maittia! Oso
ondo pasatu eta
disfrutatu! Muxu
erraldoi bat, familiaren
partetik. Maite zaitugu!




BERGARA
Naia Gabilondo
Kapelastegi
Irailaren 29an, 11 urte.
Zorionak, Naia!
Ondo pasatu zure
urtebetetzea eta patxo
handi bat aitaxoren,
amaxoren eta Juneren
partetik.



BERGARA
Maddi Lopez Usaola
Irailaren 28an, 5 urte.
Zorionak, maitxia!
Asko maite zaitugu.
Aner, aitaxo eta
amatxo.



ESKORIATZA
Garbiñe Bengoa
Elorza
Irailaren 28an, 63 urte.
Zorionak eta
ondo-ondo pasatu
egun berezi hau, dena
merezi duzu-eta! Maite
zaitugunon partetik!



BERGARA
Iñhitz Eizmendi
Irailaren 28an, 2 urte.
Zorionak etxeko txikiari!
Ilargiraino eta bueltan
maite zaitugu. Patxo
erraldoi bat, aitaxoren,
amaxoren eta, bereziki,
Garaziren partetik. Asko
maite zaitugu!



BERGARA
June Maiztegi Arruti
Irailaren 27an, 5 urte.
Zorionak eta urte
askotarako
familixakuen partetik!
Primeran pasatu zure
eguna, potxola!



ARETXABALETA
Inar Isasmendi
Zabala
Irailaren 27an, 5 urte.
Zorionak, politx hori!
Oso ondo pasatu zure
egunien. Bihotz-
bihotzez maite zaitugun
etxeko guztien partetik,
muxu erraldoi bat!




ONĀTI
Iker eta Aurea
Irailaren 26an, 11 eta 63 urte.
Zorionak, Iker eta Aurea! Ondo pasatu zuen
egunean. Muxu asko, familiaren partetik.



ARRASATE
Lier Lizaur Sagasta
Irailaren 25ean, 5 urte.
Zorionak, txapeldun!
Urtexo bat gehixau!
Denbora ihesi doa!
Ederto pasatu zure
eguna, familia eta
lagun artian! Patxo
potolo bat! Muak!



ARRASATE
Eider Dominguez
Garai
Irailaren 25ean, 6 urte.
Zorionak, Eider maittia;
jadanik sei urte. Jarraitu
zure irribarre polit
horrekin. Patxo pila bat
aitaxoren, amaxoren
eta Juneren partetik.




ARAMAIO
Iruñe Arrizabalaga
Gonzalez
Irailaren 25ean, 7 urte.
Zorionak, printzesa!
Eguna ondo ospatu,
ahal bada txokolatada
batekin. Asko maite
zaitugu etxeko danok.
Batez be tia Eneritzek!



ONĀTI
Ekhi Arregi Baseta
Irailaren 25ean, 7 urte.
Begiak itxi eta
jaioberria zinen;
zabaldu eta zapi
urteko mutikotea zara!
Zorionak, maitia!
Besarkada bat etxeko
marxosoenari! Muxu.



BERGARA
Aitana Mendaraz
Paya
Irailaren 24an, 10 urte.
Zorionak, Aitana!
Ondo ospatu zure
urtebetetzea! Muxu
handi bat, familia
osoaren partetik.



ARRASATE
Aimar Dominguez
Garay
Irailaren 24an, 5 urte.
Etxeko txikiak bost
urte. Patxo handi bat
familia osoaren, eta
batez ere, Nahiaren
partetik. Maite zaitugu.



BERGARA
June Merino Gallego
Irailaren 24an, 2 urte.
Zorionak familia
osoaren partetik!



ONĀTI
Eider Arrizabalaga
Madinagoitia
Irailaren 23an, 7 urte.
Zorionak, politx hori.
Ondo pasatu zure
urtebetetzean. Asko
maite zaitugu.




ARETXABALETA
Oinatz Garro
Larrañaga
Irailaren 23an, 8 urte.
Zorionak, Oinatz! Ondo
pasatu eguna.
Besarkada bat familia
osoaren partetik!



ARRASATE
Ibai Ezkurra Iturbe
Irailaren 22an, 6 urte.
Zorionak, mutil handi!
Zoragarria zare! Ondo
pasatu eguna, merezi
dozu-eta! Muxu eta
besarkada mordo bat!




ONĀTI
Eñaut Beitia
Maisterrena
Irailaren 22an, 9 urte.
Zorionak, Eñaut!
Ondo-ondo pasatu
zure egunean. Muxuak
etxeko danon partetik!



ARRASATE
Aroa Garai Urrutia
Irailaren 22an, 6 urte.
urtebete. Zorionak
etxeko txikiari!
Patxo erraldoi bat jaso
familia guztiaren
partetik!



ARRASATE
Irati Tena Perez
Irailaren 22an, 6 urte.
Sei urte egiten ditu
gure neska handiak.
Egun zoriontsua izan,
maitia! Mila zorion eta
muxu potolo bat!



ARETXABALETA
Aner de la Torre
Muñoz
Irailaren 20an, 6 urte.
Zorionak aitaren,
amaren eta Nahiaren
partetik. Egun polita
izan! Asko maite
zaitugu.




ARRASATE
Nora Rueda Calleja
Irailaren 19an, 4 urte.
Zorionak, bihotza!
Ederto pasatu zure
eguna! Patxo asko,
etxeko guztien
partetik! Izugarri
maite zaitugu!



ARRASATE
Daniel Castillo
Romero
Irailaren 19an, 10 urte.
Zorionak, mutikote!
Muxu erraldoia etxeko
guztien eta batez ere,
Oihanen eta Laiaren
partetik!



ELORRIO
Oinatz eta Malen Bergaretxe
Garitaonandia
Malenek irailaren 18an, 7 urte eta Oinatzek
abuztuaren 23an, 3 urte. Gure etxeko txikiak
handitzen. Asko maite zaituztegu amatxok eta
aitaxok.



ARRASATE
Rebeca Torres
Unanue
Irailaren 18an, 43 urte.
Zorionak, 'jefa'! Ondo
pasatu zure egunean!
Mula muxu, 'Distrito
33'-ko bizilagun
guztien partetik.



ARRASATE
Oihan Perez de
Villarreal Perez
Irailaren 18an, 7 urte.
Zorionak, maittia! Ze
bizkor pasatzen den
denbora. Zazpi urte!
Muxu handi bat amaren,
aitaren eta, bereziki,
Laiaren partetik.



BERGARA
Alex Mendaraz
Paya
Irailaren 17an, 6 urte.
Zorionak, Alex! Ondo
ospatu zure eguna!
Muxu handi bat,
familia osoaren
partetik.




ONĀTI
Xabat Samaniego
Gonzalez
Irailaren 17an, 6 urte.
Zorionak, Xabat!
Merezitako sei muxu
handi danon partetik!



BERGARA
Hodei Gallastegi
Lete
Irailaren 17an, 4 urte.
Zorionak, maitxe!
Konturatu orduko lau
urte gure super
heroiak! Mila muxu eta
besarkada handi-handi
bat, etxeko danen
partetik.



BERGARA
Julen Bolibar
Sanchez
Irailaren 17an, 8 urte.
Zorionak, Julen! Oso
ondo pasatu zure
egunean! Besarkada
eta patxo handi-handi
bat, etxeko danon
partetik.



ARRASATE
Aratz Gorosabel
Espinosa
Irailaren 16an, 17 urte.
Zorionak, Aratz! Muxu
handi bat, familia
osoaren partetik!



ONĀTI
Izar Aramburu
Gende
Irailaren 16an, 4 urte.
Zorionak, Izar, eta urte
askotarako!
Ondo pasatu zure
urtebetetze egunian.
Patxo handi bat, danon
partetik.



ONĀTI
Izaro Arrizabalaga
Madinagoitia
Irailaren 11n, 3 urte.
Zorionak, maittia.
Ondo pasatu zure
urtebetetzean.
Asko maite zaitugu.



ARRASATE
Maria Iriondo
Gezala
Irailaren 8an, 98 urte.
Zorionak familia
osoaren partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko
17:00ak arte
jasotako zorion
agurra bakarrik
iragarriko
ditugu.

Hortik aurrera
jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko
ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 25

ESKORIATZA Euskaltegiko matrikula: gaur da azken eguna Izena emateko: 943-79 21 68 edo idadkaritza@udaleuskaltegia.eus. *Euskaltegian, 09:00etan.*

ARRASATE Rap tailerra

Rapa ahalduntze feministarako erreminta gisa lantzeko tailerra, La Furiaren eskutik. *Kulturaten, 16:00etan.*

ARRASATE 'Ez bultza egin' erakusketa

Euskal arte garaikideari buruzko bilduma ikusgai, gaurtik urriaren 24ra arte. *Kulturaten, 19:00etan.*

ARRASATE 'Txor txor' umore bakarriketa

Ahobizi eta *belarriprest* rolak eta hauek adierazten dituzten portaerak gizarteratzeko. *Seber Altube plazan, 19:30ean.*

ARAMAIO Geraldine hirukotea

Bossa nova doinuak Udaramaio ekimenaren baitan. *Parkean, 19:30ean.*

ARRASATE Zuzeneko irrati 'show'-a

Xolomo Gangsta, Mawateres eta Telmo Trenado. *Streaming bidez jarraitzeko aukera. Kulturaten, 19:30ean.*

BERGARA Kea Ahots taldea

Debalde, edukiera bete arte. *Santa Marina parrokian, 20:00etan.*

ZAPATUA 26

ARAMAIO Mendi ibilaldia

Aitor Aranaren omenezkoa. Irteera ordua baino ordu erdi lehenago egotea komeni da. *Kiroldegian, 08:00etan.*

ARAMAIO Gasteizko auto klasikoen rallya, Kruzetatik

Legutiotik Otxandiorako noranzkoan pasako dira 25 urte baino gehiagoko autoak. *Kurtzetan, 11:30ean.*



GOIENA

BERGARA Aritzeta abesbatza, Bergarako Orfeoia eta Orfeoi Gaztea Kultura Kalean egitarauaren baitan egingo dute kontzertua. Hiru taldeek bakarka abestuko dute. Emanaldia debaldekoa da, baina, edukiera mugatua egongo denez, garaiz joatea eskatu dute. *Bihar, zapatua, San Martin plazan, 19:00etan.*

BERGARA 'Bergarako geologia eta ondare ezagutu, familian' tailerra

Europako Ondare Jardunaldien baitan. Debalde, baina aurrez eman behar da izena, edukiera mugatua dagoelako. *Seminarixoan, 11:00etan.*

ARRASATE Errepresio frankista sufritu dutenei omenaldia

12:00etan, lore eskaintza, eta ostean, Aiert Zubikarainen *1937: Intxortatik Artxandara* liburuaren aurkezpena. *Jose Maria Arizmendiarrrieta plazan.*

OÑATI 'Begi bistan' erakusketa

Ilunpetan argazki taldearen bilduma (Informazio gehiago 34. eta 35. orrietan). *Foruen plazan, 12:00etan.*

OÑATI Herrixa Kantuan

Jose Azpiazu Musika Eskolako kideen eskutik. *Foruen plazan, 12:30etan.*

ANTZUOLA Uzarragako 66. igoera

Gazte mailakoendako 59 kilometroko lasterketa. Irteera Herriko Plazan eta helmuga Uzarragan, 17:25 aldera. *Herriko Plazan, 16:00etan.*

OÑATI 5Gri buruzko hitzaldiak

Osasuna eta elektromagnetismoa, Zer da elektrosensible izatea? eta Nola babestu? dira hitzaldiak. Santa Anan, 17:30ean.

BERGARA 'Beart-eko bekadunak' erakusketa

Bergarako Arte Elkarteak banatzen dituen bekak eskuratu dituztenen lanak ezagutzeko aukera, hilaren 30era arte. *Aroztegin, 18:00etan.*

BERGARA 'Tratado de [h] ortografia' liburuaren aurkezpena

Patxi Irurzun egilearen eskutik, Angiolillo liburutegiak gonbidatuta. *Kartzela Zaharrean, 18:30ean.*

BERGARA Aritzeta abesbatza, Bergarako Orfeoia eta Orfeoi Gaztea, kontzertuan

Debalde. *San Martin plaza, 19:00etan*

OÑATI 5G teknologiaren aurkako protesta

Informa Tu elkarteak deituta. Irekia, herritar guztiendako. *Foruen plazan, 19:30ean.*

ARRASATE '#56' dantza emanaldia

Nazioarteko Sorkuntza Koreografiko Zentroan egindako hiru piezak osatzen dute ikuskizuna. Sare Mamedovak, Vita Osnjnik eta Martin Harriaguek sortua. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

OÑATI AMAK taldea

Alaitz Telletxea, Maixa Lizarribar Amaia Oreja eta Kristina Solano oholtza gainean. Debalde, baina edukiera mugatuarekin. *Plazako karpan, 20:00etan*



ZIRIATA

OÑATI 'Ongi etorri, lagun' antzezlan

Zirtaka taldearen lana, haur migratzaileen integrazioa lantzen duena, umeendako. Debaldekoa da, baina, edukiera mugatua duenez, aurrez hartu behar dira sarrerak udal webgunean edo Txokolateixan. *Bihar, zapatua, plazako karpan, 17:00etan.*

DOMEKA 27

ARRASATE Murugainera irteera dragoiaren bidetik

Familian egiteko irteera, kondaira eta historia batzen dituen ibilbidean. Aurrez eman behar da izena: Arrasate.eus/ezagutu atarian. *Herriko Plazan, 09:00etan.*

ELGETA Intxortako ibilbide gidatua

Gerra zibila Euskal Herrian oinarri hartuta, xehetasunak ezagutzeko aukera, gazteleraz. Izena emateko: 943-79 64 63. *Espaloian, 10:00etan.*

OÑATI Abentura parkea gaztetxoendako

7-12 urte artekoendako askotariko jolasak. *San Martinen, 10:30ean.*

OÑATI Orientazio-jolasa

Arantzazuko ibilbide irisgarrian ipinitako pistak jarraituz, altxorra topatu beharko da. Prezioa, hiru euro. *Arantzazuko Parketxean, 11:00etan.*

ARRASATE Gudarien Eguna

12:00etan, Biteritik, Biterin hasita, hiru gunetan zehar historiari ahotsa jarriko dion *Memoria ibilaldia* bisita gidatua; eta, 19:00etan, manifestazioa eta jarraian ekitaldia, Seber Altuben eta Monterronen. *Arrasateko hainbat lekutan.*

BERGARA Kultura Kalera

Bergarako elkarte ezberdinek euren lanak erakutsiko dituzte. Tailerrak, ikastaro txikiak eta informazio puntuak. *San Martin plazan, 12:30ean.*

OÑATI Voces Riberas taldea

Jota doinuak. Debalde, baina sarrerak aurrez hartu behar dira udal webgunean edo Txokolateixan. *Plazako karpan, 13:00etan.*

BERGARA 'Hego akustikoak' kontzertu akustikoa

Euskal Barrokoensemble taldearen emanaldia. Sarrera debalde, edukiera bete arte. *Santa Marina parrokian, 19:00etan.*

OÑATI Iker Lauroba & Beste Urtaoak taldea

Debalde, baina sarrerak aurrez hartu behar dira udal webgunean edo Txokolateixan. *Plazako karpan, 19:00etan.*

ASTELEHENA 28

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

ESKORIATZA Buztingintza

ikastaroa: izen-ematea zabalik Eguaztenetan emango dute, Zubiate labean: 16:45ean, 6 urtetik gorako haurrendako; eta 18:00etan, helduendako. Izena emateko:



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Euskandinabia

Izan nuen soziologo irakasle batek azaldu zigun jokabide politikoek iraunkortasun handia dutela herrietan. Aipatu zuen Araba-Bizkaia-Gipuzkoan antzerakoak izan zirela emaitzak 1936ko hauteskundeetan eta, berrogei urte ondoren, diktadura ostean berriro bozkatzean. Horrela ulertu beharko da ere Araban eserleku bat lortu izana Vox alderdiak; aurretik han izan ziren UPyD, Unidad Alavesa...

Hamarkada -mende- asko ditu euskal subjektu politikoaren auziak; hau da, euskal lurraldeen eta Estatuaren arteko harreman bereziak. Hala ere, azken garaian ia ez da ageri diskurtsoetan. Badirudi Europa iparraldeko gizarte aurreratu eta normalizatu bat garela: Euskandinabia.

Josu Erkorekak, hamabost egun dela, Jaurlaritzako lehendakariorde kargua hartu berri, esan zuen urrezko aukera dagoela -legea den- Gernikako Estatutua betetzeko. Ez diot inguruko inori entzun adierazpen horrek bihotza ukitu dionik, ez eta Estatutua mugatzat duenari ere. Euskandinabian halakoak.

Edonola ere, irakaslea zuzen zegoelakoan nago eta, lehenago edo geroago, euskal auziaren ardurak babes zabala batuko du bizitza hobea baten alde.

BUKATZEKO

Garun-paralisia oztopo izan barik, mendira

Irati Garaitonandia 11 urteko aramaioarrak mendi buelta bikainaz gozatu zuen familiakoekin joan den domekan. Montes Solidarios elkarteak kideek lagunduta, Joelette aulki gurpildun berezian eraman zuten, Okinatik Sesetaraino

Imanol Beloki ARAMAIO

Mendi buelta eder bat lagun eta familiarakoekin egitea bezalakorik ez dago, eta hori izan da azken boladan Irati Garaitonandia 11 urteko aramaioarrak zuen nahia. Mendi buelta bat egitea, gertukoak alboan izanda.

Garun-paralisia dauka Garaitonandiak, eta familiakoekin dibertsitate funtzionala duten pertsonen zuzendutako mendiko jarduerak sustatu eta antolatzen dituen Montes Solidarios egitasmoak kideekin kontaktatu zuten irteera bat egiteko. Hain zuzen ere, Okina eta Saseta (Benedo) arteko 5,5 kilometro inguruko mendi ibilaldia egin zuten joan den domekan, Ayuda erreko arroila ertzetik doan bideari jarraituz.

Ibilbidea gauzatzeko, Joelette aulki gurpildun berezia erabiltzen dute Montes Solidarios egitasmoak boluntarioek, eta garraiatzeko profesionalak diren boluntarioek eramaten dute dibertsitate funtzionala duen pertsona, irisgarriak ez diren lekuak irisgarri eginez. Lan horretan, bost lagun joan ziren Garaitonandia eramatera, adierazi du Amaia Garaitonandia izabak: "Aurretik doana arnesarekin



Irati Garaitonandia, Joelette aulki gurpildun berezian. AMAIA GARAITONANDIA



Bidean ateratako talde argazkia. AMAIA GARAITONANDIA

doa, beste bat atzetik, balaztekin, eta aldamenetan laguntzen. Horiek aldatzen joaten dira, eta, batez ere, aldapa malkartsuetan egiten zuten indarra".

Mendi buelta opari

Irati Garaitonandia aspaldidanik ari zela mendira joan gura zuela eskatu eta eskatu adierazi du izabak: "Abuztuaren 15ean, 11 urte bete zituen, eta honako irteera hau antolatu genuen opari gisa. Irati eta gurusoak, nire ahizpa eta bere gizona eta euren bi haurrak, nire gizona, alaba eta ni joan ginen. Hamar lagun, guztira. Eguraldi ederra egin zigun, eta esperientzia bikaina izan zen. Montes Solidarios elkartearekin egiten genuen lehenengo irteera zen, eta, bizitako esperientziarekin, errepikatuko dugulakoan nago".

Bide bera egiten

Familiako hamar lagun ez eta boluntarioez gain beste hainbat ere izan zirela adierazi du Garaitonandiak: "Garun-paralisia daukan beste bat ere aulki gurpildun berezian eraman zuten bost lagunek, eta bere familiakoak ere izan ziren. Horrekin batera, itsua edo ikusmen desgaitasuna duen pertsona bat ere izan zen barrarekin...".

Itsuen eta ikusmen gutxiko pertsonen mendiko gidaritzan trebatutako pertsonak ere badiutze Montes Solidarios elkarteak, eta baita aramaioarrekin izan ziren Joelette aulkia maneiatzen eta gidatzen trebatutakoak ere. Aulki hori berezia da, mugikortasun urriko pertsonak edozein mendi-lurretan mugitzeko. Hala, mendiaz gozatu nahi duen orok ez du aitzakiarik.

GOIENA
URTE
20 ALBISTE

DEBA IBAIA BIZIBERRITZEN

'GOIENA: 20 URTE, 20 ALBISTE' ERREPORTAJE-SORTA
GOIENA TELEBISTA
IRAILAREN 25EAN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena
20 URTE ZUEKIN.

